



**Economistas
sin Fronteras**

MgE dosierrak
58. zk., 2025eko uda

TURISMOA BIDEGURUTZEAN: DILEMA GLOBALAK ETA TOKIKO ERANTZUNAK





AURKIBIDEA

- 4 AURKEZPENA: Turismoa bidegurutzan: dilema globalak eta tokiko erantzunak**
María Jesús Such Devesa
eta Patricia Aranda Cuéllar
Alcaláko Unibertsitatea
- 8 Turismoaren karbono-aztarna Espainian: panoramika, erronkak eta aukerak**
Mario Burgui Burgui, Marta Rodríguez-Rey Gómez, Inmaculada Aguado Suárez,
María Jesús Salado García
eta María Jesús Such Devesa
Alcaláko Unibertsitatea
- 12 Turismoa, ura eta jasangarritasuna**
Bartolomé Deyà Tortella
eta Dolores Tirado Bennasar
Balear Uharteetako Unibertsitatea
- 16 Turismoa garapen jasangarrirako tresna: Cancún proiektua**
Pedro Moncada Jiménez, Claudia Inés Martínez,
Sonia Pacheco Castro eta Ana Pricila Sosa Ferreira
Karibeko Unibertsitatea
- 23 Turismo adimenduna alternatiba jasangarri gisa: teknologia eta berrikuntza saturazio-egoera eta hondakinak kudeatzeko**
José Francisco Baños Pino, Emma Zapico Fernández eta Inés Sustacha Melijosa
Oviedoko Unibertsitatea
- 32 Emakumearen lan-baldintzak turismoaren sektorean: nola eragingo du adimen artifizialak haien etorkizunean?**
Mónica Segovia Pérez
Rey Juan Carlos Unibertsitatea
- 37 Hiriak tira-biran: turistifikazioa hirien erronka**
María Jesús Such Devesa
eta Patricia Aranda Cuéllar
Alcaláko Unibertsitatea
- 43 Turismoa etorkizuneko ikuspegiarekin**
Idurre Ostolaza Gárate
Basquetour - Turismoaren Euskal Agentzia
Andrés Fernández Alcantud
Berrikuntzaren eta Teknologia Turistikoen Kudeaketarako Estatuko Merkataritza Sozietatea - SEGITTUR
- 51 Turismo-politika geopolitika berrian**
Jesús Navarro, Ana Ramón, Teresa Torregrosa,
y Marta Suárez Tostado
Alacanteko Unibertsitatea
María Jesús Such Devesa
Alcaláko Unibertsitatea
- 58 GOMENDATUTAKO LIBURUA. Estuve aquí y me acordé de nosotros (Anna Pacheco)**
María Jesús Such Devesa
eta Patricia Aranda Cuéllar
Alcaláko Unibertsitatea
- 61 GEHIAGO JAKITEKO**

Economistas sin Fronteras erakundeak zure laguntza behar du. Uste baduzu gure EsF txostenak edo orokorrean gure jarduerak gizarte-erabilgarritasuna duela, laguniezaguzu gure lana mantentzen. Erreferentziazko GKEa izan nahi dugu bideko ekonomia bilatzeko orduan, gizarte- eta ekonomia eragileen sareko lana sustatu eta elkarriketa errazten laguntzeaz gain. Bakarrik gizarte-partaidetza zabalaren lorpenekin lortu ahal izango baitugu bideko ekonomia. Nahi duzun ekarpen ekonomikoa egin dezakezu:

Ondorengo esteka honetan
inprimakia beteta:

[Egin dohaintza orain](#)

Edo BIZUM: erabiltzearen bidez:



01895

Fundazioaren kodea
Economistas sin Fronteras

Ikus daiteke nola egin dohaintza bizum bidez hemen
<https://ecosfron.org/unete/dona-con-bizum/>

Gure erakundeko bazkide izan eta Economistas sin Fronteras erakundearekin aldizka lagundu nahi baduzu, gure webgunean dagoen inprimakia osatuta egin dezakezu:

[Egin zaitez Bazkide](#)

Edo 91 549 72 79 telefono-zenbakira dei dezakezu • Informazio guztia hurrengo webgune honetan: <https://ecosfron.org/unete/>

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako Espainiako legediak pertsona fisikoek egindako ekarpen eta dohaintzei aldeko tratu fiskala ematen die, PFEZaren kuotan kenkarirako aukera baitago.

ARGITALPEN KONTSEILUA

Luis Enrique Alonso
María Eugenia Callejón
Marta de la Cuesta
Beatriz Fernández Olit
María Luisa Gil Payno
Juan A. Gimeno
Jorge Malfeito Gaviro
José Ángel Moreno

ARGITALPEN TALDEA

María Eugenia Callejón
Javier Esteban
Luisa Gil Payno
Juan A. Gimeno
José Ángel Moreno

Ale honen koordinazioa:


María Jesús Such Devesa eta Patricia Aranda Cuéllar
Alcaláko Unibertsitatea

ISSN 2603-848X Dossieres EsF

La Factoría de Ediciones-en azaleko irudia. Adobe Stock-etik ateratako collage digitala.

Maketazioa: LA FACTORÍA DE EDICIONES, SL

Dossieres EsF es una publicación digital trimestral
de Economistas sin Fronteras



MgE Dosierrak, Economistas sin Fronteras erakundeak egina (<http://www.ecosfron.org/publicaciones/>), Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala lizentzia baten pean banatzen da (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>).

Baimenduta dago lanaren kopiak egitea, osorik edo partzialki, bai eta haren jendaurreko jakinarazpena ere, betiere ez bada helburu komertzialarekin egiten eta jatorrizko lanaren egilea nor den aitortzen bada. Ez da baimentzen lan eratorririk sortzea.

Mugarik gabeko Ekonomialariak (MgE) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) bat da, 1997an unibertsitate-esparruan sortua, eta gaur egun ekonomia bidezkoa, solidarioa eta iraunkorra eraiki nahi duten pertsonen osatua; erakundearen lehentasunezko asmoa pobrezia eta desberdintasunak desagerraraztea da.

Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundearen uste dugu garapen-eredu berri bat behar dela, ekonomia gizakiaren zerbitzura jar dadin, eta ez, gaur egun gertatzen den bezala, milioika pertsona ekonomiaren zerbitzura egon daitezen.

Gure helburua da gizarte-arloan erantzukizuna hartuko duten herritarrak sortzen laguntzea, modu aktiboan jardun dezaten eta gizartea eraldatzeko premiarekiko konpromisoa har dezaten.

Erreferentziazko GKE bat izan nahi dugu bidezko ekonomiaren bilaketan, eta gizarte-eta ekonomia-eragileen artean elkarriketa errazten eta sareko lana sustatzen lagundu. Izan ere, gizartearen parte-hartze zabal baten bidez soilik lortu ahal izango dugu bidezko ekonomia bat.

Gure bazkideen ekarpenak funtsezkoak dira iraupen luzeko proiektuak planifikatu eta egin ahal izateko.

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi
EKONOPOL
Harrobi Plaza, 4,
48003 Bilbo, Bizkaia
Tel.: 722 371 633
ecosfron.euskadi@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak
c/ Gaztambide, 50
(entrada por el local de SETEM)
28015 Madrid
Tel.: 91 549 72 79
ecosfron@ecosfron.org

TURISMOA BIDE GURUTZEAN: DILEMA GLOBALAK ETA TOKIKO ERANTZUNAK

María Jesús Such Devesa eta Patricia Aranda Cuéllar
Alcaláko Unibertsitatea

Ziurgabetasuna nagusi den testuinguru globalean, turismoa munduko ekonomiaren bultzatzaile nagusietako bat dela berretsi da; izan ere, BPGren eta enpleguaren % 10 inguru sortzen du mundu-mailan. COVID-19ak eragindako etenaldiaren ondoren, sektoreak susperraldi azkarra izan du, eta errekorreko zifrak lortu dira turisten kopuruari dagokionez. Gorakada hori erresilientziaren seinaleztat interpretatu da, baina agerian geratu du, halaber, gero eta mendekotasun handiagoa duen eredu hauskorra dela, XXI. mendeko tentsio politiko, sozial eta ingurumen-tentsioen eraginpean.

Egoera horretan, jasangarritasuna eta berrikuntza turismo-lehiakortasunaren ezinbesteko oinarritzat finkatu dira, eta, horrenbestez, eredu orekatu batera bideratu da sektorea, etorkizunera begira jarrita. Eredua birdefinitzea da kontua, ongizateari uko egin beharrik gabe; hau da, planetaren muga ekologikoetara eta bertan bizi direnen behar sozialetara egokitzen diren turismo-moduak eta bizi-estiloak sustatu behar dira. Turismo-eredu hori ez da mugarik gabeko hazkundean oinarritu behar; hau da, helmuga turistikoetan bizitzen, bertan jendea hartzen eta elkarrekin bizirautean jarraitu ahal izatea bermatu behar du, haiek ahitu gabe. Horrela, itxaropenezko etorkizuna izango da, bai pertsonentzat, bai planetarentzat.

Txosten honetan, jarduera turistikoak eta haren inguruko eragileek gaur egun zer errealitate eta erronka dituzten aztertzen da, ikuspegi mikro eta makro batetik, sektorearen etorkizunerako hain sakonak eta sentikorrak diren kontzeptuak, hala nola jasangarritasuna eta berrikuntza, edukiz hustu ez daitezen, eta potentzia eraldatzaile bihurtu daitezen.

Turismo-eredu kontzienteago baterantz aurrera egiteko, lehenik eta behin, ebidentzia enpirikoa eduki behar da, jardueraren benetako inpaktua dimentsionatzeko aukera emango duena. Ondorio horiei buruzko diagnostiko zorrotz batetik abiatuta soilik formulatu ahal izango dira haien

jasangarritasuna eta ongizate kolektiboari egiten dioten benetako ekarpena sustatzeko estrategiak.

Ildo horretan, Alcaláko Unibertsitateak Espainiako herritarren turismo-portaerari loturiko karbono-aztarnaz egindako azterlanaren bidez («HC-TUR: Los turistas españoles ante la compensación de su huella de carbono», PIUAH23/CSJ-026) —azterlan horretatik eratorri da, besteak beste, txosten honetan txertatu den artikulua—, gehiago jakin nahi da gizakiak berotze globalean duen eraginari eta hura minimizatzeko moduari buruz. Oro har, turismoaren industriak klima-aldaketan duen eragina murriztu nahi du; hala nabarmentzen du Glasgowko Adierazpenak, bertan azpimarratzen baita premiazkoa dela sektoreko egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduak eraldatzea, Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat etorritz. Era berean, zenbait erakundek, hala nola Nazioarteko Energia Agentziak (IEA), turismoaren hazkundea agenda klimatikoarekin lerrokatzeko behar diren eraldaketen munta zehaztu dute.

Testuinguru horretan, turisten kontsumo-ohiturek garrantzi berezia dute, bai kontsumitzaile diren aldetik duten portaeragatik, bai emisio-maila txikiagoko turismo-eskaintza bultzatzeko duten indarragatik. **Mario Burgui Burgui, Marta Rodríguez-Rey Gómez, Inmaculada Aguado Suárez, María Jesús Salado García eta María Jesús Such Devesa** egileen azterlanean, Espainiako herritarren turismo-portaerari buruzko aurkikuntzak ekintza zehatz bihurtzeko erronka planteatzen da, planetari nahiz turismoaren sektoreari berari onura ekarriko dioten ekintza, hain zuzen ere.

Turisten portaeraren eta haren ingurumen-inpaktuaren harira, **Bartolome Deyà Tortella eta Dolores Tirado Bennasar** egileek (Universitat de les Illes Balears) turismoaren jarduerak ur-kontsumoan duen intentsitateari buruzko artikulua idatzi dute. Gizakien ingurumen-erronkarik premiazkoenetako bat estres hidrikoa da, hau da, ur gezaren eskaria ase ezina, kantitateari, kalitateari



eta eskuragarritasunari dagokienez. Arazo hori larriagotu egiten da zenbait faktoreren ondorioz, hala nola klima-aldaketa, hazkunde demografikoa (% 50 gehiago 1990 eta 2022 artean, Munduko Bankuaren arabera), kontsumo-aldaketak eta uraren erabilera intentsiboa jarduera ekonomiko batzuetan, turismoan, besteak beste. Ura turisten oinarritzko beharrak asetzeko behar izateaz gain (ostatua, garbiketa, igerilekuak, spak edo golf-zelaiak), funtsezkoa da esperientzia turistiko askotan. XXI. mendearen hasierarekin alderatuta, 2050erako turismoaren ur-kontsumoa bikoiztu egin daitekeela uste da. Gainera, turismoak ur-eskari handia sortzen du zeharka, bere hornidura-katearen bidez: elikadura, garraioa, energia, etab. Askotan, turista batek herrialde garatuetan bizi den pertsona batek baino bi edo hiru aldiz ur gehiago kontsumitzen du, eta garapen-bidean dauden herrialdeetan bizi den pertsona batek baino hamabost aldiz gehiago. Horregatik, helmuga turistikoetako ur-baliabideen kudeaketa jasangarria funtsezkoa da helmuga horiek bideragarriak, lehiakorak eta jasangarriak izan daitezen. Eskaintzaren eta eskariaren arabera planteaturiko problematika eta proposatu beharreko politika publikoak dira azterlanaren ardatza.

Masen eredu turistikoak presio jasanezina eragiten du natura-baliabideetan, eta haren ondorioak ere intentsitate berarekin edo handiagoarekin hedatzen dira helmugetako ehun sozial eta ekonomikoan. Egoera horietako bat edo beste argitzeko eta, horrez gain, ikuspegia Espainiako mugetatik harago zabaltzeko, Karibeko Unibertsitateko (Cancunen du egoitza) ikertzaile-talde batek egindako artikulua bat erantsi da.

Ikerketa Cancunen zentratzen da, Mexikoko eguzki- eta hondartza-turismoaren gune nagusian eta nazioartean garrantzi handia duen helmugan —Espainiaren inbertsioa nabarmenarekin, gainera—, jasangarritasunaren arloan zer erronkari aurre egin behardienaztertzeko, dimentsio soziala nabarmenduta. Arrakastaren eredutzat hartu ohi bada ere, turismo masiborako duen joera handiak lotura eskasa eragin

du bisitarien eta tokiko biztanleriaren artean, eta askotan zerbitzu-harreman hutsera mugatzen da. Dinamika hori dela-eta, erronka handiak planteatzen dira epe luzerako jasangarritasunari begira.

Hotel-eremuaren gehiegizko dentsifikazioak eragin dituen askotariko ingurumen-arazoak aztertzeaz gain —bertan biltzen baitira garapen turistikoak—, Cancunen den arazo sozial larrienetako batean zentratu da ikerketa: lan-prekarietatean. Problematika horren isla dira soldata baxuak, bizi-kostu altuari aurre egitea zailtzen dutenak, eskupekoekiko mendekotasun handia eta kontratuen behin-behinekotasun handia. Paradoxikoki, hoteletako soldatak txikiak badira ere, Cancuneko soldata-egitura erakargarria da diru-sarrerara txikiagoak dituzten beste estatu batzuetako langileentzat. Hala, turismoarekin lotuta jasotzen diren eskupekoen erakargarritasunak eskulana erakartzeko elementu izaten jarraitzen du, eta jarduera turistikoetan edo horiekin loturikoetan lan egitea espero duen jendearen kopurua etengabe haztea sustatzen du.

Egoera horrez gain, hiri-hazkundea desordenatua da, eta ehundik gora dira lurzorua «zatatze irregular» deritzenak, hau da, hirigintza-lege eta -arauetatik kanpo garatutako bizitegi-eremuak. Eremu horietan, oro har, ez dago oinarritzko zerbitzurik —edateko ura, drainatze-sistema, elektrizitatea, garraio publikoa edo bide-azpiegitura egokia—, eta, horrez gain, gabezia handiak daude oinarritzko eskubideak eskuratzeari dagokionez, hala nola bertakoentzako hezkuntza eta osasuna. Hala, **Pedro Moncada Jimenezek, Claudia Inés Martínezek, Sonia Pacheco Castrok eta Ana Pricila Sosa Ferreirak** eredu bat eta eredu horren berezitasunak aurkeztuko dituzte txostenean, baita Cancuneko garapen jasangarriari laguntzeko turismoak dituen aukerak ere.

Gizartean eta hirian bizi den egoera konplexu hori, hain zuzen, turisten fluxuaren nahiz irabazien hazkundean oinarritutako eredu turistikoak dakartzan

kontraesanen tokiko adierazpena da. Cancunen antzemandako inpaktu kaltegarri horiek beste helmuga askotan ere nabari dira, horietan ere areagotu egiten baita jarduera turistikoak tokiko baliabideei eta komunitateei egiten dien presioa.

Horregatik da beharrezkoa turismoa birpentsatzea eta eredu jasangarri baterantz bideratzea, ohiko eskema gaingaituta, hau da, epe laburrera bisitarien eta diru-sarreraren bolumena maximizatzea lehenesten duena, inpaktu kaltegarriak sortzearen bizkar. Aurreko ekarpenetan nabarmendu den moduan, eredu horrek gehiegi ustiatzen ditu baliabide naturalak eta kulturalak, helmugako eremuen harrera-gaitasuna aintzat hartu gabe eta bertakoak baztertuz erabakiak hartzeko prozesuetatik.

Hain zuzen ere, arazo horien harira dator **José Francisco Baños Pino, Emma Zapico Fernández eta Ines Sustacha Melijosaren** ekarpena (Oviedoko Unibertsitatea). Beren analisisan, jarduera turistikotik eratorritako bi kanpo-ondorio kaltegarri jartzen diete arreta: hondakinen sorrerari eta saturazio-egoerari (*overtourism* ere esaten zaio). Adimen turistikoa planteatzen da erantzun gisa, eta, arlo horretan, Helmuga Turistiko Adimendunaren esparrua nabarmentzen da, SEGITTUREk proposaturikoa. Turismo-eredu jasangarria lortzeko bidean aurrera egiteak erantzukizun kolektiboaren beharra dakar, baina, horrekin batera, sektore horrek gure gizartean zer funtzio betetzen duen birpentsatzeko aukera ematen du. Teknologia, berrikuntza, inklusioa eta ingurumenarekiko errespetua biltzen dituzten estrategiak bultzatzea funtsezkoa da etorkizuneko belaunaldiek ere turismoaz baliatzen jarraitu dezaten; izan ere, modu arduratsuan kudeatuz gero, garapenaren eta ongizatearen motor gisa jardun dezake maila globalean.

Nolanahi ere, eredu jasangarriago baterako bidean egungo desberdintasunak ez errepikatzeko eta haietan ez sakontzeko, egiturazko tentsioak gaingaitzeko gai diren elementuak txertatu behar dira. Larrienetako bat turismoko enpleguarekin loturiko lan-prekarietatea da, jarduera feminizatuenetan, batez ere. Emakumeek lan-baldintza okerragoak izan ohi dituzte kontratu-motei, behin-behinekotasunari eta soldatei dagokienez.

Hain zuzen ere, horixe da **Mónica Segovia Pérezek** (Juan Carlos Erregea Unibertsitatea) egiten digun analisiaren abiapuntua; hau da, turismoaren sektoreko

lan-eremuan emakumeek bizi duten zaurgarritasun-egoeran zentratzen da, eta adimen artifizialaren (AA) agerpenak jarduera eta prozesu turistikoetan genero-berdintasunari dagokionez nola eragiten duen ere aztertzen du. Turismoaren industrian AA gero eta gehiago sartzeak dinamika berrietara egokitzea eskatzen du, baina, horrez gain, ikuspegi ekitatiboagoa eta jasangarriagoa sustatzeko aukera ere ematen du, epe luzera sektorearen lehiakortasuna eta erresilientzia indartuko dituen. GJHren esparruan, 5. GJHk funtsezko eskubidetzat du genero-berdintasuna, nola orokorrean hala espezifikoki lan-ingurunean. Zentzu horretan, bai Europako Batzordearen bai NBE Turismoaren iritziz, adimen artifizialaren garapenean genero-ikuspegia txertatzea funtsezko faktorea da turismo benetan jasangarriarako bidean aurrera egiteko.

Turismoa motor eta haustura gisa hartzearekin lotuta, **María Jesús Such Devesa eta Patricia Aranda Cuéllar** zenbaki honen koordinatzaileen lanean, turismoa lurralde batzuetan —batez ere hiri-inguruneetan— eragiten ari den eraldaketari heldu zaio, alokairuko plataforma digitalen agerpenak bizkortuta, bai eta XXI. menderako eraikitzen ari garen hiri-ereduari buruzko funtsezko galdera batzuei ere. Inpakturik esanguratsuenetako bat higiezinaren merkaturia aldatzea da; izan ere, etxebizitzek bizitegi-funtzio hutsa betetzeari utzi diote, eta, turismoaren eskutik, errentagarritasun handiko finantza-aktibo bihurtu dira. Inpaktua nabarmena izan da hiriburu turistiko askotan: operadore profesionalen esku dauden etxebizitzaren kontzentrazioa, eskuragarri dauden etxebizitzaren eskaintzaren murrizketa eta, kasu askotan, hain errenta handiei aurre egiteko gai ez direnak kanporatzeko dinamikak. Horren ondorioz, auzoak egoiliarrez husten ari dira, eta erabilera turistikoko gune huts bihurtzen.

Nolanahi ere, irtenbidea ez da turismoari berari uko egitea, turismoa berbideratzea baizik. Fluxu turistikoaren onurak modu orekatuagoan banatzen direla eta haien inpaktua hiriko bizigarritasunarekin eta aniztasunarekin bateragarria dela bermatzea da erronka, ez fluxu turistikoak ezabatzea. Eta horretarako, esparru politiko berri bat behar da, egoiliarren ongizatea, gobernatzeko modu berriak eta bizitegi-etxebizitzaren parkearen babes aktiboa lehenetsiko dituen. Hiri justuagoak ez dira lortzen turismoari ateak itxiz; hau da, turismoa hiri bizigarriago, anitzago eta jasangarriago baten zerbitzura egongo den ereduak diseinatu behar dira.

Ildo horretan, helmuga turistikoen gobernantza funtsezko elementu bihurtzen da fluxuen kudeaketari eta haren ondorioen arretari dagokienez. **Idurre Ostolaza Garate** (Basquetour) eta **Andrés Fernández Alcántud** (SEGITTUR) egileen lanean, Helmuga Turistiko Adimendunei (HTA) buruz hausnartzen da, bi erakundeek proposatutako ikuspegi kontzeptual eta metodologikoarekin, eta gobernantzaren ardatza azpimarratzen da. Helmuga Turistiko Adimendunen ereduak egungo testuinguru ekonomiko, sozial eta teknologiko globalak eragindako aldaketetara eta erronketara egokitzeko bidea ematen die helmugei eta sektore turistikoko pribatuari, turismoaren esparruan urteetan izandako bilakaeran eta praktikan metatutako ezagutzarekin. Turismoaren gobernantza-modu berri bat da, sektorearen lehiakortasuna bultzatzera, lurraldearen garapen jasangarria sustatzera eta tokiko biztanleen bizi-kalitatea hobetzera bideratua. Politika publiko horren helburua da turismo-eredu tradizionala adimendunago bihurtzea, ezagutzaren gizartearen, trantsizio ekologikoaren eta ekonomia digitalaren printzipioekin bat etorritz.

Egokitzeko gaitasuna, eta helmugen kudeaketan adimena, gobernantza-eredu berriak eta lankidetzatxertatzeko gaitasuna, oso aurrerapauso garrantzitsuak dira, baina bere horretan ez dira nahikoa tentsio eta erronka gero eta handiagoei aurre egiteko. Testuinguru horretan, politika turistikoen azterketa geopolitikoak gogorarazten digu helmugak ezin direla elementu isolatutzat hartu. Ezinbestekoa da turismoa egungo egoera global nahasian kokatzea, joko-arau berriekin eta helmuga askotan dituzten arrisku partekatuekin. Esparru horretan, zentzu bete-betea du txosten honetako azken ekarpenak. Bertan, **Jesús Navarro, Ana Ramón eta Marta Suárez Tostado** Alacanteko Unibertsitateko ikertzaileak eta **María Jesús Such Devesa** Alcaláko Unibertsitateko ikertzaileak politika turistikoa aztertzen dute, egungo esparru geopolitiko global aldakorrean. Sektore hau birpentsatzeko beharretik abiatuta, gaur egungo egoeran behar-beharrezkoa da turismoa birplanteatzea, BPGri egiten dion ekarpenaz harago; hau da, turismoaren gizarte-, ingurumen- eta kultura-inpaktuak ere kontuan hartu behar dira. Etekinen banaketa bidezkoagoa eta espazioaren kudeaketa parte-hartzaileagoa lortzeko bidean aurrera egiten ez bada, arrisku bat dago; izan ere, helmugak dinamizatzen dituzten jarduerak berek jar dezakete estualdian helmuga horien bizigarritasuna.

Turismoak komunitateen sostengu izan behar du, eta, horretarako, ez dira nahikoa zigiluak edo etiketak; jasangarritasuna ezinbesteko baldintza da sektorearen biziraupenerako. Esparru horretan, politika turistikoa bidezko garapenaren ikuspegi zabalagoan integratu behar da. Eta horretarako, herritarren parte-hartzea sustatu behar da, irabazien banaketa justua bermatu, ekonomia soziala indartu, eta lurraldearen ahalmena errespetatuko duen trantsizio ekologikorako bidean aurrera egin. Azken batean, bestelako turismo-eredu bat sustatu behar da: berehalako irabazietan gutxiago zentratzen dena eta ongizate komunera gehiago bideratzen dena.

Gomendatutako liburua atalean, Anna Pachecoren saiakera bat proposatu dute koordinatzaileek: *Estuve aquí y me acorde de nosotros*. Koordinatzaileek saiakerari buruz idatzitako berri laburrean, esplotazio-dinamikak betikotzen dituen sistema batean langileek eta turistek dituzten erronkak nabarmentzen dira. Bartzelona hiria hautatu da ikergai gisa, aukeraketa bereziki egokia; izan ere, hiri-turismoak eta, bereziki, *turismo fobiak* eragindako tentsioen ikur bilakatu da hiria. Saturazio turistikoen prozesua ez da Kataluniako hiriburuan soilik gertatzen; dena den, modu laster eta bereziki agerian gertatu da bertan, gaur egun hiri-helmuga askori eragiten dieten dinamika globalak aurreratuta.

Pachecok hiriko hiru hoteletan egindako ikerketa enpirikoak paradoxa nagusi bat nabarmentzen du: langileek eta bezeroek —guztiak ere turistak unerren batean— espazio bera partekatzen dute, baina lehenengoei ez dute ia aukerarik beren lanari esker gauzatzen diren turismo-esperientziez gozatzeko. Liburuko ekarpen adierazgarrienetako bat masa-turisten nozioa da, «esplotazioa bultzatzen duten esplotatutzat» hartzen dituen. Hau da, adierazpen horrekin agerian jartzen du prekarietate-zikloaren paradoxa; izan ere, ziklo hori betikotu egiten da, norberaren bizi-baldintza prekarioetatik aisialdiaren eta ongizatearen bidez ihes egin nahi dutenek eurek, oharkabea, desberdintasun-dinamikak eta lan-prekarizazioa bultzatzen baitituzte bisitatutako lekuetan.

Lan honetaz harago, Suchek eta Arandak irakurgai osagarriak gomendatzen dituzte **Gehiago jakiteko** atalean, hau da, ikuspegi kritiko eta birsortzaile batetik Pachecoren analisia osatzen duten irakurgaiak, turismoak dituen erronken dinamikak eta konponbideak hobeto ulertzen laguntzen dutenak. ■

Mario Burgui Burgui, Marta Rodríguez-Rey Gómez, Inmaculada Aguado Suárez, María Jesús Salado García eta María Jesús Such Devesa

Alcaláko Unibertsitatea

Sarrera

Turismoa funtsezko motor ekonomikoa da maila globalean; izan ere, ekarpen esanguratsua egiten du Barne Produktu Gordinean (BPG) eta milioika enplegu sortzen ditu. COVID-19aren pandemiaren ondoren izan den susperraldi ekonomikorako funtsezko sektoretzat aitortu da, eta agerian utzi ditu bere erresilientzia eta baldintza aldakorretara egokitzeko gaitasuna.

Gure herrialdean, nazioko ekonomiaren euskarri eztabaida ezina da. Nolanahi ere, ingurumenean eragiten duen inpaktuak —batez ere berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriei dagokienez— erronka handiak dakartza. Berriki egindako ikerketek erakutsi dute turismoak BEGen emisio globalen % 8 eta % 10 artean eragiten duela, erabilitako ikuspegi metodologikoaren arabera. Espainian, ehuneko hori altuagoa izan daiteke, eta % 15era ere iristen da, zenbait analisiren arabera. Beraz, datu horiek adierazten dute karbono-aztarna murrizteko estrategiak ezarri behar direla sektorean, NBEren 2030 Agendaren esparruan klimarekin eta jasangarritasunarekin loturiko erronkei heltzeko.

Turismoa eta klima-aldaketa

Turismoak klima-aldaketan eragiteaz gain, fenomeno horren eragin sakona jasan dezake. Tenperaturen igoerak eta ekosistemen narriadurak mehatxupean jarri dituzte helmuga nagusi batzuk, hondartzak, mendiak eta babestutako eremu naturalak, esate baterako. Bestalde, klima-aldaketarekin lotutako muturreko gertaera klimatikoek, hala nola bero-boladek, urakanek eta uholdeek, azpiegitura turistikoa ez ezik, erabiltzaileen segurtasuna ere arriskuan jartzen dute.

Arrazoi horiek direla eta, turismoaren industriak, agertoki berrietara egokitzeaz batera, klima-aldaketan duen eragina murriztea proposatzen du. Hori adierazten du Glasgowko Adierazpenak; izan ere, garapen jasangarrirako helburuen ildoan, turismoan ekoizteko eta kontsumitzeko moduak aldatzeko beharra nabarmentzen du. Bestalde, zenbait erakundek —Energiaren Nazioarteko Agentziak (IEA, ingelesezko siglen arabera), esaterako— adierazi dute sektore horrek errotiko aldaketak behar dituela, baldin eta sektorearen garapena eta agenda klimatikoa bateragarri egin nahi badira. Horien artean, bereziki garrantzitsuak dira turistaren kontsumo-ereduei dagozkienak, emisio gutxiagoko eskaintza baterako aldaketak behartu baititzaizkete.

Espainiako biztanleen turismoko karbono-aztarna

Espainiako populazioaren turismo-jarduerari lotutako karbono-aztarna eta aztarna horretan eragiten duten faktoreak zehatz-mehatz aztertzeke helburuarekin, Alcaláko Unibertsitateak nazio-mailako azterketa egin berri du.

Azterlan horretan, bottom-up ikuspegia erabili da; hala, 1.000 pertsonak parte hartu zuten inkesta bat egin zen, inkestatuak bizi ziren eskualdearen, haien sexuaren eta adinaren arabera proportzionalki banatuta. Inkesta gizarte-azterketetan esperientzia handia duen enpresa baten laguntzarekin egin zen (Netquest, S.L.), eta parte-hartzaileek azken urtean egindako bidaiak garestienaren datu zehatzak jaso ziren; horrez gain, azterketaren helburuekin lotutako beste aldagai garrantzitsu batzuei buruzko datuak ere jaso ziren. Horri esker, garraioarekin, ostatuarekin, elikadurarekin eta beste jarduera turistiko batzuekin lotutako emisioak zehatz-mehatz ezagutu ahal izan dira, eta, gainera, estatistikoki aztertu ahal izan da ea loturarik baden karbono-aztarna

horren eta parte-hartzaile bakoitzaren profil soziodemografikoaren artean.

Emaitzek adierazi dutenez, garraioa da turismoko karbono-aztarnaren eragile nagusia Espainian (mundu mailan gertatzen den antzera); zehazki, emisio guztien % 48 eragiten du. Bigarren tokian daude elikadura eta aisialdiko jarduerak (% 33), eta atzetik dago ostatuarekin loturiko jarduera (% 19). Batezbestekoan, aztertutako bidaiak karbono-aztarna hau eragin zuen: 662 kg CO₂b turista bakoitzeko¹. Bidaiako gastu ekonomikoa eta turismo-jardueretan egiten den urteko gastua alderatuz, turista bakoitzaren urteko karbono-aztarna 910 kgCO₂b ingurukoa zela kalkulatu zen.

Helmuga-mota kontuan hartuta, nazioarteko bidaiak emisio nabarmen handiagoak eragiten dituzte, hegazkina erabiltzen baita garraibide gisa. Kontrara, nazioko bidaietan, elikadurarekin eta aisialdiko jarduerekin lotutako gastuetan kontzentratu ohi da klima-eragina (garraioaren aztarna baino pixka bat handiagoa izan ohi da, gainera).

Aztertutako aldagai sozio-demografikoen artean, diru-sarreraren maila nabarmendu behar da; karbono-aztarnarekin lotutako azterlan gehienetan, faktore erabakigarria da. Lortutako emaitzen arabera, diru-sarrera handienak dituzten turistek arrasto nabarmen handiagoa uzten dute, urrutiko helmugak eta kategoria handiagoko ostatuak nahiago izaten baitituzte. Ikasketa-maila handienak ere karbono-aztarnaren arabera patroia proportzionala erakutsi zuen; hau da, graduako, graduondoko eta doktoregoko ikasketak dituzten turistek izan zituzten batez besteko emisio handienak. Oro har, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak erosteko ahalmen handiagoa izan ohi dute oinarritzko ikasketak edo erdi-mailako ikasketak dituztenek baino, eta, beraz, hori izan daiteke arrazoiak.

Arrazoi horiek baliagarriak dira, halaber, azaltzeko ordainsari txikiko zenbait sektoretan lan egiten duten pertsonak, hala nola jatetxeetan edo etxeko lanetan,

turismo-aztarna txikiagoa uzten dutela; gauza bera gertatzen da ikasleekin eta langabeekin ere.

Bestalde, sexuaren arabera, gizonek emisio handiagoak eragin zituzten, eta adin-tarteak aztertuz, karbono-aztarna txikiagoa izan zuten 24 urtetik beherakoek, 35-44 urtekoek eta erretiratuek.

Turismoaren sektorean dituen ondorioak

Espainian pertsonako karbono-aztarna sei tona ingurukoa dela kontuan hartuta (kontsumoa aztertuta), turismo-jardueren inpaktua benetan esanguratsua da (% 15 ingurukoa). Gainera, aurreikuspen gehienek adierazten dutenez, turismoarekin loturiko joan-etorriek goraka jarraituko dute datozen urteetan, baita ezegonkortasun ekonomikoak eta geopolitikoak izanda ere.

Egoera hori erronka handia da baldin eta sektorearen jasangarritasun ekonomikoa eta emisioak murrizteko helburua, klima-aldaketari buruzko azken gailurretan adostutakoa, bateragarri egin nahi badira. Erantzuna argia da: gehiago eta azkarrago lan egin behar da, hazkunde ekonomikoa eta hazkunde horrek sortzen duen klima-inpaktua banantzeko. Jada, atzean geratu da lehen erabili ohi zen leloa, turismoa «industria garbia» zela zioena.

Azterlan honetan erabilitako bottom-up ikuspegiari esker, bidaiaren etapa bakoitzari lotutako emisioen ikuspegi zehatza lor daiteke. Hau da, bidaiaren plangintzari, garraioari, eta baita helmugako jardueri dagokiena ere. Beste metodo batzuetan ez bezala —input-output ereduetan, adibidez—, turistek zuzenean emandako datuetan oinarritzen da ikuspegi hori, eta horrek analisiaren zehaztasuna hobetzen du. Gainera, kontsumo-eredu espezifikoak identifikatzeko aukera ematen du; eredu horietan, hain zuzen, hainbat faktorek eragin dezakete, hala nola hezkuntza-mailak, diru-sarrerak eta helmugaren aukeraketak.

Aurrez aipatu bezala, analisiak erakutsi zuen alde nabarmenak daudela emisioetan, turisten ezaugarri demografikoen arabera. Adibidez, gizonek emakumeek baino karbono-aztarnaren batezbesteko handiagoa izan zuten, garraioan, batez ere. Era berean, hezkuntza-maila altuagoa eta diru-sarrera handienak zituzten pertsonak bidaiak luzeagoak eta nazioarteko

1. CO₂b unitatea erabiltzen da berotegi-efektuko gasen emisioak neurtzeko. «b» atzizkia «baliokidea» hitzari dagokio, eta adierazten du neurrietan berotegi-efektua eragiten duten beste gas batzuk ere sartzen direla, CO₂-z gain, horiek ere klima-aldaketa eragiten dutenak.

[...] gizonek emakumeek baino karbono-aztarnaren batezbesteko handiagoa izan zuten, garraioan, batez ere. Era berean, hezkuntza-maila altuagoa eta diru-sarrera handienak zituzten pertsonek bidaia luzeagoak eta nazioarteko helmugetara joateko bidaiak egin zituzten, oro har, eta horrek, noski, karbono-aztarna areagotzen du. Aitzitik, gazteek eta erretiratuek arrasto nabarmen txikiagoa izan zuten, karbono-aztarnari buruzko beste azterlan batzuetan behatutako patroio orokorrekin bat eginez.

helmugetara joateko bidaiak egin zituzten, oro har, eta horrek, noski, karbono-aztarna areagotzen du. Aitzitik, gazteek eta erretiratuek arrasto nabarmen txikiagoa izan zuten, karbono-aztarnari buruzko beste azterlan batzuetan behatutako patroio orokorrekin bat eginez.

Turismoaren sektorean, bildutako datu horiek funtsezkoak dira estrategia jasangarriak garatzeko. Adibidez, garraioak guztizko emisioetan duen nagusitasunari buruzko datuek alternatiba ekologikoagoetan inbertsioak egitea bultzatu dezakete, hala nola abiadura handiko trenetan, edota hegazkinetan erregai jasangarriak erabiltzea eragin dezakete. Era berean, ostatueta hainbat neurri har ditzakete, hala nola eguzki-panelak jartzea, ura modu eraginkorrean kudeatzea eta ingurumen-inpaktu txikiko tokiko zerbitzuak sustatzea.

Erronkak eta aukerak

Turismo jasangarrirako bidean ere badira erronkak. Erronka nagusien artean aipatu behar da sektoreko eragile batzuek aldaketarekiko agertzen duten erresistentzia (edo ezintasun teknikoa), batez ere erregai fosilen eskari handia duten eredu mende daudenek. Adibiderik argiena hegazkintza da, horrek eragiten baititu emisio turistiko gehienak eta ez baitu alternatiba bideragarririk epe laburrera. Hala ere, bada baikortasunerako lekuri itsas bidaietan izan berri den bilakaerari erreparatzen badiogu, elektrifikazioa

eta karbono gutxiko beste eredu energetiko batzuk indartsu sartzen ari baitira.

Erronkekin batera, aukerak ere sortzen dira, hala nola hazten ari den merkatu-segmentu bat erakartzeko aukera: ingurumenarekin kontzientziatutako bidaiariak.

Eredu jasangarri baterako bidean aurrera egiteko, funtsezkoa da bidaiaren alderdi guztiei helduko dieten politika integralak ezartzea. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, gutxiago kutsatzen duten garraioak erabiltzeko edota ostatueta energia berriktagarrien erabilera areagotzeko pizgarriak, bai eta turistek zuzendutako kontzientziazio-kanpainak ere, azken horiek, askotan, ez baitira jabetzen beren bidaiak ingurumenean duten eraginaz. Gertuko helmugak eta landa-turismoa sustatzeko ekimenek ere karbono-aztarna murriztu dezakete, aire-garraioaren beharra gutxitzen baitute. Horrela, gainera, tokiko ekonomia sustatzen da.

Azterlan honetan erabilitako bottom-up ikuspegiari esker, bidaiaren etapa bakoitzari lotutako emisioen ikuspegi zehatza lor daiteke. Eta ez soilik intuitiboenei dagozkienak (garraioaren edo ostatuaren blokean aipatutakoak, adibidez), baita garrantzi handia duten beste batzuetakoak ere, hala nola janaria, erosketak, gaueko aisialdia eta abar. Datu makroekonomiko agregatueta oinarritutako beste metodo batzuk ez bezala, Alcaláko Unibertsitatearen azterlanean erabilitako ikuspegia zuzenean turistek emandako datuetan oinarritzen da. Horrek, lehenik eta behin, analisiaren zehaztasuna hobetzen du, xehetasun-maila handia ematen baitu kontsumo-sektoreen araberrako banakako karbono-aztarnaren datuetan. Horrez gain, erabiltzaile-profil bakoitzerako kontsumo-eredu espezifikoak identifikatzeko aukera ematen du; eredu horietan, hain zuzen, hainbat faktorek eragin dezakete, hala nola hezkuntza-mailak, diru-sarrerak eta helmugaren aukeraketak. Azken batean, horrelako azterlan xehatuek aukera ematen dute politika espezifikoak diseinatzeko, bai merkatuko segmentu bakoitzerako, bai bidaiaren etapa bakoitzerako, eta, horrela, karbono-aztarnaren murrizketa potentziala optimiza daiteke.

Zalantzarik gabe, turismoak funtsezko zeregina du karbono gutxiko eredueta bidean egungo gizarteak egin behar duen trantsizioan. Era berean, azpimarratu behar da sektorearen jasangarritasuna,

ingurumen-erantzukizuna ez ezik, agindu ekonomiko eta soziala ere badela.

Gero eta gehiago dakigu gizakiak berotze globalean duen eraginari buruz, baina baita eragin hori minimizatzeko moduei buruz ere. Zenbait ikerketak —hemen aurkeztutakoak, kasu— oinarri sendoa ematen dute turisten kontsumo-dinamikak eta dinamika horiek haien karbono-aztarnan duten eragina ulertzeko. Erronka, beraz, aurkikuntza horiek ekintza zehatz bihurtzea da, planetari eta turismoaren sektoreari berari onura ekarriko dioten ekintza, hain zuzen ere. ■

Bibliografia

- Cadarso, M. Á.; Gómez, N.; López, L. A.; Tobarra, M. Á. eta Zafrilla, J. E. (2015): «Quantifying Spanish tourism's carbon footprint: the contributions of residents and visitors: a longitudinal study», *Journal of Sustainable Tourism* 23(6), 922-946.
- Cadarso, M. Á.; Gomez, N.; López, L. A. eta Tobarra, M. Á. (2016): «Calculating tourism's carbon footprint: measuring the impact of investments», *Journal of Cleaner Production*, 111, 529-537.
- Casals, C.; Barioni, D.; Mancini, M. S.; Jordà, J. C.; Roura, M. B.; Salas, S. P.; Llenas, L. eta Galli, A. (2023): «The footprint of tourism: A review of water, carbon, and ecological footprint applications to the tourism sector», *Journal of Cleaner Production*, 138568.
- Lenzen, M.; Sun, Y. Y.; Faturay, F.; Ting, Y. P.; Geschke, A. eta Malik, A. (2018): «The carbon footprint of global tourism», *Nature Climate Change*, 8(6), 522-528.
- Osorio, P.; Cadarso, M. Á.; Tobarra, M. Á. eta Garcia-Alaminos, Á. (2023): «Carbon footprint of tourism in Spain: Covid-19 impact and a look forward to recovery», *Structural Change and Economic Dynamics*, 65, 303-318.
- Rico, A.; Martinez-Blanco, J.; Montlleó, M.; Rodríguez, G.; Tavares, N.; Arias, A. eta Oliver-Solà, J. (2019): «Carbon footprint of tourism in Barcelona», *Tourism Management*, 70, 491-504.
- Scott, D. eta Gössling, S. (2021): «Destination net-zero: what does the international energy agency roadmap mean for tourism?», *Journal of Sustainable Tourism* 30(1), 14-31.
- Sharp, H.; Grundius, J. eta Heinonen, J. (2016): «Carbon Footprint of Inbound Tourism to Iceland: A Consumption-Based Life-Cycle Assessment including Direct and Indirect Emissions», *Sustainability*, 8, 1147. <https://doi.org/10.3390/SU8111147>.
- UNWTO (2021): «Tourism unites behind the Glasgow Declaration on Climate Action at COP26». Hemendik berreskuratua: <https://www.unwto.org/news/tourism-unites-behind-the-glasgow-declaration-on-climate-action-at-cop26>
- Weitzel, M.; Saveyn, B. eta Vandyck, T. (2019). «Including bottom-up emission abatement technologies in a large-scale global economic model for policy assessments», *Energy Economics*, 83, 254-263. <https://doi.org/10.1016/J.ENERCO.2019.07.004>.
- WTTC (2024): «Economic Impact Research». <https://wttc.org/research/economic-impact>.

Bartolome Deyà Tortella eta Dolores Tirado Bennasar
Balear Uharteetako Unibertsitatea

Estres hidrikoa eta turismoaren sektorearen inpaktua

Gizateriak aurre egin behar dion ingurumen-arazo nagusietako bat estres hidrikoa da, hau da, ur gezaren giza eskaria eta eskari ekologikoa asetzeko gaitasunik eza, kantitateari, kalitateari eta irisgarritasunari dagokinez. *World Resources Institute* erakundeak 2023an zehaztu bezala, munduko biztanleriaren % 25 estres hidriko oso altuaren eraginpean dago urtero, eta, kalkuluen arabera, 2050ean beste bilioi bat pertsona batuko dira. Egoera hori hainbat fenomenoren elkarreraginaren ondorio da, hala nola klima-aldaketa, munduko biztanleriaren hazkunde esponentziala (1990 eta 2022 artean % 50eko hazkunde izan da Munduko Bankuaren arabera), norbanakoen kontsumo- eta portaera-ereduetan izandako aldaketak, eta ekoizpen-sektore jakin batzuetan, hala nola nekazaritza-sektorean, egiten den uraren erabilera intentsiboa.

Uraren kontsumoan intentsitate handienetakoa duen beste sektore bat turismoa da. Turismoaren sektoreak uraren mendekotasun handia du; izan ere, bisitarien oinarritzko beharrak asetzeko ez ezik, ura *per se* esperientzia turistikoaren parte den baliabide naturala da (ibaiak, aintzirak, padurak, etab.). Estimazio batzuen arabera, XXI. mende hasierako mailarekin alderatuta, 2050ean bikoiztu egingo da turismoaren sektorearen munduko ur-kontsumoa, sektore hori uraren kontsumitzaile handia baita, bai zuzenean, bai zeharka. Zuzeneko kontsumoari dagokionez, turistek tokiko hornidura-sareen bidez kontsumitzen dute ura turismo-establezimenduetan (elikagaiak, edariak, higiena, igerilekuak, spak, golf-zelaiak, garbiketa, etab.), eta, oro har, munduko ur-kontsumo publikoaren % 5 baino gehiago dela uste da. Horrez gain, turismoak uraren zeharkako eskaria ere eragiten du, turismo-horniduraren katea osatzen duten beste sektore ekonomiko batzuetako ondasunak eta zerbitzuak kontsumitzearen bidez (elikadura, energia, garraioa, etab.). Zenbatespen batzuen arabera,

turisten ur-kontsumoa herrialde garatueta bizi diren pertsonen kontsumoaren bikoitza edo hirukoitza da, eta garapen-bidean dauden herrialdeetan bizi diren pertsonena baino hamabost aldiz handiagoa.

Ildo horretan, gogorarazi behar da turismoa izan dela azken urteetan bizkorren hazi den sektoreetako bat; hain zuzen ere, nazioarteko turistaren etorrerak % 236,2 igo ziren 1999 eta 2019 artean, eta, hala, 1.466 milioi turista izan ziren 2019an. Aurreikuspenen arabera, 2030ean % 23 inguruko hazkunde izango da 2019ko mailekin alderatuta. Arazo nagusia da turista horietako asko ur-eskasi handia den eskualdeetan pilatzen direla, hala nola uharteetan eta kostaldeko eremuetan. Hala, kontzentrazio horrek eragin kaltegarriak izan ditzake kontinenteko eta kostaldeko uretan (gehiegizko ustiapena, gazitzea, uraren kutsadura eta ekosistema hidrikoen degradazioa). Era berean, lehia bizia eragin dezake erabilera desberdinen artean, eta gatazka sozialak sor ditzake, tokiko komunitateetan turismo-fobia sentimendua agertzea edo areagotzea, esate baterako.

Helmuga turistikoetan uraren kudeaketa eraginkorra egiteko beharra

Helmuga turistikoetako ur-baliabideen kudeaketa jasangarria funtsezkoa da helmuga turistiko horiek bideragarriak, lehiakorak eta jasangarriak izan daitezen. Horretarako, ezinbestekoa da datu zorrotz eta fidagarriak izatea, hau da, turismoaren sektoreak egiten duen ur-kontsumoari buruzko datu errealak izatea, ura kudeatzeko politika optimoak diseinatu ahal izateko. Ildo horretan, kontuan izan behar da, oro har, ez dagoela sektore turistikoari egotz dakioken ur-kontsumo osoa jakitea ahalbidetzen duen estatistika ofizialik. Hori dela eta, arloko ikerketa gehienak zenbatespenetan eta hurbilketa oinarrituta egiten dira. Izan ere, turismoaren sektorean erabiltzen den ura, normalean, hiriko/etxeko erabilerako ur gisa

kontabilizatzen da, eta ez dago estatistika bereizirik zuzenean sektore turistikoari egotz dakioken ur-kontsumoa identifikatzeko eta isolatzeko. Beraz, ahaleginak egin beharko lirateke norabide horretan.

Ildo horretan, García eta beste batzuek (2022) egindako ikerketa nabarmendu behar da; izan ere, ikerketa horretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko konfinamenduan Balear Uharteetan izan zen egoera baliatu zuten egileek turismoaren benetako ur-kontsumoa zenbatesteko. Hala, turismorik gabeko aldi horretan, batez beste % 24 jaitsi zen ur-kontsumoa Balearretan, eta, beraz, ondoriozta daiteke turismoak lau litro uretik litro bat kontsumitzen duela Balearretako artxipelagoan. Azken batean, esan dezakegu turismoa ur-eskatzailerik handia dela, eta, aldi berean, oso kaltebera dela baliabide horren eskuragarritasunean izaten diren murrizketekiko.

Hala, turismoaren sektoreak ura modu jasangarrian erabiltzea eta kontsumitzea funtsezkoa da helmugaren garapen sozioekonomiko egokirako. Beraz, ura aurreztearen inguruan kontzientziazatzea eta uraren erabilera eta kontsumoan ahalik eta efizientzia handiena bilatzea izan behar dira helmuga turistikoetako jardura-estrategia nagusiak. Urrun geratu dira, iraganean, eskaera gero eta handiagoari erantzute aldera, uraren eskaintza handitzera bideratutako politikak.

Dublineko Urari eta Ingurumenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren eta Rio de Janeiroko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren ondoren —biak ere 1992an egin ziren—, aldaketa garrantzitsua gertatu zen; hau da, ura baliabide kaltebera eta eskasa zela zehaztu zen, eta politika hidrikoetan beste bide bat sustatu zen, eskariaren aldera bideratua. Zehazki, zehaztu zen ura ondasun ekonomikotzat hartu behar dela eta, beraz, uraren prezioak urarekin lotutako kostu guztiak estali behar dituela, baliabidearen erabilera kontzienteagoa lortzeko, funtsezko faktorea baita haren jasangarritasuna bermatzeko.

Aipatutako bi konferentzia horietan ezarritako printzipioetan oinarrituta, 2000. urtean, Uraren Esparru Zuzentaraua onartu zuen Europar Batasunak, eta uraren politiketarako testuinguru berri bat ezarri zuen Europar Batasunean. Azken batean, eskariaren kudeaketa eraginkorragora eta baliabidearen

kontserbaziora bideratu da politika hidrologikoa, uraren prezioen sisteman aldaketak eginez, ura aurrezteko, birziklatzeko edo berrerabiltzeko programak sustatuz, eta pizgarriak ezarriz, ura erabiltzean eta aurreztean kontsumitzaileek efizientzia handiagoz jokatzeko.

Uraren prezioa

Uraren Esparru Zuzentarauak prezio-sistema bat ezartzea gomendatzen du, urarekin zerikusia duten kostu guztiak berreskuratu ahal izateko (finantza-kostuak, ingurumenekoak eta baliabidearenak barne). Uraren kontsumoaren efizientzia handitzera bideratutako beste proposamen bat ur-tarifen egiturak aldatzea izango litzateke. Tarifa linealetatik goranzko blokeetan oinarritutako tarifetara aldatzeko ideiak interes handia piztu du ur-enpresen eta araugileen artean, uraren kontserbazioa eta efizientzia sustatzeko eta etxeko ur-kontsumoan ekitatea ziurtatzeko bide gisa. Nolanahi ere, ikerketa gutxik aztertu dute politika horiek turismoarekin lotutako ur-eskarian duten eraginkortasuna, sektore horretan egiten den ur-kontsumoari buruzko datuak lortzeko zailtasunagatik, batez ere (lehen ere aipatu da).

Eskuragarri dauden ikerketa enpiriko urriek agerian utzi dute zaila dela prezioen mekanismoa erabiltzea turismo-ostatuetan ur-kontsumoa murrizteko. Zehazki, Deya eta beste batzuek (2019) egindako ikerketak erakusten duenez, Mallorcako hotelen kasu zehatza aztertuta, tarifa lineal batetik goranzko blokeetan oinarritutako tarifa batera aldatzea ez da batere eraginkorra. Egileek ondorioztatu zuten, eraginkortasun eza tarifen blokeen diseinu okerrak eragin zuen, neurri handi batean. Beraz, frogatu da, uraren prezio-politika eraginkorra ezartzeko, beharrezkoa dela eragin nahi den ur-eskariaren azterketa zorrotza egitea *ex ante*, tarifa-egitura optimoa diseinatze aldera.

Hotel-sektorean aplikatutako berrikuntzak eta ura aurrezteko neurriak

Turismoaren sektorean ura aurrezteko aplikatutako programen/neurrien eraginkortasunari dagokionez, funtsezkoa da turistek helmugan zer portaera duten aztertzea, bai eta turismo-enpresen portaera aztertzea ere, batez ere hoteletan, turismo-ostatu horretan kontsumitzen baita ur gehien eta ostatu-mota hori baita turisten gustukoena eta erabiliena.

Hotelek ura aurrezteko neurriak ezartzea tresna eraginkorra izan daiteke ura % 20 eta % 50 artean aurrezteko. Neurri horietako batzuk oinarritzkoak dira, eta ez dute ez konplexutasun tekniko handirik eskatzen, ez eta, oro har, inbertsio ekonomiko handirik. Besteak beste, hauek aipa daitezke: txorrotak eta/edo dutxa tradizionalak ura aurrezteko gailuekin ordezkatzeko, txorrotetan haizagailuak sartzea, zisternetan pultsazio bikoitza jartzea eta/edo betetze-sistema mugatuak ezartzea, etxetresna elektriko eraginkorragoak erabiltzea, bertako landareez osatutako lorategiak izatea, kanpoko eremuak zolatzea, ostatu-hartzaileak eta hoteleko langileak kontzientziazatzea eta motibatzea, eta oheko arropa eta toallak berrerabiltzeko programak ezartzea.

Bestalde, badira inbertsio ekonomiko handia eta ezagutza eta aholkularitza teknikoak eskatzen duten neurri aurreratuago batzuk ere, hala nola sareko ur-galerak kontrolatzea, hainbat departamendutan edo eremutan ura monitorizatzea eta kontabilizatzea, lorategietako ureztatze-sistemak optimizatzea, ur leheneratuak berrerabiltzea edota euri-ura biltzea eta erabiltzea.

Ebidentzia enpirikoak erakusten duenez, ia hotel guztiek aplikatzen dituzte oinarritzko aurrezpen-neurriak logeletan. Izan ere, hotel bateko uraren zuzeneko kontsumo handiena logelan egiten da, eta, beraz, bertan murriztu daiteke gehien uraren kontsumoa. Horrez gain, uraren prezio baxuaren ondorioz, inbertsio-kostu txikiak dituzten eta/edo amortizazio-aldi laburrak behar dituzten neurriak soilik dira errentagarriak hotelentzat.

Hainbat azterlanen arabera, hotel handiak, kategoria handikoak, hotel-kateen parte direnak eta ingurumen-kudeaketako sail bat dutenak dira proaktiboak, eta horiek aplikatzen dituzte neurri gehien ere. Hoteletan ura aurrezteko neurriak ezartzera bultzatzen duten motibazio nagusien artean, kostuak aurrezteko eta ingurumenarekiko kezka nabarmentzen dira. Bestalde, ura aurrezteko berrikuntza jakin batzuk ez aplikatzeko oztopo nagusia inbertsio-kostu handia da.

Azpimarratu behar da adostasun zabala dagoela komunitate zientifikoan hondakin-urak berrerabiltzeak dituen onurei buruz, bai eta baliabide hidriko ez-konbentzional horrek ekonomia zirkularrerako trantsizioa lortzeko eta helmuga turistiko askoren ezaugarri den estres hidrikoari aurre egiteko duen

funtsezko eginkizunari buruz ere. Zalantzarik gabe, administrazio publikoen zeregina funtsezkoa da gai honetan, hoteletan ur leheneratua ekoizteko eta erabiltzeko estrategia zirkularrak sustatzeko eta/edo txertatzeko, edota azpiegiturretan inbertsio publiko handiagoak egiteko, hoteletan hornidura publikotik lortutako ur leheneratua erabili ahal izan dezaten. Hau da, eskualdeko, nazioko eta/edo nazioarteko politika hidrologikoek ur leheneratuaren erabilera sustatu behar lukete, haren ezarpena bultzatzen duten araudien eta tresna ekonomikoen diseinu optimoaren bidez.

Jokabidean eragiteko esku-hartzeak, turistek ur-kontsumo jasangarria egin dezaten

Ebidentzia enpirikoak erakusten duenez, hotel-sektoreak ahalegin handia egin du azken urteotan bere azpiegiturak eta barne-prozesuak egokitzeko eta, horrela, ur-kontsumoa murrizteko, hotel barruan nahiz kanpoan aurrezteko neurriak aplikatuta. Nolanahi ere, bezeroen onarpen, konpromiso eta parte-hartzerik gabe, neurri horien eraginkortasuna mugatua edo hutsala izan daiteke. Horregatik, funtsezkoa da turisten kontzientziazioa eta parte-hartzea lortzeko neurriak garatzea eta bultzatzea.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da turisten ur-kontsumoan eragiteko hartu diren neurrien eraginkortasuna aztertzea. Tradizioz, geletan informazio- eta/edo disuasio-mezuak ezartzean zentratu dira neurri horiek. Mezu horien xedea zen turistak kontzientziazatzea, uraren kontsumoa murriztu zezan hainbat jokabide aldatuta, hala nola hortzak garbitzean txorrotak ixtea, komunontziak deskargatzeko botoi murriztua erabiltzea eta dutxan denbora gutxiago pasatzea. Beste batzuetan, mezu horien bidez uraren kontsumoa zeharka murriztea lortu nahi zen, toallak berrerabiltzeko kontzientziazatuz, adibidez. Bi kasu horiei dagokienez, eta nahiz eta munduko hotel gehienetan oso zabaldua egon, neurrien eraginkortasuna aztertzen duten ikerlan gutxi daude, eta egindakoek zalantzan jartzen dute eraginkortasun hori.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da uraren kontsumo jasangarria lortzeko aukera emango duten estrategia berriak garatzea eta inplementatzea. Eta hori lortzeko, ezinbestekoa da turistek zer kontsumo-ohitura dituzten hobeto jakitea. Horretarako, halabeharrez, turisten ur-kontsumoaren ereduak identifikatu eta

aztertu behar dira, baita eredu horien aldagai nagusiak zehaztu ere, hala nola, ezaugarri soziodemografikoak (adina, errenta-maila, ikasketak, etab.), bidaiaren ezaugarriak (arrazoi nagusia, egonaldiaren iraupena, etab.) eta hautatutako establezimenduaren tipologia (hotelak, opor-etxeak, kanpinak, etab.).

Bestalde, turistek uraren kontserbazioan jarrera proaktiboa izatea eragiten duten balio pertsonalak (biosferikoak, altruistak, hedonikoak eta berekoiak) ere erabakigarriak izan daitezke. Balio horiek lagungarriak izan daitezke turista batzuek ura kontserbatzeko portaerak zergatik dituzten ulertzeko, eta, horrekin batera, haien egonaldian uraren kontsumoa murriztera animatzeko estrategiak birpentsatu eta bideratzeko.

Azken batean, arestian azaldutako guztiak nabarmentzen du beharrezkoa dela turistek ur-kontsumoa zehazten eta bultzatzen duten faktoreak ulertzea, ur-ekaskia duten helmugetan jasangarritasun-estrategia eraginkorrak sustatzeko.

Sektore publikoaren funtzioa eta pizgarriak

Adierazitako guztia aintzat hartuta, behar-beharrezkoa da esparru egoki bat eta pizgarri ekonomiko eta fiskalen sistema bat ezartzea, turismoaren sektoreko *stakeholder* guztiek ura modu efizientean eta aurreztailean erabili ahal izateko. Eta horretarako, funtsezkoa da sektore publikoak elkarren osagarri diren bi norabidetan lan egitea. Alde batetik, ezinbestekoa da uraren prezioan hari lotutako kostu guztiak barne hartzea, Europako Esparru Zuzentarauak gomendatzen duen bezala. Garrantzitsua da uraren tarifikazio-eredu berriak garatzea, pertsona guztiei baliabidea bermatzeaz batera, kontsumo jasanezinak zigortuko dituenak. Zentzu horretan, goranzko blokeen tarifa-sistema ezartzea mekanismo eraginkorra izan daiteke helburu hori lortzeko. Beste aldetik, egia bada ere gehiegizko kontsumoa zigortzen duen prezio-sistemak enpresak ura aurrezteko mekanismoak ezartzera bultzatuko dituela, aurrez adierazitakoak erakusten digu mekanismo eraginkorrenek, normalean, hasierako inbertsio handia eskatzen dutela. Horregatik,

ezinbestekoa da zerga-politikako tresnak ezartzea, turismo-establezimenduen jabeek eta kudeatzaileek behar besteko pizgarriak emango dizkietenak, ura aurrezteko neurri garestienak, baina eraginkorrenak, ezartzeko.

Ondorioak

Turismoaren sektorea izaten ari den hazkunde esponentziala, eragiten dituen migrazio-mugimendu handiak, turistek kontsumo-ohituren aldaketak eta klima-aldaketaren ondorioak direla-eta, helmuga turistikoetako estres hidrikoaren egoerak gero eta ohikoagoak eta larriagoak dira. Horrek guztiak helmugaren lehiakortasunari eta egoiliarren bizikaltateari eragiten dio, baina, askotan, baita eskualdearen eta bertako biztanleen biziraupenari berari ere. Horregatik, berehala, modu integral batean eta era adostuan jardun behar da, bizi-baliabide horren jasangarritasuna bermatzeko. Egoeraren larritasuna dela-eta, jardun hori ezin da gehiago atzeratu, eta, gainera, ezinbestekoa da turismoaren sektoreko *stakeholder* guztiek esku hartzea. ■

Bibliografia

- Deyà-Tortella, B.; Garcia, C.; Nilsson, W. eta Tirado, D. (2017): «Analysis of Water Tariff Reform on Water Consumption in Different Housing Typologies in Calvià (Mallorca)», *Water*, 9(6), 425. <https://doi.org/10.3390/w9060425>
- Garcia, C.; Deyà-Tortella, B.; Lorenzo-Lacruz, J.; Morán-Tejeda, E.; Rodríguez-Lozano, P. eta Tirado, D. (2022): «Zero tourism due to COVID-19: An opportunity to assess water consumption associated to tourism», *Journal of Sustainable Tourism*. <https://doi.org/10.1080/09669582.2022.2079652>
- The World Resources Institute (2023): *State Climate Action 2023*. <https://www.wri.org/research/state-climate-action-2023>

Pedro Moncada Jiménez¹, Claudia Inés Martínez²,
Sonia Pacheco Castro³ eta Ana Pricila Sosa Ferreira⁴
Karibeko Unibertsitatea

Sarrera: Cancún, bankarien fantasia

Joan den mendeko 60ko hamarkadan, Mexikoko Bankua, besteak beste herrialdearen garapena helburu zuena, jabetu zen inolako sustapen nabarmenik gabe hazten ari zen sektore bat ageri zela bere estatistiketan: turismoa. Hori dela eta, sektore hori aztertzeko eskatu zioten Antonio Enríquez Savignac ekonomialari gazteari. Turismoaren egiturazko ezaugarri hauek funtsezkoak izan ziren haren hausnarketan: sektore intentsiboa da erraz gaitu daitekeen eskulanari dagokionez, edozein lekutan garatu daiteke, teknologia-maila baxua eskatzen du, ez da oso imitagarria, kontsumitzailea bera joaten da produktuaren lekura, eta inportatutako sargai gutxi behar ditu (Enríquez, 2006).

Ezaugarri horiek direla-eta, turismoa izan ohi da garapena sustatzeko kontuan hartzen den lehen aukeretako bat, ekonomia ahulenetan, batez ere. Martík (1991, 2017) *bankarien fantasiazat* hartu zuen ikuspegi hori Cancunen sorreraren historiari buruz eginiko lanetako batean. Logika horren baitan diseinatu ziren osotasunean planifikatutako eremuak (CIP) —Cancún lehenbizikoa—, hasiera batean enplegua sortzeko, eskualdearen garapena sustatzeko eta dibisak erakartzeko helburuekin (Enríquez, 2006; Martí, 1991). Eguzkia eta hondartza biltzen zituen turismoa aukeratu zen, jende ugari erakartzen zuelako eta munduko beste eskualde batzuetan hedatzen ari zelako. Zehazki, hauek ziren osotasunean planifikatutako eremuen oinarritzko elementuak edo ezaugarriak: eremu turistiko bat, haren euskarri izango

zen hiri bat eta nazioarteko aireportu bat, estatuaren ia erabateko finantzaketarekin. Ekimen hori Mexikoko eskualde despopulatuenetako batean garatzen hasi ziren, garai hartan Quintana Roo zeritzon lurraldean.

Eta 60 urte geroago...

Cancún proiektua azken bi mendeetan Mexiko eraldatu duten 20 proiektuetako bat da. Hurrengo lerroetan, turismoan izan dituen emaitzak berrikusiko ditugu, labur-labur.

Cancunetik eskualde turistiko batera

Joan den mendeko 70eko hamarkadan hasi zen Cancuneko turismo-garapena, eta 80ko hamarkadan hasi zen hazten. Horrek arraste-efektua eragin zuen, eta jarduera turistikoa oparotasun-dinamikaren ardatz bihurtu zen Quintana Roo eskualde osoan. Quintana Roo eskualdeko Turismo Garapenerako Idazkaritzaren (SEDETUR) 2024ko itxiera-datuen arabera, Mexikoko Karibera (Quintana Roo) 20.993.827 turista joan ziren, eta hauek izan ziren helmuga nagusiak: Riviera Maya (8.377.752), Cancún (7.467.678), Costa Mujeres (1.215.789) eta Cozumel (1.011.916).

Turisten jatorri nagusiak, berriz, honako hauek izan ziren: Mexiko, 7.467.766 (% 32,4); Estatu Batuak (AEB), 7.673.342 (% 35,6); eta Kanada, 2.048.836 (% 13,9). Aireportuetako bidaiarien mugimenduak 32.793.348 izan ziren: 30.411.520 Cancunen, 712.958 Cozumelen, 435.411 Chetumalen eta 1.233.459 Tulumen. Mexikoko Karibearen aireko konexioei dagokionez, 118 hiri hartzen ditu: 24 Mexikon; 38 AEBn eta 18 Kanadan; 19 Latinoamerikan (14 herrialdetan); eta 19 Europan (14 herrialdetan).

1. Quintana Rooko Ikerketa Aplikaturako Erakunde arteko Zentroaren (CIIA-QRoo) zuzendaria.
2. Turismo Jasangarria, Hotelak eta Gastronomia Saileko lanaldi osoko irakaslea.
3. Turismo Jasangarria, Hotelak eta Gastronomia Saileko lanaldi osoko irakaslea.
4. Turismo Jasangarria, Hotelak eta Gastronomia Saileko irakasgaiko irakaslea.

1. irudia. Mexikoko Karibearen konexioak



Iturria: SEDETUR, 2023.

Hoteletako urteko okupazioa % 80,1ekoa da Costa Mujeres eskualdean, % 76,1ekoa Cancunen eta % 76,2koa Riviera Mayan. Quintana Roo eremuko hotel-azpiegiturari dagokionez, 135.430 gela ditu (5 izarreko hoteletan % 71,8) eta 1.474 hotel. Zehazki, 7.167.497 bisitari eta tripulatzailer iritsi ziren Quintana Rooa itsas bidaietan: 2.568.579 Mahahualera eta 4.598.918 Cozumelera. Bertako mugimendubolumena eta azpiegitura turistikoak —herrialdeko handiena— direla-eta, estatua Mexiko Hiriaren pare kokatzen da, eta Karibeko herrialdeak ere gainditzen ditu, bere lehiakide naturaltzat hartzen direnak.

AEBko merkatura duen gertutasuna eta nazioarteko turismorako hasierako joera funtsezko faktoreak izan dira globalizazio-aldian turismoan izandako arrakastan. Nazioarteko turismoaren dinamikan, nazioarteko bidaia gehienak eskualdeen barrualdera

egiten dira, hau da, gertuko herrialdeen artean (TME, 2014:12); beraz, dinamika hori kontuan hartuta, pentsa daiteke kanpo-faktore hori aldekoa izan daitekeela globalizazioaren osteko aroan ere.

Markak eta sustapena

Cancunek turismoan oso zaila den zerbait lortu zuen: marka ezaguna izatea (Huescar, 2009). Gertaera garrantzitsu hori errepikatu egin zen Riviera Maya markaren sorrerarekin, planifikatutako prozesu baten emaitza izanik (Acuña, 2003, 2024), eta duela gutxi berriro gertatu da Maya Ka'an markarekin (ASK, 2014). Agertzen diren udalerri, uharte eta helmugak finkatuz eta lekua hartuz doazen heinean, Quintana Roo ko Turismo Sustapenerako Kontseiluak (CPTQROO) eta SEDETURek 15 marka turistiko kudeatzen dituzte Mexikoko Kariben (SEDETUR, 2023).

2. irudia. Quintana Roo eskualdeko marka turistikoak



Iturria: geuk egina, SEDETUR erakundearen datuetatik abiatuta (2023).

Marka turistikoen kudeaketa Estatuaren historian etengabeak izan diren funtsezko bi jarduera hauen eskutik egin da: turismoaren sustapena eta dibertsifikazioa. Turismoaren sustapenean inflexio-puntua izan zen 1988an, Gilberto urakanarekin eta premia-ko sustapenaren behararekin; hori dela-eta sortu ziren Cancunerako Bisitarien eta Konbentzioen Bulegoa eta udalerri bakoitzeko Turismoa Sustatzeko Fideikomisoak, bai eta horien finantzaketa-iturria ere: ostatatze-zerga. Ondorengo urteetan, Estatuko turismo-sustapen guztia Quintana Roo-ko Turismo Sustapenerako Kontseiluan bateratzea lortu zen.

Turismoaren dibertsifikazioa

Behin Cancuneko osotasunean planifikatutako eremua finkatuta, hura berritzeko erronka sortu zen, bai eta haren itzalean agertu ziren gainerako turismo-helmugetatik bereizteko eta dibertsifikatzeko erronka ere. Riviera Maya marka Cancunetik bereizteko sortu zen, eta Maya Ka'an marka, berriz, erkidegoko produktu turistikoak posizionatzeko, kultura-ondarearekiko eta jatorrizko komunitateekiko errespetu handiagoa izanez eta natura-ondarea zainduz.

Gainerako helmugetan, hazkundea haien ezaugarri espezifikoaren eta, batez ere, merkatuaren joeren ondorio izan da. Hala, Cozumel eta Mahahual itsas bidaien helmuga gisa finkatu dira. Bestalde, ekoturismoa, abentura-turismoa, landa-turismoa eta turismo komunitarioa, arkeologikoa, osasun-turismoa, MICE (bilkura, pizgarri, hitzaldi eta erakusketekin loturikoa), *wellness* turismoa, eta ezkontzei dagokiena eskaintza alternatiboak dira, bai bisitari ugari-ko helmugetan, bai eskala txiki-koetan, kostaldean zein barnealdean. Turismoaren hedapena estatuaren hegoalderaino iritsi da Bacalar herriarekin, iparraldera Holbox uhartearekin, eta barnealdera Coba aztarnategiarekin eta maien eremuarekin. Hala, turismoaren merkatua etenik gabeko hazkunde-, berrikuntza- eta dibertsifikazio-dinamikan dago; gainera, etorkizunean ere joera horri eutsiko zaiola aurreikusten da.

Jatorriz nazioarteko turismorako helmugatzat pentsatu bazen ere, 2001eko irailaren 11z geroztik nazioarteko turismoak izandako beherakadaren ondotik, Cancún eta, hedapenez, Quintana Roo turismo nazionalaren garrantziaz jabetu ziren. Segmentu horrek datu historikoa lortu zuen 2023an, merkatu nagusi bihurtu baitzen % 37,4rekin, eta, lehenbiziko aldiz, bigarren lekura bultzatu zuen AEBtik etorritako turismoa

(SEDETUR, 2023). Hoteletan 135.430 logela izanik (SEDETUR, 2024), estatua aurreikusitako gehieneko hazkunde-mugaren % 40ra iritsi da: 338.316 logela (Moncada, 2011).

Emitzen balorazioa

Jatorrizko hiru helburuak betetzeari dagokionez, dibisak sortzeko helburua betetzen da oraindik. Mexikoko Kariberen derrama ekonomikoa (2023an, 20.500 milioi USD) turismoa dela-eta herrialdera sartutako dibisen % 63 izan zen; hala, ekarpen garrantzitsua egin zuen herrialdearen ordainketen balantza orekatzeko, 2023an 5.476 milioi USDko saldoa izan baitzen.

Beste bi helburuei dagokienez —enplegua sortzea eta eskualdearen garapena sustatzea—, balorazioa egitea konplexuagoa da; izan ere, inbertsio-eredu bat gailentzen da, eskualdean ez dago produkzio-katerik eta *lan duina* lortzeko bidean ez da aurrerapenik egin, GJHetan planteatu arren (Nazio Batuek, 2015). Lehen enplegua eskatzen zen, eta, orain, berriz, kalitatezko enplegua.

Bi helburu horien balorazioa egiteko, aintzat hartu behar da garapen jasangarria kontzeptuaren definizio hau eman baino gutxienez 17 urte lehenago formulatu zirela helburu horiek: «egungo beharrak asetzen dituen garapena, betiere etorkizuneko belaunaldi-berenen beharrak asetzeko aukera arriskuan jarri gabe» (Brundtland eta beste batzuk, 1987:54). Era berean, kontuan hartu behar da txostenean funtsezko bi kontzeptu hauek nola zehazten diren: a) «beharrak», bereziki munduko pertsona pobreen oinarritzko beharrak, horiei eman behar baitzaie lehentasuna; b) teknologiak eta gizarte-antolamenduak ingurumenaren ahalmenari dagokionean ezartzen dituzten mugak, egungo eta etorkizuneko beharrak asetu ahal izateko (Brundtland eta beste batzuk, 1987:54).

Enplegua

Garapen iraunkor edo jasangarriaren kontzeptua zehaztu aurretik eta ondoren, enpleguaren helburuak baliagarria izaten jarraitzen du oinarritzko beharrak asetzeko. Agian, errazena da enpleguaren helburuaren betetze-mailaren balorazioa egitea: azken 50 urteetan, Cancún eta, ondoren, Quintana Roo osoa AEBra migratzearen alternatiba izan dira Mexiko

hegoaldeko pertsona pobreentzat, bai eta mugaz bestaldeko beste pertsona batzuentzat ere, beren sorlekuak ematen ez dizkien bizibideen bila. Hala berresten dute datuek ere: 520.551 enplegu formal (4 biztanletik 1, gutxi gorabehera), gehi enplegu informalak, eta bigarren langabezia-tasarik txikiena. Bere egiturazko ezaugarriak direla-eta turismoarekin loturiko enpleguan sartzea aukera nagusietako bat izateagatik nabarmentzen ez bada ere, behar handiagoa eta desberdinkeria dauden herrialdeetan, Mexikon kasu, batez besteko nazionalaren gainetik dago aukera hori. Hori guztia, gainera, jakinik turismoan —bai Mexikon bai mundu osoan— soldatak eta lan-baldintzak eskas eta bidegabetzat nabarmendu izan direla (Cañada, 2021).

Hala izan zen hainbat hamarkadatan, pandemia iritsi zen arte. Normaltasun berria sartzeaz batera, aldaketak izan ziren lan-merkatuan. Lan-indarraren exodoa, osasun-larrialdiaren eragin zuzena, «uko-egite handia», lan-kultura berria, hego-ekialdeko azpiegitura-lan handiak... Faktore horien guztien konbinazioak eragina izan zuen Cancungo eta Riviera Mayako lan-merkatuan, eta historian inoiz izan gabeko eskasia izan zen lan-eskuan. Duela 60 urte, lanpostuak behar ziren, besterik gabe. Orain, ordea, kalitatezko lanpostuak eskatzen dira. Hau izango ote da turismoan eta, gero, gainerako sektoreetan ekarpen hori egiteko aukera?

Eskualdearen garapenetik garapen jasangarrira

Nekezagoa da hirugarren helburuaren balorazioa egitea, batez ere garapenaren kontzeptuan izan den aldaketa historikoagatik; izan ere, egungo adierak hazkundera eta garapena ez nahastera garamatza. Hasiera batean, eskualdearen garapenaren xedea zen ia inor bizi ez zen lurralde bat baliatzea, herrialdeko azken txokoa, Yucatán penintsulako krisia arintzeko, plastikoen etorrerak henequenera-industrian eragindako gainbehera zela-eta.

Produkzio bakarreko eredu

Turismoan oinarritutako produkzio bakarreko eredu arrakastatsuak badu bere kontrako aldea —eta, batzuetan, azalpena—, dibertsifikazio ekonomikoaren porrota, hain zuzen ere. Bada «garapenaren arkeologia» bat, ondo atera ez diren ekonomia-dibertsifikazioko proiektu handiak dokumentatzen

dituena (Villanueva, Moncada eta beste batzuk, 2021). Sargaien zati handi bat kanpotik dator, tokiko ekoizpena ez baita nahikoa turismoaren sektoreak dakarren eskari askotariko eta ugariari erantzuteko. Hala adierazten dute La Salle Unibertsitateak (ULSA) 2003, 2004, 2012 eta 2015 urteetan sargaien inguruan egindako azterlanek; azterlan horien arabera, sargaien % 38,19 kanpotik datoz. Horrela, lehen sektoreak garapenerako duen potentzialak ezkutuan jarraitzen du, inportazioen ordezkapen gisa. Nolanahi ere, kalitatean, bolumenean, prezioan eta merkatu-baldintzetan diren eskakizunak betetzea ez da erraza enpresa txiki eta ertainentzat (ETEak) eta tokiko ekintzaileentzat, ez eta behar bezala garatu ez den lehen sektorearentzat eta ia existitzen ez den bigarren sektorearentzat ere. Azken aldian, Turismo Jasangarrirako Kontseilu Globalaren irizpideen arabera kontsumo arduratsurako bultzatutako joerek —tokiko ekoizpenak kontsumitzea, efizienteki erostea eta ingurumenerako hobea dena erostea— aukera-leiho bat ireki diete tokiko ekoizleei etorkizunera begira.

Populazioaren eta gizartearen osaera

Inguruan hiririk izan gabe helmuga turistiko bat eraikitzen hastean, migrazio-prozesu berezi bat gertatu zen. Lehenbizi, eraikuntza-proiektuetan lan egitera iritsi ziren pertsonak, eta, gero, turismo-zerbitzuetan lan egiten geratu ziren. Hasiera batean, Yucatán penintsulatik etorritako migrazioa zen gehienbat, baina, ikerketek erakusten dutenez, gerora hego-ekialde osotik migratu zuten; horrez gain, migratzaileen fluxu txikiagoak izan ziren herrialdearen erdialdeko eta iparraldeko eremuetatik, bai eta atzeritik ere. Hala, gaur egun, biztanleen % 53 estatutik kanpo sortuak dira (INEGI, 2020). Prozesu horren ondorioz, biztanleria-piramideak profil berezia du, adinekoen eta adingabeen populazioa urria baita; horrez gain, kultura-aniztasuna da nagusi, mundu-mailako eta «Mexiko sakona» deritzoneko jendea eta bertako jatorrizko herriak bat eginda.

Lurraldearen erabilera

Turismoaren arrakastak eta migrazioak, kontrako aldeetatik bada ere, lurraldearen erabilera intentsiboa behartu zuten kostaldeko eremuetan, bai erabilera turistikorako, bai bizitegi-erabilerarako; hala, hiri eta helmuga berriak sustatu ziren, ezaugarri berarekin: hirigintza-erregulazio urria edo falta. Hori dela-eta, muturreraino tenkatu dira eremu turistikoetako zerbitzu

urriak zein urbanizazio irregularretako zerbitzu hutsalak, eta horrek kaltea eragin du ekosistemetan.

Lurraldearen erabilerak kalte egin dio itsasoa, arrezifea, hondartza, kostaldea, manglarra, lurpeko ibaiak eta haitzuloak lotzen dituen makroekosistema konplexuari. Gainera, ur beltzen erabilera okerra egiten da, ekosistema kritikoei kalte eginez, eta hiri-hondakin solidoak ere modu desegokian erabiltzen dira; bestalde, antolamenduarekin eta plangintzarekin loturiko erabakiak *a posteriori* hartzen dira ia beti, ekosistemetan kalte larriak eragin ondoren. Cancún izan zen, hiriaren hazkundera hasi aurretik, urbanizazio-lanak egin eta oinarritzko zerbitzuak ezarri zituen lehen hiria eta helmuga. Dena den, abantaila hori berehala galdu zen, eta zerbitzuak etengabe egon dira mugan-mugan. Gainerako helmuga eta hirietan, urbanizazioa-lanak eta zerbitzuak atzetik joan dira.

Erronka gehiago

Klima-aldaketaren erronkak neurri urgenteak hartzera premiatzen du. Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Taldearen azken txostenen arabera, denbora gutxi dago. Turismoak berotegi-efektuko gasen emisio globalen % 8 sortzen du (Lenzen eta beste batzuk, 2018), eta hobekuntzarako esparru garrantzitsua du garraioan, emisio horien $\frac{3}{4}$ eragiten baititu.

Garraiobide guztien artean, hegazkinek dute efizientzia txikiena ingurumenaren aldetik, nahiz eta ibilbide luzeko eta nazioarteko bidaietan nekez ordezka daitezkeen (Quintana Rooa iristeko konexio-bide nagusia da). Egoera hori aldatzeko, ezinbestekoa da eko-erregaien edo bestelako hegazkinen erabileran garapen teknologiko nabarmenak egitea, baina estandar industrial hori urrun ikusten da oraindik. Ondorioz, aukerarik egingarriena nazio barruko bidaietan karbono-aztarna murriztea da.

Hainbat ikerketak egiaztatu dutenez, bi ordu eta erdi baino gutxiagoko ibilbideetan, trena efizienteagoa da ingurumenaren aldetik hegazkina baino. Europako Ingurumen Agentziaren datuen arabera, trenez bidaiatzen duen pertsonak 20 aldiz CO₂ gutxiago isurtzen du hegazkinaz bidaiatzen duenak baino, 7 aldiz CO₂ gutxiago autoz bidaiatzen duenak baino, eta ia 5 aldiz CO₂ gutxiago autobusa erabiltzen duenak baino.

Tren maia martxan jarri eta hego-ekialdean garraio-aukera hori berreskuratzeaz batera, lehiarako abantaila lortu da. Konektibitatea hobetzea beti da funtsezko faktorea turismoaren garapenerako. Riviera Maya

hedapen-fasean sartu zen Cancún – Playa del Carmen – Tulum errepidea zabaltzearen ondorioz; bada, tren maia gakoa izan daiteke estatuko eta Yucatán penintsula osoko helmuga turistikoaren garapenerako. Gainera, trena da bere eraikuntza-lanen inpaktua konpentsatzen duen eta ingurumen-zerbitzuak ematen dituen garraiobide bakarra; izan ere, aukera ematen du garraiobide kutsagarriagoetan, hala nola hegazkinean, autobusean eta autoan, egiten diren egungo eta etorkizuneko bidaien ordeztasun gutxiagoko bidaiak egiteko. Horrez gain, badu beste abantaila bat, zerbitzu duala izatea, salgaiak garraiatzeko aukera ere ematen baitu, gauez, batez ere.

Nolanahi ere, trenbide-sareak osagarri bat behar du tokiko garraioan, hala nola tranbiak eta zero emisio edo emisio baxuko autobus-lineak lotuko dituzten geltoki intermodalak, lurraldeko edozein puntutarako mugikortasuna bermatzeko. Horregatik, atzeraezina da garraio masiboko eta emisio txikiko sare intermodal bat eguneratzea, modernizatzea eta garatzea, tranbia eta autobus elektrikoekin eta «cablebus» garraio-sistemearekin batera. Hala, barne-turismoak gora egingo duela eta kostaldetik peninsularen barnealderako fluxuak izango direla aurreikusirik, datozen garaietarako garraio egokia izango da, turistentzat zein bertako biztanleentzat. Garraioaren paradigmaren aldaketa hori beroketa globalari aurre egiteko premiazko egokitzapen- eta arintze-estrategiatzat aplikatu behar da; horrela, Quintana Roo helmuga turistiko eta karbono-aztarna gutxiko estatu izan dadin lagunduko du.

Merkatuko eskaria (turisten nahiz tour-operadoreen bidez) eta epe luzerako ereduaren beharra gorabehera, ez da asko aurreratu energia bitarteko alternatiboen bidez sortzeari dagokionez (turismoaren ekosistema industrialaren parte izanik). Gero eta inbertsio handiagoak egiten dira lehengo sistemak iturri deskarbonizatuko sistema energetiko bihurtzeko eta ekipamendu zaharrak ekipamendu efizienteagoekin ordezkatzeko, baina emaitzak oraindik ez dira nahikoak. Adierazi behar da turismo jasangarriaren eskualdeko ziurtagiri nagusiak (EarthCheck) 50 establezimendu baino ez dituela ziurtatuta, ehuneko oso txikia inbentarioan sartutako 1.474 hotelak kontuan hartuz gero.

90eko hamarkadaz geroztik, merkatuak berak gidatu du sektorearen hazkundera, ez plangintzaren ondoriozko erabakiek. Dinamika horrek bere mugak ditu, ez soilik behar bestekoa ez den hiri-azpiegituran, baita konexio-azpiegitura handietan ere. Horregatik,

Estatuak paper aktiboagoa izan behar du erabaki-hartzeetan. 90eko hamarkadaren amaierako Cancún - Tulum errepidea funtsezko faktoreetako bat izan zen Riviera Maya sortzeko, bai eta Playa del Carmen, Puerto aventuras, Akumal eta Tulum garatzeko ere. Duela gutxi, inbertsio publiko federalak luzaroan planteatutako proiektuak zehaztu ditu, hauek, zehazki: tren maia, Tulumeko aireportua, Nichupte zubia, Cancungo aireportuko bide-hirustaren handitzea, aireportuaren handitzea eta Chetumalgo zubiak. Hau da, dena ez du merkatuak erabakitzen: Estatuak zeregin garrantzitsua du.

Garapen-eredua


Cancún hirian eta Quintana Roo eskualdean, turismoa da ekonomiaren ardatza, produkzio bakarrean oinarritutako ardatza. Hasierako inbertsio publikoari esker (Cancún), sektorea abian jarri zen. Hala ere, 90eko hamarkadaren amaieraz geroztik, helmugek bestelako bultzadak jaso dituzte; batzuk ekimen pribatuek bultzatu dituzte (Riviera Maya – Playacar, Costa Mujeres – Playa Mujeres), eta beste batzuk, berriz, hedapen-dinamikaren ondorio izan dira (Isla

Mujeres, Cozumel, Holbox, Puerto Morelos, Tulum, Mahahual, Bacalar), merkatuko eskaerari erantzunez, batez ere.

Erakargarritasun hirukoitzeko motorra aktibatzean (Moncada eta beste batzuk, 2021), inbertsioa eta migrazioa eragin zituen, baina zerga-banaketaren egitura atzeratuta zegoen populazio-hazkundearen abiadurarekin alderatuta. Hori dela eta, inbertsio publikoaren falta izan da, hiri-azpiegituran eta, batez ere, eremu ez-turistikoetan, bai eta ekosistemen eta horien karga-ahalmenaren gaineko presioa ere, eredu ez-jasangarri baten eraginpean, produktu turistikoaren erakargarritasun nagusia arriskuan jarrita (natura: Karibe itsasoa, hondartza, oihana, zenoteak). Garapen ereduaren ezaugarri eta ondorio horiek grafikoki irudikatu dira (Moncada eta beste batzuk, 2021, Pech-en datuetatik abiatuta). Hala, gaur egungo erronka nagusia garapen-ereduaren dinamika aldatzea da.

Ingurune horretako beste arazo bat segurtasunik eza da, juridikoa (jabetzarena) nahiz segurtasun publikoari dagokiona, eta Mexikoko Karibe *arrakastatsuko* panorama konplexu bihurtzen du, Cancún proiektua hasi eta 55 urtera.

3. irudia. Erakargarritasun turistiko hirukoitza eta garapen-eredua



Iturria: Moncada, Martinez eta Huitzil (2021), Pechen datuetatik abiatuta (2003).

Eredua unean-unean eraldatzeko ekimenak askotarikoak dira, eta hainbat mailatan eta interes-talde desberdinek bultzatzen dituzte. Turismoaren dinamika hori garapen jasangarrira bideratzeko, 2020ko abenduaren 10ean *Quintana Roo eremurako 2030 Turismo Jasangarriaren Plan Nagusia*

argitaratu zen. Dokumentu horretan, 2030 Agendako konpromisoei heltzen zaie berrir, eta haren ikuspegia zeharkako bihurtzen du. Horrenbestez, aurrekari bat da aipatutako urtea baino geroagoko muga-epeak dituzten plangintza-jardueretarako.

Ondorioa

Cancún proiektua Quintana Roo eremu osora hedatzen da, eta turismoa hartzen du garapen jasangarriarako tresnatzat; hala, proiektu horren erronka da hainbat eremutan helburu hauek lortzea:

1. Oreka lortzea landa-eremuaren eta hiri-eremuaren artean.
2. Oreka lortzea iparraldearen eta hegoaldearen artean.
3. Oreka lortzea itsasaldearen eta barnealdearen artean.
4. Oreka lortzea turismoaren sektorearen eta beste sektore batzuen artean.
5. Pobrezia eta desberdinkeria gainditzea.
6. Karbono gutxiko turismoa lortzea.
7. Ura eta hiri-garapena behar bezala kudeatzea.
8. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzea.
9. Jabetzari dagokionez segurtasun juridiko handiagoa lortzea.
10. Segurtasun publikoa hobetzea.

Bibliografia

- Acuña Braun, S. (2002ko azaroaren 20a): *La creación de las marcas turísticas del Caribe Mexicano y la Riviera Maya* [Hitzaldia], La Salle Cancún Unibertsitatea, Cancún, Quintana Roo, Mexiko.
- Acuña Braun, S. (2024ko uztailaren 10a): *Riviera Maya, la creación de una marca turística* [Hitzaldia], Karibeko Unibertsitatea, Cancún, Quintana Roo, Mexiko.
- Amigos de Sian Ka'an A.C. (ASK) (2014ko urria): *Manual de sistematización del Proyecto Maya Ka'an*, Mexiko.
- Brundtland, G. H. eta beste batzuk (1987): *Report of the World Commission on Environment and Development: Our Common Future* (Ebazpena: A/43/427, 1987ko abuztuaren 4a), Nazio Batuen Erakundea.
- Cañada, E. (2021eko urtarrilaren 4a): *Trabajo turístico: nuevos riesgos de precarización pospandemia*, Alba Sud, Investigación y Comunicación para el Desarrollo. <http://www.albasud.org/noticia/1287/trabajo-turistico-nuevos-riesgos-de-precarizacion-pospandemia>
- Enríquez Savignac, A. (2006ko urria): *Cancún, turismo ayer y hoy* [Hitzaldia], Karibeko Unibertsitatea, Cancún, Mexiko.
- Huescar, A. (2009ko irailaren 11): *Reunión con Cuerpo Académico de Turismo y Sustentabilidad (CATS)* [Elkarrizketa, P. Moncada Jiménezek egina],
- Turismo Ikerketen Institutua (IIT) (2003, 2004, 2012 eta 2015): *Análisis de la estructura de la oferta de insumos y productos para el sector turístico en el Caribe Mexicano*, Cancuneko La Salle Unibertsitatea.
- Estatistika eta Geografia Institutu Nazionala (INEGI) (2020): *Censo de población y vivienda 2020*. <https://www.inegi.org.mx/programas/ccpv/2020/>
- Lenzen, M.; Sun, Y. Y.; Faturay, F.; Ting, Y. P.; Geschke, A. eta Malik, A. (2018): «The carbon footprint of global tourism», *Nature Climate Change*, 8(6), 522–528. <https://doi.org/10.1038/s41558-018-0141-x>
- Martí Brito, F. (1991): *Cancún fantasía de banqueros: La construcción de una ciudad turística a partir de cero*, Litho Offset Andina tailerrak.
- Martí Brito, F. (2017): *Cancún fantasía de banqueros II*.
- Moncada Jiménez, P. (2011): *Turismo, población y territorio en Quintana Roo: Relación y proyecciones*, Porrúa argitaletxea.
- Moncada Jiménez, P.; García Martínez, F. eta Uitzil Pool, L. G. (2021): 4. kapitulu: «El desarrollo de Cancún explicado a través del modelo de la triple atraktividad turística», *El desarrollo turístico en México: Revisión general y casos de estudio* (129.-169. or.). Guadalajarako Unibertsitatea (UdG), AMIT, RIIT.
- Nazio Batuek (2015): *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible* (A/RES/70/1). <https://sdgs.un.org/2030agenda>
- Turismoaren Mundu Erakundea (OMT-UNWTO) (2014): *Panorama OMT del turismo internacional, edición 2014*. Madril.
- Quintana Roo-ko Turismo Idazkaritza (SEDETUR) (2023): *¿Cómo vamos? 2023ko abendua*.
- Quintana Roo-ko Turismo Idazkaritza (SEDETUR) (2024): *¿Cómo vamos? 2024ko abendua*.
- Karibeko Unibertsitatea (2010, 2015, 2020): *Entre el mar y la historia... Línea del tiempo de Cancún*. <https://unicaribe.mx/historia>
- Villanueva Arcos, E. (2020ko abenduaren 20a): *Arqueología del desarrollo* [Elkarrizketa, P. Moncadak egina].

José Francisco Baños Pino, Emma Zapico Fernández eta Ines Sustacha Melijosa
Oviedoko Unibertsitatea

Sarrera

Turismoaren ikuspegi tradizionalak masa-turismoan oinarritu dira batez ere, eta eguzkiarekin eta hondartzarekin loturiko segmentua da haien paradigma adierazgarriena; bada, ikuspegi horiek bisitarien bolumena maximizatzeari eta epe laburreko diru-sarrerei ematen diote lehentasuna, inpaktu kaltegarriak, jasangarritasun-printzipioekin lerrokatu gabeak, sortzearen bizkar. Eredu horiek gehiegi ustiatzen dituzte baliabide naturalak eta kulturalak, helmugako eremuen karga-gaitasuna aintzat hartu gabe eta bertakoak baztertuz erabakiak hartzeko prozesuetatik. Horren ondorioz, kontrolik gabeko hazkunde gertatzen da, eta horrek ingurumenaren degradazioa, hondakinen sorrera, saturazio turistikoa eta tokiko biztanleen bizi-kalitatearen narriadura ekarri ohi ditu (Tokarchuk eta beste batzuk, 2021). Artikulu honetan, jarduera turistikotik eratorritako bi kanpo-ondorio kaltegarri jarri zaie arreta: hondakinen sorrerari eta saturazio-egoerari (*overtourism* ere esaten zaio).

Turismo adimenduna arazo horri erantzuteko sortu zen, hain zuzen ere; hala, estrategia jasangarriagoa eta orekatuagoa proposatu zuen, helmugaren lehiakortasuna areagotzearekin bateragarria. Helmuga turistikoko adimendunen ikuspegitik, teknologia eta berrikuntza tresna gisa hartzen dira turismoaren fluxuak kudeatzeko, efizientzia handitzeko (Baños-Pino eta beste batzuk, 2025) eta parte-hartzezko gobernantza-eredua sustatzeko, erabakiak hartzean egoiliarak kontuan hartzen dituen, bisitariaren esperientzia ere hobetuta (Sustacha eta beste batzuk, 2023). Tresna horiei esker, inpaktu kaltegarriak aurreikusteaz eta arintzeaz gain, datuetan oinarritutako turismo-plangintza sustatzen da, garapen ekonomikoaren, ingurumen-babesaren eta gizarte-ongizatearen arteko orekari lehentasuna emango diona.

Hondakinen sorrera eta *overtourism*

XX. mendearen zati handi batean, turismoa «tximiniarik gabeko industriadura» hartu zen, uste baitzen jarduera horrek ez zuela inpaktu kutsatzailerik eta haren garapen-ingurunean eragin kaltegarri gutxi batzuk baino ez zituela eragiten; baina uste okerra zen. Dena den, joan den mendeko 70eko hamarkadan, garapen jasangarriaren kontzeptua sortu zen, eta 1987an Brundtland Txostena, *Our Common Future*, argitaratu ondoren, ezagun egin zen. Hain zuzen ere, 1980ko hamarkadan jabetu zen jendea turismoaren hedapen handiak, inpaktu sozioekonomiko onak sortzen bazituen ere —hala nola enpleguaren sorrera—, kanpo-efektu oso kaltegarriak ere bazituela. Azken horien artean, hauek aipa daitezke, besteak beste: hondakinen ekoizpena, espazioen saturazio-egoera, airearen eta uraren kutsadura, ekosistema naturalen degradazioa eta zarata (Brunt & Courtney, 1999; Zhang eta beste batzuk, 2020).

Turismoaren industrian, zentralitatea izan beharko luke ingurumen-narriadurarekiko, natura-baliabideen agortzearekiko eta ingurunearen saturazioarekiko ardurak, elementu horiek funtsezkoak baitira turismo-eskaintzarako. Izan ere, turismo-jarduerak lotura estua dute jarduera horiek garatzen diren espazioekin, bertako baliabide fisikoak, kulturalak eta naturalak aprobetxatu behar izaten baitituzte (mendiak, ibaiak, aintzirak, hondartzak, etab.). Horrenbestez, turismo-politiketan jasangarritasun-printzipioak txertatzea ezinbesteko baldintza bihurtu da, ez soilik etikaren eta ingurumenarekiko arduraren ikuspegitik; horrez gain, jasangarritasuna bere horretan funtsezko faktorea da turismo-helmuga baten lehiakortasunerako. Zeregin horrek erronka handiak dakarzikie politika publikoen arduradunei, eta, zalantzarik gabe, behar-beharrezkoa du administrazio publikoaren eta gizarte osoaren inplikazio aktiboa.

Turismoa bereziki jarduera intentsiboa da hondakinen sorrerari dagokionez; hori da, hain zuzen ere, jarduera

horren ingurumen-inpakturik esanguratsuenetako bat (Bohdanowicz, 2006; Greco eta beste batzuk, 2018), urteko 35 milioi tona hondakin solido baino gehiago eragiten baitu munduan (Juvan eta beste batzuk, 2023). Helmuga masifikatuenetan, biztanleria egoiliarra bi eta hamar aldiz handiagoa izan daiteke goi-denboraldian; bada, helmuga horietako kudeatzaileek erronka konplexuenei aurre egin behar diete, hondakinak murrizteko eta hondakin horien kudeaketa optimizatzeko neurri zehatzak ezartzeko (González Martín, 2019).

Nabarmendu behar da kudeaketa-gaitasunak gainezka egin dezakeela helmuga horietan turisten joan-etorri handieneko aldietan, eta horrek hainbat ondorio eragiten ditu, hala nola tokiko saneamendu-azpiegituren gainkarga, zabortegien saturazioa eta zabor-pilaketa espazio publikoetan, hondartzetan eta mendietan. Gainera, leku entzutetsuenetan zaborra pilatzeak helmugaren irudia kaltetu eta erakargarritasuna galarazi ditzake, eta horrek bisitariaren esperientzian eragin dezake. Bestalde, ezin da ahaztu turistek sortutako hondakinek zuzeneko ingurumen-inpaktuak izan ditzaketela tokiko floran eta faunan, bertako landaredia aldatu eta lurzorua eta urak kutsatzeraino (Torregrosa eta beste batzuk, 2022).

Zalantzarik gabe, azken hamarkadetan izan den turismo-fluxuen gorakadak hornidura publikoko ondasunen eta zerbitzuen eskari handiagoa eragin du, hala nola lurralde-plangintza eta tokiko azpiegituren kudeaketa, turismo-ekipamenduen garapena eta helmugaren sustapena. Elementu horiek funtsezkoak dira espazio turistikoaren lehiakortasuna bermatzeko, eta, beraz, ikuspegi ekonomikoaren arabera ebaluazioa behar dute (Durán-Román eta beste batzuk, 2021). Zentzu horretan, Baños-Pino, Zapico eta beste batzuek (2024) berriki egindako lan batean, 2000-2019 aldian Espainian kokatutako 41 eremu turistikoko hondakin turistikoaren prezio soziala kalkulatu da. Horri esker, eremu turistiko bakoitzerako ekotasa posible bat kalkula daiteke, eta, horrela, informazio baliotsua eman dakieke erabakiak hartzen dituztenei, garapen jasangarriko estrategien diseinuan oinarritutako politika turistikoak formulatu ditzaten.

Tasa turistikoek hondakinen sorreraren ondorio kaltegarriak internalizatzeko erabili ahal izateaz gain, beste mekanismo batzuk baliatu daitezke horiek

arintzeko, hala nola turistei heziketa eta sentsibilizazio egokia ematea zabor gehiegi sortzeak eta hura espazio publiko eta naturaletan uzteak dituzten ondorio arbuigarriei buruz. Halaber, komeniko litzake hainbat eragile inplikatzeko, hala nola operadore turistikoak eta hotel-establezimenduak, berebiziko garrantzia izan baitezakete kontzientziatzeko eta bidaiariengan portaera arduratsuak sustatzeko.

Artikulu honetan aipatzen den beste kanpo-eragin kaltegarri bat saturazio turistikoa da, hau da, bisitarien gehiegizko hazkundera, helmuga baten masifikazioa eragiten duena eta nahi ez diren ondorioak sortzen dituena: zerbitzu publikoak eskuratzeko zailtasuna, aglomerazioak, gentrifikazioa, etxebizitzaren prezioaren igoera, delinkuentziaren igoera eta benetakotasun kulturalaren galera. Ondorio horiek, gainera, egoiliarrei nahiz turistei eragin diezaiekete (Milano eta beste batzuk, 2019). Azken urteotan, digitalizazioak bultzatuta plataformen ekonomian izan den gorakadak (Airbnb gisako zerbitzuekin) turismoaren industria eraldatu du. Hasiera batean sektorearen jasangarritasuna bultzatuko zuela espero bazen ere, praktikak erakutsi du lehendik zeuden arazoak areagotu dituela, hala nola saturazio turistikoa (Torregrosa eta beste batzuk, 2022).

Presio turistiko handiak estresa eta deserosotasuna sortzen baditu ere, adierazi behar da, zenbait egoeratan, turistek positiboki hauteman dezaketela, turismo-motaren eta testuinguruaren arabera. Hiri-ingurune espezifikoetan, hala nola kirol-ekitaldietan edo musika-jaialdietan, pertsonen kontzentrazioa erakargarria izan daiteke bertaratzen direnentzat, hain zuzen ere elkarreragin soziala eta dibertsioa baitira haien xedea (Kim eta beste batzuk, 2016; Santana-Jiménez & Hernández, 2011). Aldiz, landa-eremuko helmugetan, turisten joan-etorri handiak eragin kaltegarria izan dezake bisitarien gogobetetasunean, naturaz eta lasaitasunaz gozatu nahi izaten baitute, eta masifikaziotik aldentu.

Turistak landa-eremuetara iristeak hobekuntzak susta ditzake ingurune horietan, helmugako bizibaldintzetan positiboki eragin dezaketenak, hala nola errepideak eraikitzea, garraio publikoko sare bat sortzea eta funtsezko zerbitzuak indartzea, osasuna eta hezkuntza, kasu. (Luque-Gil eta beste batzuk, 2018; Saveriades, 2000). Dena den, landa-eremuko turistak benetakotasunaren bila joaten direnez, presio turistikoaren kontrola bereziki erabakigarria da

horrelako helmugetan, bisitari horiek sentiberagoak baitira masifikazioarekiko. Gainera, kontuan hartu behar da turisten etorrerak askoz ere eragin handiagoa izango duela bertakoen bizimoduan, hiri-inguruneetan bizi direnen bizimoduan baino, eta, beraz, ezinbestekoa da helmuga horiek «parke tematiko» ez bihurtzea eta bertako lasaitasuna eta landa-esentzia ez galtzea.

Ildo horretan, Baños-Pino, Boto-García eta beste batzuen azterlanak (2024) analisi-esparru berritzaile bat proposatzen du, landa-eremuko helmugetako masifikazioa produkzio-ikuspegi batetik ezaugarritzeko. Analisi horretan, espainiar estatuko probintziak aztertzen dira 2005 eta 2019 artean, eta, bertan adierazten denez, Kantabriak eta Gipuzkoak beren karga-ahalmena gaitzitu zuten 2019an, eta Girona eta Balear Uharteak ahalmen-mugara iristear zeuden.

Helmuga turistiko adimendunak jasangarritasunerako gakoa

Gaur egungo testuinguruan, informazioaren teknologien erabilera intentsiboa da nagusi turismoaren produkzioan eta kontsumoan; horrenbestez, helmuga turistiko adimendunak erantzun berritzaile gisa sortu dira, hiperinformatuta eta une oro konektatuta dauden turisten eskari berriei erantzuteko eta helmugen lehiakortasuna hobetzeko. Teknologia abangoardistena, datuak eta berrikuntza baliatzen dituzte gobernantza-eredu efiziente, parte-hartzaile eta garden baten pean, kalitatezko esperientzia turistikoak eskaintzeko, eta,aldi berean, ingurumena zaintzen, irisgarritasuna sustatzen eta egoiliarren bizi-kalitatea hobetzen dituzte (SEGITTUR, 2015). Esparru horretan, jasangarritasuna funtsezkotzat hartzen da *smart* eta lehiakor izan nahi duen helmuga orotan, eta ezagutzen eta adimen turistikoan oinarritutako kudeaketa-eredu jasangarria sustatzen da, helmugetako erabaki-hartzeetan aplikatzen diren tresna teknologiko eta berritzaileen bidez sortua. Ikuspegi hori, gainera, ez da soilik hiri-inguruneen mesederako; izan ere, aukera berriak eskaintzen dituzte landa-eremuek ere estrategia adimendunak ezar ditzaten, jasangarritasun-jardunbide arduratsuak hartzeko, tokiko agintariak inplikatzeko eta egoiliarren parte-hartze aktiboa sustatzeko, elementu horiek funtsezkoak baitira helmugaren marka indartzeko

eta haren erakargarritasuna handitzeko (Sustacha eta beste batzuk, 2024).

Espainiak helmuga turistiko adimendunen ereduaren aldeko apustu sendoa egin du, eta erreferente bihurtu da nazioartean, SEGITTUR Berrikuntzaren eta Teknologia Turistikoen Kudeaketarako Estatuko Merkataritza Sozietateak sustatutako ekimen aitzindarien bidez. Helmuga kudeatzeko ikuspegi berri horrek hainbat ekintza sustatzeko neurriak ezartzen ditu, hala nola baliabideen kudeaketa efizientea, mugikortasun jasangarria, ondarearen kontserbazioa, egoiliarren inplikazioa erabaki-hartzeetan, ingurumen-inpaktuaren minimizazioa, ekonomia zirkularraren bultzada eta helmugaren erresilientziaren indartzea. Azken batean, «ezin da adimenduna izan turismo jasangarriarekin ez bada» (García Moreno eta Fernández Alcantud, 2022). Ildo horretan, Espainiako ereduak jasangarritasunaren arloan eragiteko lau jardura-esparru zehazten ditu; jardura-esparru horiek, hain zuzen, zenbait baldintza biltzen dituzte (**1. irudian** laburbildu dira).

1. irudia. Jasangarritasunaren esparruak



Iturria: geuk egina, SEGITTUR eta Andades (2024) oinarri hartuta.

Turismo-jasangarritasuna kudeatzean, plangintza-eta kudeaketa-tresna espezifikoak erabili behar dira, turismo-garapen orekatua eta arduratsua lortzeko. Turismoan politika jasangarria ezartzeko, funtsezkoa da hainbat alderdiri heltzea, hala nola hirigintza-plangintza, jasangarritasun-printzipioekin lerrokatuta egon behar duena, eta mugikortasun jasangarria, karbono-emisioak murriztuko dituzten eta irisgarritasuna hobetuko duten

garraio-alternatibak sustatuta. Funtsezko beste osagai bat turismoaren karga-ahalmena neurtzea da, behar-beharrezkoa baita helmugak ez saturatzeko. Horrez gain, jasangarritasun-adierazleen sistemak ezarri, denbora errealean monitorizatu eta ebaluatu daiteke turismo-jardueraren inpaktua, eta horrek aukera ematen du erabakiak ongi informatuta hartzeko eta urtarokotasunaren kudeaketa egokia egiteko.

Kultura-ondarea kontserbatu, berreskuratu eta hobetzeko esparruan, kultura-baliabideak — ukigarriak zein ukiezinak — babestu, balioetsi eta sustatzeko zenbait ekintza biltzen dira. Horren barruan sartzen dira ondarea zaintzea eta zaharberritzea, haren erabilera turistiko arduratsua sustatzea, haren onura eta jasangarritasuna bultzatzen duten ekimenak garatzea, eta kulturaren eta turismoaren arteko harremana sendotzea, helmugak garatzeko eta bereizgarri egiteko bide gisa.

Ingurumena kontserbatu eta hobetzeko baldintzek helmugako ingurune fisikoari lotutako alderdi guztiak barne hartzen dituzte, tokiko natura-ingurunearen eta haren biodibertsitatearen babesa barne, bai eta bertako baliabideen kudeaketa jasangarria ere. Esparru horretan sartzen dira ingurumen-legeria betetzearekin, energia-efizientzia sustatzearekin, energia berriztagarriak erabiltzearekin, uraren zikloaren eta hondakinen kudeaketa integrala egitearekin, eta birziklapena sustatzearekin lotutako neurriak. Horrez gain, kutsadura akustikoa arintzeko, airearen kalitatea hobetzeko eta klima-aldaketara egokitzeko erronkei aurre egiteko ekintzak sartzen dira.


Garapen sozioekonomikoaren eta ekonomia zirkularraren esparrua helmuga turistikoaren jasangarritasun ekonomikoa eta soziala bermatzera bideratuta dago. Horren baitan sartzen dira tokiko ekonomia sustatzea eta babestea, hurbileko produktuen kontsumoa bultzatuz (0 km), tokiko turismoa indartuz eta erosketa-jardunbide arduratsuak sustatuz. Arreta berezia ezartzen zaie, halaber, bidezko enplegu-aukerak sortzeari eta enpleguaren urtarokotasunaren aurka borrokatzeari, bai eta jasangarritasunean espezializatutako ezagutza-zentroekin lankidetzan aritzeari ere, berrikuntza eta garapena sustatzeko. Horrez gain, turismo-jardueraren ondoriozko onurak eta kargak modu ekitatiboan birbanatzea barne hartzen du. Era berean, beste alderdi hauek ere aintzat hartzen ditu: turistentzako osasun-laguntza egokia, segurtasunaren bermea helmugetan, krisien eta

larrialdien kudeaketa eraginkorra, eta babes zibila. Hori guztia ingurune turistiko erresilienteak, ongizate kolektiboarekin konprometiturikoak, sortzeko helburuz.

Jasangarritasunaren arloko jardunbide egokien adibideak

Garapen orekatuagoa eta arduratsuagoa lortzeko bidean, jasangarritasunaren arloko jardunbide egokiek funtsezko garrantzia dute. Ekimen arrakastatsuak dira, hainbat testuingurutan erreplikatzen eta baliozkotzen direnak, eta, beraz, beste helmuga batzuetarako erreferentzia gisa gomendatzen dira, haien inpaktua maximizatzeke eta haien garapena sustatzeko.

Zentzu horretan, «Urban-Waste» (2. irudia. **Urban-Waste**) proiektua aipatu behar da. Europako Batzordeak finantzaturako ekimena da, Horizonte 2020 programaren barruan, eta haren helburu nagusia izan zen hamaika hiri pilotutan (besteak beste, Tenerifen eta Santanderren) turismo-hondakinak kudeatzeko estrategia berritzaileak garatzea; horrez gain, etorkizunean Europan ingurumen-ekimenak inplementatzeko oinarriak ezarri zituen. Proiektu horretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako tresnak baliatu ziren turistak hondakinen murriztapenean eta birziklapenean inplikatzeko, hainbat estrategia eta ekintzaren bidez, «WasteApp» aplikazio mugikorraren bidez, besteak beste. App horretan, hondakin-mota desberdinak non eta nola bota behar zituzten azaltzen zitzairen, eta, aldi berean, pizgarriak ematen zitzaizkien, sari moduan, hiriko egonaldian ingurumenarekiko portaera arduratsua erakusten zuten turistei. Aplikazioaren bidez, bisitariak puntuak lortzen zituzten hondakinak edukiontzi geolokalizatu batean behar bezala botatzen zituztenean, eta, gero, puntu horiek trukatu zitzaizkien doako produktuak lortzeko edo erakunde laguntzaileetan deskontuak izateko (jaketxeak, hotelak, turismo-bulegoak, etab.). Proiektua 2019an amaitu zen, eta, horren bidez, bertan parte hartu zuten zenbait hiritako hondakinak nabarmen murriztea lortu zen; beste hiri batzuetan, berriz, hondakinen kudeaketa eta birziklapena hobetzera bideratu zituzten indarrak. Nolanahi ere, ekimen horrek agerian uzten du zein garrantzitsua den turistak kontzientziaztea eta haien parte-hartzea sustatzea hondakinen sorrera kontrolatzeko.



Iturria: www.urban-waste.eu eta Santanderreko Udala.

Horrez gain, beste neurri teknologiko batzuk ere planteatu litezke, hala nola sentsoreak jartzea helmuga masifikatuenetako edukiontzietan, denbora errealean adieraz dezaten zer okupazio-maila duten eta zaborra uzteko zer aukera dauden hurbilen. Horrek, gainera, oso informazio baliagarria emango lieke agintari eskudunei, tokiko azpiegiturak gehiegi kargatu ez daitezzen. Halaber, aplikazio mugikor bat jar liteke bisitarien eskura, udalei jakinarazteko zaborra pilatuta dagoela hondartzetan, bidezidorretan, naturguneetan edo beste ingurune turistiko batzuetan.


Dena den, ekimen horien edo beste batzuen arrakasta bidaiariak behar bezala sentsibilizatzeko eta inplikatzeko gaitasunaren mende dago, neurri handi batean. Funtsezkoa da bidaiariei aplikazioen erabilerari buruzko informazio argia eta eskuragarria ematea, eta azaltzea nola eman dezaketen gorabeheren berri, zer hondakin-mota jakinarazi behar dituzten eta, jakinarazi ondoren, zer ekintza egingo diren. Gainera, «Urban-Waste» proiektuan planteatu bezala, parte-hartzea sustatzeko baliagarriak dira pizgarriak, hau da, deskontuak, sariak edo sare sozialetako argitalpenak, turista aktiboenak eta ingurumenarekiko konpromiso handiena erakutsi dutenak aintzatesteko rankingarekin.

Hondakinak murrizteko eta kudeatzeko egin bezala, berrikuntza eta teknologia erabil litezke gehiegizko

presio turistikoa saihesteko edo kontrolatzeko. *Overtourism* fenomenoaren ondorio desatseginak arintzeko zenbait neurri big dataren eta sentsoreen erabilera barne har dezakete, erakarpen-gune nagusietara nahiz gune turistiko masifikatuenetara egiten diren joan-etorriak denbora errealean neurtzeko. Horri esker, saturazio-egoera hain handia ez den espazioetara bideratu ahal izango lirateke fluxuak, turista bakoitzaren lehentasunak kontuan hartuta.

Saturazioa kontrolatzeko esperientzia erreal batzuk Bartzelonan eta Saloun inplementatu dira, besteak beste. Bartzelonan, «Check Barcelona» () aplikazio mugikorrak hainbat gune turistikoren okupazio-mailari buruzko informazioa ematen du denbora errealean, eta pilaketa gutxiagoko alternatibak proposatzen ditu; horrez gain, aparkalekuak libre dauden edota hondartzetan zer egoera den jakinarazten du. Bestalde, Saloun, sentsore adimendunak instalatu dira hondartzetan, bertan zenbat pertsona dauden zenbatzeko; horrela, bai turistak bai egoiliarak webgune batera sar daitezke, eta hondartzetako okupazio-maila kontsultatu dezakete berehala, semaforoan antzeko kolore-kode simple baten bidez (4. irudia. Hondartzetako edukiera. Ajuntament de Salou).

3. irudia. Check Barcelona



Iturria: www.spain.info

4. irudia. Hondartzetako edukiera. Ajuntament de Salou



Iturria: <https://platges.salou.cat/ca/>

Landa-eremuko helmugetan ere, saturazio turistikoa kudeatzeko teknologia erabiltzen duten hainbat ekimen inplementatzen ari dira. Horren adibide bat da Santillana del Mar (Kantabria); izan ere, Udalak aplikazio mugikor bat jarri du martxan, bisitariek denbora errealean jakinarazi ditzaten izan daitezkeen gorabeherak. Tresna hori ez zuten berariaz diseinatu presio turistikoaren gaiari heltzeko, baina, abisuak eta iradokizunak jasotzeko aukera ematen duenez, tresna baliagarria izan daiteke turista gehien biltzen diren eremuak identifikatzeko eta fluxua orekatzeko neurriak aplikatzeko. Bestalde, Las Médulasen (Leon) bisitari-kopurua kudeatzeko plan integral bat garatzen ari dira; besteak beste, bideozaintza-sistemak instalatu dira, eta, ingurunearen % 45era sartzeko, sarrera kobratzen hasi dira, egoiliarrei eta tokiko establezimenduetan ostatu hartzen dutenei salbu. Bildutako dirua zenbait zerbitzu hobetzeko erabiliko da, hala nola aparkaleku eta komun publikoak hobetzeko, eta, horrekin batera, fluxu turistikoaren kudeaketa efizienteagoa egiten lagunduko du. Horrez gain, datu mugikorraren analisiak erabiltzen ari dira turisten mugimendu-patroiak aztertzeko; horri esker, joan-etorri handieneko egunak eta orduak identifikatu daitezke, eta, horrela, estrategiak planifikatu, une jakin batzuetan bisitariak hobeto banatzeko eta saturazioa arintzeko.

Hondakinen kudeaketaren arazoari nahiz *overtourism* delakoari aurre egiteko aipatutako neurriak bat datoz 2030 Agendako garapen jasangarrirako helburuetako batzuekin. Zehazki, helburu hauek lortzen laguntzen dute:

- Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria sustatzea, eta berrikuntza bultzatzea (9. helburua).
- Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izan daitezen lortzea (11. helburua).
- Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriak bermatzea (12. helburua).

Ondorioak

Turismoak gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-presio gero eta handiagoei aurre egin behar dien testuinguru globalean, ezinbestekoa da ikuspegi integralak hartzea, turismo-garapenaren ardatz nagusitzat jasangarritasuna lehenetsiko dutenak. Hiri-eremuk

helmuga aurreratuenetan nahiz landa-ingurune tradizionalenetan, hazkundera eta baliabideen zaintza nahiz komunitateen ongizatearen zaintza orekatzeko dugun gaitasunaren arabera izango da turismoaren etorkizuna.

Lan honek agerian utzi du helmuga adimendunetako turismo-kudeaketaren eredua tresna ona izan daitekeela lehiakortasuna eta jasangarritasuna bultzatzeko egungo testuinguruan, digitalizazioa turismoaren industria azkar-azkar eraldatzen ari den une honetan, hain zuzen ere. Dena den, estrategia horien arrakasta, neurri handi batean, bidaiariak behar bezala sentsibilizatzeko eta inplikatzeko gaitasunaren mende dago, hau da, haiei tresna digitalen erabilerari buruzko informazio argia eta eskuragarria emanez, eta haien parte-hartze aktiboa sustatuz. Pizgarriak, hala nola deskontuak, sariak eta sare sozialetako aipamenak, funtsezkoak izan daitezke turistak ingurunearekiko jokabide arduratsuagoak hartzera motibatuz.

Bestalde, jasangarritasuna hobetzeko berrikuntza teknologikoetan oinarritutako estrategiak ezartzea baliteke hain erraza ez izatea. Oztopo nagusien artean, hauek aipa daitezke: inbertsio handiak egiteko beharra, inplikaturako eragileen erresistentzia aldatzeko aurrean, eta administrazioen, enpresen nahiz gizarte zibilaren ahaleginak koordinatzeko zailtasuna. Horrez gain, funtsezkoa da soluzio horiek guztientzat eskuragarriak izatea eta bestelako desberdinkeriarik ez sortzea. Gainera, teknologia guztiek ez dute betetzen jasangarritasunari dagokionez agindutakoa, eta, beraz, erabakigarria da horien benetako eragina ebaluatzea. Nolanahi ere, ikuspegi integral batekin diseinatzen badira, helmuga bakoitzaren errealitatera egokituta eta gobernantza-eredu efiziente batekin babestuta, estrategia horiek nabarmen lagundu dezakete turismoa eraldatzen.

Turismo-eredu jasangarriagoa eraikitzea, erantzukizun partekatua ez ezik, aukera egokia da turismoak gure gizartean duen funtzioa birdefinitzeko. Teknologia, berrikuntza, inklusioa eta ingurunearekiko errespetua uztartzen dituzten estrategien alde eginez bermatuko da etorkizuneko belaunaldiak ere garapenaren eta ongizate globalaren eragile izan daitezkeen sektorearen onurez gozatu ahal izatea, betiere ongi kudeatzen bada. ■

Bibliografía

- Baños-Pino, J. F.; Boto-García, D.; Zapico, E. et al Mayor, M. (2024): «Optimal carrying capacity in rural tourism: Crowding, quality deterioration, and productive inefficiency», *Tourism Management*, 105, 104968. <https://doi.org/10.1016/j.tourman.2024.104968>
- Baños-Pino, J. F.; Sustacha, I.; Boto-García, D. et al Del Valle, E. (2025): «Are Smart Tourism Destinations more productive efficient? The Spanish case», *Tourism Economics*. <https://doi.org/10.1177/13548166241313413>
- Baños-Pino, J. F.; Zapico, E.; Mayor, M. et al Balado-Naves, R. (2024): «The design of an eco-tax on tourism waste for sustainable destinations, based on environmental efficiency and spatial dependence», *Journal of Sustainable Tourism*, 1–23. <https://doi.org/10.1080/09669582.2024.2433072>
- Bohdanowicz, P. (2006): «Environmental awareness and initiatives in the Swedish and Polish hotel industries — survey results», *International Journal of Hospitality Management*, 25(4), 662–682. <https://doi.org/10.1016/j.ijhm.2005.06.006>
- Brunt, P. et al Courtney, P. (1999): «Host perceptions of soziocultural impacts», *Annals of Tourism Research*, 26(3), 493–515. [https://doi.org/10.1016/S0160-7383\(99\)00003-1](https://doi.org/10.1016/S0160-7383(99)00003-1)
- Durán-Román, J. L.; Cardenas-García, P. J. et al Pulido-Fernández, J. I. (2021): «Tourists' willingness to pay to improve sustainability and experience at destination», *Journal of Destination Marketing & Management*, 19, 100540. <https://doi.org/10.1016/j.jdmm.2020.100540>
- García Moreno, B. et al Fernández Alcantud, A. (2022): «El modelo destinos turísticos inteligentes (DTI): la apuesta por la sostenibilidad turística», *Economía Industrial*, 426, 93–106.
- Gonzalez Martin, G. (2019): «Proyecto Urban-Waste: estrategias para la gestión de residuos en zonas turísticas», *Equipamiento y Servicios Municipales*, 187, 8–12.
- Greco, G.; Cenciarelli, V. G. et al Allegrini, M. (2018): «Tourism's impacts on the costs of municipal solid waste collection: Evidence from Italy», *Journal of Cleaner Production*, 177, 62–68. <https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2017.12.179>
- Juvan, E.; Grün, B. et al Dolnicar, S. (2023): «Waste production patterns in hotels and restaurants: An intra-sectoral segmentation approach», *Annals of Tourism Research Empirical Insights*, 4(1), 100090. <https://doi.org/10.1016/j.annale.2023.100090>
- Kim, D.; Lee, C.-K. et al Sirgy, M. J. (2016): «Examining the Differential Impact of Human Crowding Versus Spatial Crowding on Visitor Satisfaction at a Festival», *Journal of Travel & Tourism Marketing*, 33(3), 293–312. <https://doi.org/10.1080/10548408.2015.1024914>
- Luque-Gil, A. M.; Gómez-Moreno, M. L. et al Peláez-Fernández, M. A. (2018): «Starting to enjoy nature in Mediterranean mountains: Crowding perception and satisfaction», *Tourism Management Perspectives*, 25, 93–103. <https://doi.org/10.1016/j.tmp.2017.11.006>
- Milano, C.; Novelli, M. et al Cheer, J. M. (2019): «Overtourism and Tourismphobia: A Journey Through Four Decades of Tourism Development, Planning and Local Concerns», *Tourism Planning and Development*, 16(4). <https://doi.org/10.1080/21568316.2019.1599604>
- Santana-Jiménez, Y. et al Hernández, J. M. (2011): «Estimating the effect of overcrowding on tourist attraction: The case of Canary Islands», *Tourism Management*, 32(2), 415–425. <https://doi.org/10.1016/j.tourman.2010.03.013>
- Saveriades, A. (2000): «Establishing the social tourism carrying capacity for the tourist resorts of the east coast of the Republic of Cyprus», *Tourism Management*, 21(2), 147–156. [https://doi.org/10.1016/S0261-5177\(99\)00044-8](https://doi.org/10.1016/S0261-5177(99)00044-8)
- SEGITTUR (2015): *Informe destinos turísticos inteligentes: construyendo el futuro*. Berrikuntzaren et al Teknologia Turistikoen Kudeaketarako Estatuko Merkataritza Sozietatea. <https://www.segittur.es/wp-content/uploads/2019/11/Libro-Blanco-Destinos-Turísticos-Inteligentes.pdf>
- SEGITTUR et al Andrades, L. (2024): «The Pillar of Sustainability in the Spanish Smart Tourism Destination (DTI) Model», in L. Andrades, C. Romero-Dexeus et al E. Martínez-Marín (editoreak): *The Spanish Model for Smart Tourism Destination Management: A Methodological Approach* (177.–221. or.). Springer. https://doi.org/10.1007/978-3-031-60709-7_7
- Sustacha, I.; Baños-Pino, J. F. et al del Valle, E. (2023): «The role of technology in enhancing the tourism experience in smart destinations: A meta-analysis», *Journal of Destination Marketing & Management*, 30, 100817. <https://doi.org/10.1016/j.jdmm.2023.100817>

- Sustacha, I.; Baños-Pino, J. F. eta del Valle, E. (2024): «How smartness affects customer-based brand equity in rural tourism destinations», *Journal of Destination Marketing & Management*, 34, 100949. <https://doi.org/10.1016/j.jdmm.2024.100949>
- Tokarchuk, O.; Gabriele, R. eta Maurer, O. (2021): «Estimating tourism social carrying capacity», *Annals of Tourism Research*, 86, 102971. <https://doi.org/10.1016/j.annals.2020.102971>
- Torregrosa, T.; Sevilla, M.; López, J. eta Aranda, P. (2022): «Economía del medio ambiente, externalidades, y economía circular», in A. Ramón eta M. J. Such (editoreak.): *La economía del turismo* (369.–404. or.). Alcaláko Unibertsitatearen argitaletxea.
- Zhang, N.; Ren, R., Zhang, Q. eta Zhang, T. (2020): «Air pollution and tourism development: An interplay», *Annals of Tourism Research*, 85, 103032. <https://doi.org/10.1016/j.annals.2020.103032>

Monica Segovia Perez
Rey Juan Carlos Unibertsitatea

Sarrera

Turismoaren sektoreak garrantzi handia du Espainiako ekonomian, enpleguaren proportzio handiena biltzen den sektoreetako bat baita. Espainiak nazioarteko 5,1 milioi turista jaso zituen 2025eko urtarrilean, 2024ko hilabete berean baino % 6,1 gehiago. Excelturren arabera, turisten bolumen horren ondorioz, turismoak Espainiako ekonomian zuen pisua BPGren % 13 baino gehiago izan zen 2024an; horrez gain, 2024aren amaieran, nazioko ekonomian lanean zeuden pertsona guztien % 13 turismoan ari ziren (EIN, 2024).

Beraz, turismoaren jarduerak hazkunde ekonomikoa sortzen du, eta lan-aukera handiak dituen jarduera-sektoretzat eratzten da (ELGA, 2020). Aukera horiek izan arren, eta turismoaren sektoreko lan-indar nagusia emakumeak badira ere, desberdintasun ugari gertatzen dira sektore horretan, eta oso desberdina da gizonen eta emakumeen lan ordaindua. Emakumeek lan-baldintza okerragoak izan ohi dituzte kontratamotei, behin-behinekotasunari eta soldatei dagokienez (Segovia-Pérez eta Figueroa-Domeck, 2018).

Aurretiko testuinguru horretan, adimen artifizialak (AA) lan-merkatuan duen eragina erronka sozial handienetako bat izango da genero-berdintasunean, eta, zehazki, turismoaren sektoreko lan-indarrean. Teknologiak eta adimen artifizialak gero eta garrantzi

handiagoa dute turismoaren sektorean, eta horrek, joera berrietara egokitzeko beharraz gain, ikuspegi berdinzaleagoa eta jasangarriagoa planteatzeko aukera ematen du, epe luzerako jasangarritasuna eta lehiakortasuna hobetuko dituen. Nazio Batuen 2030 Agendan ezarritako garapen jasangarrirako helburuen (GJH) esparruan, genero-berdintasuna oinarritzko eskubidetzat hartzen da maila orokorrean eta, zehazki, lan-merkatuan (5. GJH). Horrela, bai Europako Batzordearen bai Turismoaren Mundu Erakundearen (TME) iritziz, adimen artifizialaren garapenean genero-ikuspegia bermatzea elementu erabakigarria da turismo jasangarria lortzeko.

Emakumearen lan-baldintzak turismoaren sektorean

Turismoaren Mundu Erakundeak adierazten duenez, munduan, emakumeak dira sektore horretako lan-indarraren % 54 (TME, 2021). Espainian, sektoreko profesionalen % 57,83 ziren 2020an; beraz, agerikoa da turismoaren eta ostalaritzaren feminizazioa (Turijobs eta RaizUp, 2021). Jardueraren arabera, 2023an, emakume landunen proportzio handiena bidaia-agentzietan (% 62), alojamendu-zerbitzuetan (% 53) eta jatetxe arloko zerbitzuetan (% 53) zegoen.

1. taula. Landunen banaketa, jardueraren eta sexuaren arabera

Landunak	Alojamendu-zerbitzuak	%	Jatetxe arloko zerbitzuak	%	Bidaia-agentziak	%	Garraioa	%	Turismoa guztira
Zenbateko absolutua eta guztizkoarekiko ehunekoak	399,9	16,6	1.207	50,2	64,3	2,7	731,6	30,4	2.402,8
Gizonak	186,3	46,6	571,2	47,3	24,5	38,1	610,5	83,4	1.392,5
Emakumeak	213,7	53,4	635,7	52,7	39,8	61,9	121	16,5	1.010,2

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa. Enplegua turismoaren sektorean Espainian: egoerak eta joera, 2023

Hala ere, sektorean lan egiten duten emakumeen lan-baldintzak ez dira idealak, eta desberdintasunak daude kontratu-motei, iraupenari, soldatei eta lan-bereizketari (horizontala zein bertikala) dagokienez. 2. taulan ikus daitekeenez, Espainian, turismoaren sektorean lan egiten duten emakumeek aldi baterako kontratuen proportzio handiagoa dute, gizonekin alderatuta, eta, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren

arabera (EIN, 2024), lanaldi partzialeko lan-tasa % 25ekoa da. Joera hori, gainera, Espainian ez ezik, mundu mailan ere hauteman da; izan ere, emakumeek kualifikazio txikiagoa eskatzen duten zereginak betetzen dituzte, sasoiko lanetan eta lanaldi partzian, bai hotel-kate handietan, bai turismo-entrepresa txikietan (OMT, 2021).

2. taula. Turismoaren sektoreko kontratu-motak, sexuaren arabera (2022)

Kontratua, modalitatearen arabera	Gizonak	%	Emakumeak	%	Guztira
Kontratu mugagabea	1.083.264	54,2	916.444	45,8	1.999.708
Aldi baterako kontratua	1.305.289	46,4	150.9110	53,6	2.814.399

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa. Enplegua turismoaren sektorean Espainian: egoerak eta joera 2023

Soldatei dagokienez, TMEn arabera (2021), emakumeek gizonek baino % 14,7 gutxiago irabazten dute turismoaren sektorean mundu-mailan; beste sektore batzuetan, berriz, % 16,8 gutxiago irabazten dute. 2022an, langile bakoitzak batez beste 26.948,87 euro irabazi zituen urtean Espainian; dena den, Ostalaritza eta Beste zerbitzu batzuk sektoreetako

batezbesteko soldatak batez besteko hori baino % 39,6 eta % 32,2 txikiagoak izan ziren, hurrenez hurren. Emakumeek ordezkaritza esanguratsua duten jarduera-sektore guztietan, emakumeek gizonek baino gutxiago irabazten dute, ostalaritzaren sektorean gertatzen den bezala (3. taula).

3. taula. Ostalaritzako langile bakoitzaren urteko batez besteko irabazian den aldea, sexuaren arabera. 2022. urtea

	Emakumeak	Gizonak	Aldea
I. Ostalaritza	15.022,32	17.921,24	-2.898,92

Iturria: EIN (2024), Soldata-egiturari buruzko inkesta

Egoera horrez gain, sektorean dagoen bereizketa bertikala eta horizontala aipatu behar da. Gizonak eta emakumeak beren sexua dela-eta lan, jarduera eta hierarkia-maila desberdinetan daudenean gertatzen da lan-bereizketa, eta horrek desberdintasunak sor ditzake haien lan- eta soldata-baldintzetan. Turismoaren sektorean, emakumeak estereotipo eta rol espezifiko jakin batzuei lotuta egon ohi dira, eta, horrenbestez, presentzia handiagoa dute rol horiek betikitzen dituzten lanbideetan (Segovia-Pérez, M. eta beste batzuk, 2021). Hala, batez ere

lanbide hauetan aurkitzen ditugu: bezeroarentzako arretan, harreran, administrazio eta finantzen arloan, solairuetako lanetan (governanta moduan, adibidez) eta garbiketari (Turijobs eta RaizUp, 2021). Gutxiago ageri dira berrikuntza, teknologia edo mantentze-lanen arloetan, gizonek lanbide horietan nagusitasuna izaten jarraitzen baitute (Segovia eta beste batzuk, 2018)

Era berean, bereizketa bertikalari dagokionez, 2021ean Espainian izandako datuen arabera,

emakumeek erantzukizun handiko postuen % 33 betetzen zituzten, 5 izarreko hoteletako zuzendaritzen % 13, hotel-kateetako zuzendaritzen % 5 eta kate horietako CEO karguen % 3 baino ez (Segovia eta Figueroa, 2021). Eta 2024ko datuek ez dute hobekuntza nabarmenik erakusten egoera horri dagokionez. Atrevia aholkularitzaren azken txostenaren arabera, emakumeen % 4 baino ez dira presidenteak, eta emakumeen % 24 dira CEOak. Banaketa horretan, sailen araberrako bereizketa horizontala ere ikusten da; izan ere, zuzendaritza-postuetan emakumeen proportzio handiena duten arloak komunikazioarekin (% 67), giza baliabideekin (% 63) eta jasangarritasunarekin (% 55) daude lotuta. Ordezkaritza orekatua duen sail bakarra marketinaren arloa da. Teknologiaren sailean, aldiz, gizonak gehiengoa dira (% 86); beraz, adimen artifizialaren etorkizuneko garapenari begira, desabantaila-egoera dakar emakumeentzat.

Adimen artifizialaren eragina turismoko lan-merkatuan

Turismoaren sektorean, haren azpisektore eta prozesu guztietan, gero eta inplementazio handiagoa du adimen artifizialak, lehiarako dituen zalantzarik gabeko abantailak direla-eta. Adimen artifiziala berrikuntza-iturri garrantzitsu gisa indartzen ari da, efizientzia operatiboa handitu eta kostuak murrizten baititu. Enpresek automatizazioa erabili dute bereziki hainbat *front-of-house* prozesutan, harreraren, bai eta zenbait *back-of-house* prozesutan ere, bezeroaren

kontakturik edo parte-hartzerik behar ez dutenetan. Jarduera-arloei dagokienez, kontsumitzaileak bidaia kudeatzeko erabil dezakeela uste da; izan ere, horrela, kontsumitzaileak autonomia eta pertsonalizazio handiagoa izango du bidaia-aren antolaketan, bere lehentasunen eta interesen arabera egokituta. Horrez gain, bidaia-aren eta egonaldi-aren eskaintzen kudeaketa eta optimizazioa askoz ere efizienteagoa izango da, eskaria aurreikusteko aukera emango du, eta, horrela, prezioak eta zerbitzu turistiko-aren zein ostatu-aren okupazioa doitu ahal izango dira. Kontsumitzaileengan portaera-patroiak detektatzeko aukera ere emango du, bai eta arreta pertsonalizatuagoa eskaintzeko aukera ere, berehalako feedbacka duten txatboten eta/edo itzulpen automatiko-aren bitartez (Imascono, d.g).

Adimen artifizialak sektorean dituen askotariko aplikazioak eta inplementazioak direla-eta, sektoreko lan-merkatua, lanaren izaera, lanpostuak eta langileek eskatutako trebetasunak aldatuko dira teknologia horren ondorioz. Nexturren txostenaren arabera (2024), AAren erabilera orokortzean, enpleguen % 9,8 automatizatzeko arriskua aurreikusten da Espainian. Nolanahi ere, egungo enpleguen % 5,9k produktibitate handiagoa izatea ere espero da, eta lau enplegutatik hiritan aldaketa esanguratsurik ez nabaritzea. Bestalde, Randstad Research txostenean adierazten denez, ostalaritza-jardueretan, merkataritza-jardueretan eta/edo administrazio-jardueretan, lanpostu gehiago desegingo dira AA ezartzearen ondorioz. Dena den, lanbide berriak sortzea ere aurreikusten da; txosten horren arabera, 1,6 milioi lanbide berri sor litezke, oro har.

4. taula. Automatizatzeko aukera duten lanbideak eta sortuko diren lanbide berriak, jardueraren arabera (guztizkoa milakoetan)

Sektorea	Automatizazioa	Lanpostu berrien sorrera	Aldea
Merkataritza	411.879	253.464	-158.415
Ostalaritza	225.540	112.770	-112.770
Administrazio-jarduerak	177.498	29.583	-147.915
Garraioa eta biltegiatzea	142.320	94.880	-47.440

Iturria: Randstad Research, 2024

Bestalde, adimen artifizialak aldaketak ekarriko ditu lan-esparruan behar diren trebetasunetan eta gaitasunetan, eta lanbide berriak sortuko ditu.

Bidaia-agentzien eta tour-operadoreen esparruan, esate baterako, lanbide berriak ari dira sortzen, halanola bezeroaren esperientzian espezialista, bidaia-datuen

analista, bidaia-prozesuen automatizazioan espezialista, AArako soluzioen garatzailea eta AAko etika espezialista (Hosteltur, 2024).

Nola eragingo dio emakumeari turismoaren sektorean adimen artifiziala ezartzeak?

Informazio-teknologiaren erabilerari, aplikazioari eta eraginari buruz egindako txostenek eta nazioartean eta estatuan egindako ikerketek behin eta berriz nabarmendu dute emakumeetan dagoen arrakala teknologiaren erabilerari eta trebetasunei dagokienez, eta horrek genero-desberdintasunak sortzea eta/edo iraunaraztea eragin dezake.

Desberdintasun horien oinarria estereotipoak eta genero-rolak dira, gizonen eta emakumeen trebetasun teknologikoei buruzko sinesmenak markatzen dituztenak. Estereotipoak eta genero-rolak gizartean zabalduriko ideiak dira, bakoitzaren sexuaren arabera pertsonen nola jokatu behar duten adierazten dutenak. Gizonek trebetasun teknologiko gehiago dituztela esaten da, eta sektore horretako lanekin lotuta daudela. Bestalde, uste da emakumeek trebetasun teknologiko gutxiago dituztela, eta emozioekin, harremanekin nahiz komunikazioarekin lotutako lanbideekin lotu ohi dira. Uste horiek sozializazioaren lehen etapetan eraten dira, eta gizartean lanaren banaketa sostengatzen duten trebetasunak eta lehentasunak garatzera animatzen dira haurrak. Banaketa horiek eragina dute hezkuntzan, zer unibertsitate-karrera aukeratu erabakitzean, baina baita jarduera-sektoreak konfiguratzean ere.

Sektoreen arteko eta sektore barruko bereizketen ondorioz, ingurune teknologikoak nagusiki maskulinoak dira, eta horrek emakumeak urruntzen ditu eremu horietatik. Horregatik, funtsezkoa da banaketaren eragina aztertzea. Bestalde, teknologiaren sektorearen barruan, laugarren iraultza teknologikoak bi profiletan banatu ditu IKTekin loturiko lanbideak: teknikoa eta ez-teknikoa, trebetasun hibridoekin loturikoa (Segovia-Pérez, M. eta beste batzuk, 2019). Emakumeek hain teknikoak ez diren arloetara jo ohi dute. Hori dela eta, emakumeak lan-baldintza okerragoak dituzten enpleguetara baztertuta geratzen dira, ez trebetasunik edo esperientziarik ez izateagatik, baizik eta aurkako lan-merkatuan negoziatzeko gaitasun txikiagoa izateagatik. Beraz, galdera litzateke ea, turismoaren

sektorean AArako trantsizioa egitean, industriatik kanporatuko liratekeen edo ordezka daitezkeen bigarren mailako posizioetara $\frac{3}{4}$ teknologiarekin edo zeregin subsidiarioekin zerikusirik ez duten posizioetara $\frac{3}{4}$ baztertuko liratekeen.

Zentzu horretan, adimen artifizialak enpleguetan eragingo dituen aldaketak, funtsean, egin beharreko zereginari eta/edo mikro zereginari loturik egongo dira, ez hainbeste lanbideari; hau da, lehenik eta behin, eskuzko zereginei eragingo die, hala nola hoteletako sarrera- eta irteera-erregistroa, elikagai eta edariekin loturiko zerbitzua, sukaldeko laguntza-zerbitzua eta zenbait garbiketa-lan (ELGA, 2021), bai eta informazioa prozesatzeko lanei ere.

Kategoria horietan, kualifikazio txikia duten langileak daude, okerren ordaintzen dituztenak; hain zuzen ere, lanpostu-galera handiena kategoria horietan gertatzea espero da. Lan horiek batez ere emakumeek egiten dituztenez, zaurgarriagoak dira, eta industria horretatik kanporatzea ekar lezake, edota bigarren mailako postu periferiko batera baztertzea, erraz ordezka daitezkeen postu batera. Zerbitzu-jardueretan jarduten duten emakumeen lanpostuak % 52 gutxitu daitezkeela uste da (McKinsey, 2019).

Horrenbestez, adimen artifizialak turismoaren sektoreko genero-arrakala handitu dezake, bai enpleguari dagokionez, bai lan-baldintzei dagokienez, eta horrek lehendik zeuden desberdintasunak (bereizketa horizontala, soldata-arrakala, behin-behinekotasuna, partzialtasuna, etab.) areagotuko lituzke (Segovia-Pérez, M. eta beste batzuk, 2021, 2018). Nolanahi ere, Turismoa eta Hotelak ikasketetako ikasleen % 63 emakumeak direla kontuan hartuta, unibertsitateek eta beste hezkuntza-erakunde batzuek funtsezko zeregina izango dute egoera hori iraultzeko; hau da, prestakuntza egokia eman behar diete, adimen artifizialaren arloan integratu daitezen.

Ondorioak

Turismoaren sektorea bere azpisektore eta prozesu guztietan adimen artifiziala inplementatzen ari da, eta inplementatzen jarraituko du etorkizunean ere, zalantzarik gabe lehiarako abantailak baititu. Teknologia horren ezarpenak ondorio esanguratsuak izango ditu lan-profiletan, lantokiko lanaldian eta ordainsarien ereduetan, bai eta sektoreko etorkizuneko

enpleguak betetzeko langileek izan behar dituzten trebetasun, konpetentzia eta gaitasun digitaletan ere.

Emakumeak desparekotasun-egoera batetik abiatzen dira turismoaren sektorean, lan-baldintza okerragoak baitituzte kontratu-motei, behin-behinekotasunari, soldatei eta segregazio bertikal eta/edo horizontalari dagokienez. Gehiengoa dira zenbait lanpostutan, lanbidetan eta/edo zereginetan, eta horrek zaurgarriago egiten ditu adimen artifizialak sektorera ekar ditzakeen aldaketen ondorioen aurrean. Horregatik, turismoaren sektorea jasangarriagoa eta berdinzaleagoa izatea lortzeko bidean, emakumeek enplegu digital berrietan parte hartzea sustatu behar da, bai eta gaitasun digitalak garatzea bultzatu ere, esparru horretan genero-arrakala murrizteko. ■

Bibliografia

- Atrevia (2024): *La brecha de género en los puestos de liderazgo del sector turístico sigue siendo amplia*. ICEX Espainia, Esportazioak eta Inbertsioak. https://landing.atrevia.com/informe-alta-dirección-del-sector-turismo-en-los-medios?utm_campaign=Turismo&utm_source=facebook&utm_medium=social
- Hosteltur (2024): *5 nuevos perfiles profesionales para trabajar con IA en agencias de viajes*. Hosteltur. https://www.hosteltur.com/163305_5-nuevos-perfiles-profesionales-para-trabajar-con-ia-en-agencias-de-viajes.html
- Estatistikako Institutu Nazionala (EIN) (2024): *Encuesta de Población Activa (EPA), cuarto trimestre de 2024*.
- Imascono (d.g.): *Inteligencia artificial en el turismo: características y ejemplos*. Imascono. <https://imascono.com/inteligencia-artificial-turismo/>
- McKinsey eta Company (2019): *The future of work in America: People and places, today and tomorrow*.
- Nextur (2024): *El sector turístico no se verá tan afectado a nivel laboral por la adopción de la IA*. Nexotur. <https://www.nexotur.com/noticia/122417/nexotur/el-sector-turistico-no-se-vera-tan-afectado-a-nivel-laboral-por-la-adopcion-de-la-ia.html>
- Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) (2021): *Preparing the tourism workforce for the digital future* (OECD Tourism Papers No. 2021/02). OECD Publishing. <https://doi.org/10.1787/12345678>
- Turismoaren Mundu Erakundea (2021): *Informe mundial sobre las mujeres en el turismo* (2. argitalpena). <https://www.e-unwto.org/doi/book/10.18111/9789284422753>
- Randstad Research (2024): *La implantación de la IA pone en riesgo 2 millones de empleos en España en los próximos 10 años*. Randstad Research. https://dghqs88jwcgws.cloudfront.net/wp-content/uploads/2024/02/np_randstad_ia.pdf?x46175
- Segovia-Pérez, M.; Castro Núñez, R. B.; Santero Sánchez, R. eta Laguna Sánchez, P. (2019): «Being a woman in an ICT job: An analysis of the gender pay gap and discrimination in Spain», *New Technology, Work and Employment*, 35(1).
- Segovia-Pérez, M. eta Figueroa-Domecq, C. (2018): *Turismo y género: Una perspectiva inclusiva en la gestión turística*. UOC.
- Segovia-Pérez, M.; Rubio-Andrada, L.; Figueroa-Domecq, C. eta De la Fuente-Cabrero, C. (2021): «Facilitators and barriers to women's access to top management positions in the hospitality industry», *Journal of Human Resources in Hospitality & Tourism*, 20(3), 442–471.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (2023): «Turismoaren sektoreko enplegua Espainian: egoera eta joerak». <https://www.sepe.es/HomeSepe/eu/que-es-el-sepe/comunicacion-institucional/publicaciones/publicaciones-oficiales/listado-pub-mercado-trabajo/El-empleo-en-el-sector-del-turismo-en-Espana-situacion-y-tendencia.html>
- Turijobs eta RaizUp (2021): *Sombras y luces sobre la igualdad de género en el sector turístico. Visión general sobre el papel de la mujer en el sector*.
- UNWTO (2019): *The future of work and skills development in tourism*. World Tourism Organization.

María Jesús Such Devesa eta Patricia Aranda Cuéllar

Alcaláko Unibertsitatea

Sarrera

Gaur egungo hiriek, masa-turismoa existitzen denetik, paradoxa berritzaile bati egin behar diote aurre; izan ere, inoiz ez dira hain erakargarriak izan bisitarientzat, ez eta hain problematikoak bertan bizi direnentzat. Turisten joan-etorrien hazkunde hutsa baino, hirien turistifikazioak hiriaren beraren funtzioaren aldaketa kualitatiboa dakar, logika ekonomiko zorrotzaren eraginpean baitihardu. Adierazpen hori ulertzeko, datu egiaztagarri batetik abiatu behar dugu: 2023an, nazioarteko etorrerak 1.286 milioi turista baino gehiago izan ziren, eta pandemia aurreko mailen % 88 berreskuratu zen (TME, 2024). 2024rako estimazioaren arabera —oraindik egiaztatzeke baitago—, guztiz berreskuratu dira 2019ko mailak, eta % 11ko igoera izan da aurreko urtearekin alderatuta (TME, 2025). Hala ere, nazioarteko etorreren zifra globalak, deigarria bada ere, ez du berez adierazten fenomenoaren ezaugarri esanguratsuenetako bat, alegia, turismoak gero eta kontzentrazio handiagoa duela hiri handietan. Turismoaren Mundu Erakundearen (TME) datuen arabera, 1990 eta 2019 urteen artean, nazioarteko iritsiera guztien % 12 izatetik % 44 izatera igaro zen hiri-turismoa; horrenbestez, hiriek eskala egiteko gune edo herrialdeetara sartzeko ate huts izateari utzi zioten, eta kontsumo- eta esperientzia-helmuga nagusi bihurtu ziren. Aldaketa hori ez da zifretan soilik nabari: jarduera turistikoaren kontzentrazio handia islatzen du hirigunean, milioika bisitarik interakzio zuzena eta etengabea baitute hiriarekin.

Eta interakzio horrek benetako ondorioak ditu hiriak antolatzeke, erabiltzeko eta haietan bizitzeko moduan. Milioika bisitari etengabeko harremanean daude auzo eta hirigune historikoetako egoiliarrekin, eta, bien bitartean, hiriko baliabideek —etxebizitzak, espazio publikoak, zerbitzuak, mugikortasuna— sekula ezagutu gabeko presioa jasaten dute; hori dela-eta, hiri-inguruneak berrantolatzea halabeharrezkoa da, bisitarien interesei zein bertako bizilagunen beharrei erantzuteko. Beraz, hiri-turismoak egun duen adierazgarritasuna ez da soilik turismo-mota horren bolumenaren ondorio, hirietako oreka soziala,

ekonomikoa eta espaziala bizkor birkonfiguratzeko ahalmenaren ondorio baizik, auzo osoak globalizazio turistikoaren agertoki pribilegiatu —baina bereziki hauskor— bihurtzen baititu, historikoki zentzua ematen zieten bizitegi- eta komunitate-funtzioak pixkanaka ordezkaturak.

Etxebizitza hiri-gatazkaren epizentroa

Dinamika hori dela-eta, hiri-turismoaren ondorioak ez dira modu homogeneoan banatzen: aukera ekonomikoak dakartza sektore batzuetan, eta zenbait auzoren suspertzea, baina, beste sektore batzuetan, presio zuzena eragiten dute oinarritzko baliabideetan. Baliabide horietatik guztietatik, etxebizitza da tirabira handienak eragiten dituen arloa, hain zuzen ere, bi erabilera antagonikoren arteko lehiarako gai bihurtzen delako: aldi baterako ostatua bisitarientzat eta etxe iraunkorra tokiko biztanleriarentzat. Testuinguru horretan, onura turistikoa maximizatzerako bideratutako logika ekonomikoak aurrez aurre egiten du talka bertako etxebizitza duina eskuratzeko eta hari eusteko duten oinarritzko eskubidearekin. García-López eta beste batzuek (2019) egindako azterketaren arabera, Bartzelonan, Airbnb-ren iragarkietan izaten den % 1eko igoera bakoitzeko % 1,9 igotzen dira bizitegi-alokairuak, eta eragin hori % 7ra arte areagotzen da plataforma horretan eskaintzen diren etxebizitzaren dentsitate handieneko auzoetan. Datu horiek hain dira garrantzitsuak abstrakzioa ere gainditzen baita; hau da, etxebizitzari eutsi ahal izatearen edo auzoa uztera behartuta egotearen arteko aldea adierazten dute.

Fenomeno horrek, gainera, benetako presio jarraitua sortzen du etxebizitzaren merkatuan: erabilera turistikora bideratutako etxebizitza berri bakoitzak egoiliarrentzako eskaintza murrizteaz gain, eredu horren erakargarritasun ekonomikoa handitzen du, eta, horrenbestez, horrelako aldaketa berriak sustatzen dira, eta alokairuen garestitzea areagotzen da. Barronek eta beste batzuek (2020) eginko

ikerketan, zehaztasunez kuantifikatzen dute presio hori: 1.000 etxebizitzako auzo batean alokairu turistikoaren 100 iragarki berri % 5 igotzen dituzte bizitegi-prezioak epe laburrean, eta % 8an finkatzen dira bi urte geroago. Ondorioa argia da: mekanismo sistematiko baten aurrean gaude, etxebizitza turistiko berri bakoitza bizitegitik kanporatzeko faktore bihurtzen duena, auzoen bizitegi-funtzioa jabearen errentagarritasunaren eta aldi baterako bisitariaren esperientziaren mesedetan eraldatuta.

Alokairu turistikoko plataformen funtzioa eta profesionalizazioa

Hori dela-eta bihurtzen da logika anker. Turismo-alokairuaren eta bizitegi-alokairuaren arteko

errentagarritasun-diferentziala ez da aldi baterako desoreka bat, merkatuak bere kasa zuzenduko duena; hau da, kanporatze-prozesu sistematiko baten motorra da. Alokairu turistikoarekin hiru edo lau aldiz diru-sarrera gehiago lor ditzakeen jabeak egiturazko pizgarri bat du etxebizitza bizitegi-merkatutik ateratzeko. Alokairu turistikoaren pizgarri ekonomiko hori edozein jabe izan badezake ere, bizitegi-merkatua benetan eraldatzen duen dinamika ez da, nagusiki, partikular isolatu askoren ondorio; hau da, eragile profesionalizatuak gero eta pisu handiagoa izateak eragin du dinamika hori. Bartzelonan, Madrilan edo Lisboan, esaterako, datuek erakusten dute etxebizitza turistikoaren eskaintzaren zati handi bat enpresa kudeatzaileen, inbertitzaileen eta jabe anitzen esku dagoela; enpresa horiek hainbat iragarki biltzen dituzte, eta enpresa-logikarekin jarduten dute.

1. taula. Alokairu turistikoko etxebizitzaren jabeen kontzentrazioa Espainiako zenbait hiritan

Hiria	Jabe anitzen %	Jabe anitzen artean, 10 jabetza baino gehiago dituzten anfitrioiaren %	Profesionalizazio-dentsitate handieneko auzoa
Madril	% 67,4	% 53	Centro barrutia - % 82,4 jabe anitzak dira, eta % 52,8k 10 etxebizitza baino gehiago ditu.
Bartzelona	% 75,4	% 60,48	Dreta de l'Eixample - % 88,2 jabe anitzak dira, eta % 59,43k 10 etxebizitza baino gehiago ditu.
Malaga	% 75,6	% 52,17	Ez dago daturik
Sevilla	% 74,1	% 49,89	San Bartolomé - % 84,2 jabe anitzak dira, eta % 51,62k 10 etxebizitza baino gehiago ditu.

Iturria: geuk egina, InsideAirbnb-ren datuak oinarri hartuta (2025).

Anfitrioi bakoitzeko iragarki ugari buruz InsideAirbnb (2025) plataformatik lortutako datuen arabera, bizitegi-etxebizitzak erabilera turistikora bideratzeak eraldaketa nabarmena izan du hastapenekin alderatuta. Zenbait plataforma, Airbnb adibidez, ekonomia kolaboratiboaren paradigmekin sortu ziren, partikularrek, noizbehinka, bertan partekatzen baitzuten beren etxebizitza nagusia edo gela libre bat; gaur egun, ordea, errealitateak erakusten du plataforma horien erabilera enpresa-kontzentrazio handiagoko patroietara aldatzen ari dela. Espainiako hiriburu turistiko nagusi batzuetan,

iragarkien % 67 eta % 76 artean jabetza ugari dituzten anfitrioiak dagozkie, eta % 49 eta % 60 artean, berriz, hamar etxebizitza baino gehiago dituzten operadoreei. Kontzentrazio hori areagotu egiten da auzo jakin batzuetan: Madrilgo Centro barrutian, iragarki ugariak % 82,4 dira; Bartzelonako Dreta de l'Eixample auzoan, % 88,2; eta Sevillako San Bartolomé auzoan, % 84,2. Etxebizitza turistikoaren mapa berri horrek erakusten du hasierako eredu kolaboratiboa bazterrekoa dela jada, eta egungo agertokian enpresa-logika dela nagusi.

Bazterketa-mekanismoak: errenta, kanporatzea eta gizarte-sarearen eraldatzea

Ekonomia kolaboratibotik enpresen profesionalizazioranzko bilakaera horrek nabarmen aldatu du alokairuaren fenomeno hiri-tako auzoetan. Hasiera batean, errenta turistiko eskuratzeko aukeraren demokratizazioztat aurkeztu zen, eta, hala, edozein herritarrek zuen aukera gutxi erabilitako espazioak monetizatze eta lehen hotel-sektorerako mugatutako diru-sarrerak eskuratzeko; pixkanaka, ordea, errentak operadore espezializatuen esku pilatzeko logika nagusitu da (Cocola Gant & Gago, 2021; Amore eta beste batzuk, 2022; Gil & Sequera, 2022). Plataforma digitalek, errenta-mota horietarako sarbidea deszentralizatu beharrean, hiri-lurzorutik balioa lortzea maximizatzen duten higiezin zorroen kudeaketa profesionalizatu erraztu dute (Balampanidis eta beste batzuk, 2021).

Jarduera operadore handien eskuetan pilatzeak eragin estrukturala du: etxebizitzak bizitegi-merkatutik kentzean eta alokairu turistikora bideratzean, egoiliarrentzako eskaintza eskuragarria murrizten da, eta alokairuen prezioetan goranzko presioa egiten da eremu osoan. Egoiliarrek turistek ordainketa-ahalmenarekin lehiatu behar dute, ez soilik erabilera turistikora bideratutako etxebizitzengatik, baita gainerako bizitegi-eskaintza osoagatik ere, horien erreferentzia-zko prezioak gorantz egiten baitu turismoaren errentagarritasun alternatiboa dela eta.

Errentan oinarritutako lehia horrek gizarte-hautaketarako mekanismo bat sortzen du, sistematikoki jarduten duena. Sektore ahulenak —gazteak, errenta finkoak dituzten adinekoak eta diru-sarrera ertainak dituzten familiak— ezin dira lehiatu aldi baterako bisitarien ordainketa-ahalmenarekin, eta pixkanaka kanporatu egiten dituzte. Hala, bazterketa-dinamika bat da emaitza, hirien erdialdeko auzoetako bizilagunek bertan jarraitzea oztopatzen duena; horrenbestez, auzoak hustu egiten dira, eta bertako gizarte-aniztasuna apaltzen da.

Baina errenten egituraren eraldaketa ez da prezioa garestitzera mugatzen; hiri-espazioa ere berrantolatu egiten da funtzionalki. Errenta turistiko erreferentzia bihurtzen denean, tokiko ekonomia guztia errenta hori jasotzera bideratzen da: alokairu altuagoak ordain ditzaketen saltokiak, gastu-ahalmen handiagoko bezeroei arreta ematen dietelako; kontsumo azkarrera

bideratutako zerbitzuak; edota ostalaritzak eta kontsumo gastronomikoak erabateko nagusitasuna duten kaleak, bisitariak espero duten horretara egokituta (Loda eta beste batzuk, 2020). Errenta turistikoak, egoiliarrek kanporatzeaz gain, auzoaren funtzioa bera ere berregituratzen du.

Kanporatzea, gainera, ez da zuzeneko mekanismo ekonomikoen bidez soilik gauzatzen. Eraldaketa horiek beste dimentsio erabakigarri batzuetan ere eragiten dute, hain nabarmenak ez izan arren; hau da, hurbileko zerbitzuak galtzean eta ohiko bizi-erritmoak aldatzean, bideraezin bihurtzen da bertan bizitzen jarraitzea, baita etxegabetze formalik ez bada ere. Denbora igaro ahala, merkataritza-sare tradizionalaren ordezkari esperientzia turistikoari lehentasuna ematen dioten negozioak nagusitzen dira, auzoen eguneroko funtzionaltasuna kontsumoaren eta txandakatzearen logika turistikoaren mende jarrita.

Hiriguneen disneyfikazioa

Auzoek kontsumo turistikoekiko duten mendekotasuna eremu publikora ere hedatzen da; prozesu hori hiriguneen «ludifikazio» edo «disneyfikazio» gisa deskribatu izan da (Nofre eta Martins, 2017). Plazak, kaleak eta merkatuak kontsumo bizkorreko eremu bihurtzen dira; hala, sozializaziorako eta auzokideak elkartzeko leku gisa duten balioaren zati handi bat galtzen dute, eta bisitariaren esperientziarako dekoratu bihurtzen dira (Lovell eta Thurgill, 2021). Finean, nekez interpreta daitekeen edo gatazkatsua izan daitekeen ezaugarri kultural oro ezabatzen da, eta tokiko identitatea sinplifikatzen da, turistek errazago kontsumitzeko. Eraldaketa hori ez da azalekoa soilik: bizikidetzak aukerei eragiten die, komunitateko dinamikak ahultzen ditu, eta tokiko identitatearen eraikuntza aldatzen du.

Hain zuzen ere, horixe da prozesuaren dimentsio konplexuenetako bat: tokiko identitatearen galera ez da albo-ondorio huts bat, baizik eta hiria kontsumo-produktu bihurtzeari loturiko berezko osagai. Funtzio berri horretara egokitzeko, auzoko elementu kultural eta sozialak aukeratu, estilizatu edo birdefinitu egiten dira bisitarien espektatibetara egokitzeko, bertako biztanleen eguneroko esperientzia tradizioz egituratzen zuten erreferenteak ordezkatuta.

Hiria *commodity* bihurtzeko prozesu hori ez da berez sorturikoa; hau da, eragile gero eta antolatuagoen eta espezializatuagoen esku-hartzearen ondorioz bizkortzen da, bizitegi-etxebizitza aktibo turistiko errentagarri bihurtzen baitute. Merkatuaren bilakaera hutsa dirudien arren, formalizazio-prozesu bat du ezkutuan; sarritan, gainera, legez kanpo jarduten da, profesionalizazioak ez baitu bermatzen araudia beteko denik.

Tokiko erregulazioaren mugak testuinguru digital globaletan

Etxebizitza horien kudeaketa alojamendu turistiko gisa profesionalizatu izanak —horrek jardueraren «formalizazioa» ekar lezake— ez du esan nahi jarduera bera legezkoa denik (Colomb eta Moreira de Souza, 2024). Izan ere, kasu gehienetan, etxebizitza horiek ez dute turistak hartzeko lizentziarik izaten.

Lehen begiratuan, konponbide erraza duela pentsa liteke: nahikoa litzateke agintariek lege zorrotzak ezartzea, lizentziarik gabeko alojamendu turistikoak desagerrarazteko. Hala ere, ikuspegi horrek sinplifikatu egiten du bitartekotzako ekosistema digitalak dakarren konplexutasuna. Iraupen laburreko alokairuko plataformek —anfitrioien eta ostalarien arteko trukea komisio baten truke antolatzen duten enpresa teknologikoek— errotik eraldatu dute sektorea, ez soilik haren irismen globalagatik, baizik eta balioa sortzeko moduagatik, sareko efektuen eta datuen kudeaketa masiboaren bidez (Srnicek, 2017; Shaw, 2020). Arkitektura digital horri esker, publiko globalak edozein iragarki ikus dezake, baina funtsezko xehetasunak —jabearen benetako izena edo helbide zehatza, udalek zehapena jartzeko ezinbestekoak— ezkutuan daude administrazioentzat, erreserba ordaintzen den arte; batzuetan, gainera, orduan ere ez dira ikusten. Hori dela-eta sortzen dira udalen eta plataformen arteko datu-gerrak, informazio geolokalizatua partekatzeari uko egiten diotenean, legez kanpoko eskaintza zigortzeko ezinbestekoa baita (Hoffman eta Heisler, 2020).

Jarduteko modu hori ekosistema zabalago baten parte da, literaturan «real-estate plataforma» izendaturikoaren parte (Fields eta Rogers, 2021; Shaw, 2020); izan ere, ekosistema horretan, higiezin salerosketa, kudeaketa eta inbertsioa gero eta modu

automatikoagoan eta kontzentratuagoan egiten da. Emaizta eragile handien oligopolio bat da; eragile horiek datuak kontrolatzen dituzte, eta jabetzan oinarritutako estrategia espekulatiboak bultzatzen (Boeing eta beste batzuk, 2021; Fields, 2022). Sektorea formalizatu beharrean, Ferrerik eta Sanyalek (2022) «informalizazio digitala» deritzotena elikatzen du ingurune digital horrek: eremu gris berriak agertzen dira, non araudiaren eraginkortasuna ahuldu egiten den eta etxebizitza-merkatuaren gainbegiratze publikoa gero eta mugatuagoa bihurtzen den, baita legeak argiak eta zorrotzak diren testuinguruetan ere.

Praktikan, abantailaz jokatzen duen aurkariari egin behar diote aurre udalek. Plataformek nazioz haraindi jarduten dute, arin aldatzen dituzte sistemak, eta, batez ere, haiek gainbegiratzeko behar den informazioa atxikitzen dute (Colomb eta Moreira de Souza, 2024). Araudietan izaten diren traba jarraituak ez dira huts isolatuak; hiri-errentak eskuratzeko diseinatutako pizgarri jarraituen isla dira, tokiko eskumenak gainditzen dituztenak.

Turismoak gehiegi esplotatutako hiriek, bisitari-kopuruaren hazkundearen aurka borrokatzeaz gain, agente digitalen bultzatutako hiri-turistifikazioaren eredu berezi horren aurka egin behar dute; agente horiek, berritzaileak eta enpresa mailan oso errentagarriak izan arren, desoreka sakonak eragiten dituzte. Desoreka hori murrizteko, enpresa horiek biltzen duten datu-emaria hiri-kudeaketako baliabide publiko bihurtu behar da, hau da, «datuetan oinarritutako haien boterea» hiriaren zerbitzurako baliabide bihurtu behar da (Sadowski, 2020; Söderström eta Mermet, 2020).

Dena den, lankidetzeta-maila hori lortzea oso zaila da, tokiko agintarien negoziazio-ahalmena indartuko duten mekanismorik izan ezean. Zentzu horretan, behin eta berriz errepikatu da premiazkoa dela Europa-mailako arau-esparru bat ezartzea, kontrol-instantziekiko datu-trukea behartuko duena, herrialde kide bakoitzean aplikatzen dela ziurtatuta, tokiko erregulazioek esparru horretan jardun ahal izan dezaten.

Horregatik, konponbidea ez da dirudien bezain erraza: gobernantza-modu berriak behar dira, gardentasunaren alde egingo dutenak, informazioa eta datuak eskuratzeko trabak gaindituko dituztenak, eta

herritarren eskubideen babes eraginkorra bermatuko dutenak bai hiriguneei bai bizitegiei dagokienez.

Hiri-gobernantzaren eredu berrietarantz

Horregatik guztiagatik, hiri-turistifikazioak planteatzen dituen erronkei ezin zaie heldu tresna teknikoak edo sektorialak soilik baliatuta. Esparru kontzeptual eta politikoak behar dira, hiriaren funtzioa eta zentzua berrikusiko dutenak; hau da, etekinen banaketa birpentsatu behar da, komunitateen parte-hartzea erabaki-hartzeetan, eta etxebizitzarako eta hiri-bizitzarako eskubideari ematen zaion —edo ez zaion— lehentasuna, errentagarritasun turistikoaren logikaren gainetik.

Esparru horretan, justizia turistikoa deritzonak eztabaida bideratzea proposatzen du, hau da, fluxuen kudeaketatik etekinen birbanaketara eta hiri-erabakien demokratizaziora, turismoa indar sozialtzat ulertuta, eta ez hainbeste industria erauztaile hustzat (Higgins-Desbiolles, 2006). Hiri batek zenbat turista har ditzakeen galdetu beharrean, beste gai hauetan jarri behar da arreta: nork kontrolatzen dituen garapen turistikoari buruzko erabakiak, nola banatzen diren haren onurak, eta zer mekanismok bermatzen duten talde sozial guztiek hiriaz gozatzeko eskubidea izatea, Jamalek (2019) planteatzen duenaren ildotik.

Bestalde, gobernantza egokitzaileak kudeaketa-sistema malguak proposatzen ditu, politikak fenomenoaren bilakaeraren eta atzeraelikadura sozialaren arabera doitu ditzaketenak. Horren baitan sartzen dira adierazle dinamikoak, presio turistikoa, auzoko egoera soziala eta erakundearen erantzuteko ahalmena lotzen dituztenak, aurrez zehaztutako atalaseak gaingiditzean neurri zuzentzaileak automatikoki aktibatzeke. Baina ikuspegi horiek, teknikoki sofistikatuak izan arren, ez dira nahikoak izango arazoaren sustraiari heltzen ez badiote, alegia, hiri-espazioa merkantzia bihurtzeari.

Horregatik, funtsezko arazoa ez da teknikoa, politikoa baizik: prest al gaude errentagarritasun turistikoaren logika bizigarritasunaren eta justizia sozialaren helburuen mende jartzeko? Aniztasuna eta inklusioa lehenetsiko dituen zaintzaren etika integratzeko (Guia, 2020)? Hori egingarria da, baina onurak birbanatzeko mekanismoak behar dira, bai

eta etxebizitza eskuragarriaren babes aktiboa eta hiri-erabakietan herritarrek parte hartzeko benetako bitartekoak ere. Adibidez, konpentsazio turistikorako funtsek, erabilera turistikoaren aurka blindatutako etxebizitza-kooperatibek edo erabakitzeko benetako ahalmena duten auzo-kontseiluek egoiliarren, bisitarien eta enpresa-interesen arteko boterea orekatu dezakete.

Azken batean, hiri-turistifikazioak kudeaketa turistikoaz harago doan dilema jartzen digu aurrean: zer nolako hiriak nahi ditugu XXI. menderako? Hau da, askotariko komunitateentzako etxe eta kulturarteko topagune diren hiriak, edota parke tematiko bihurtutako hiriak, non eguneroko bizitza kontsumoaren ikuskizunaren mende geratzen den. Galdera horren erantzunak, hiri-turismoaren etorkizuna ez ezik, hiri-bizikidetzaren eredu bera zehaztuko du ekonomia globalizatu batean. Eta beraz, erantzun horrek hausnarketa sakona eta partekatua merezi du, oraindik gure esku baitago. ■

Bibliografia

- Amore, A.; de Bernardi, C. eta Arvanitis, P. (2022): «The impacts of Airbnb in Athens, Lisbon and Milan: a rent gap theory perspective», *Current Issues in Tourism*, 25(20): 3329– 3342.
- Balampanidis D.; Maloutas T.; Papatzani E. eta Pettas D. (2021): «Informal urban regeneration as a way out of the crisis? Airbnb in Athens and its effects on space and society», *Urban Research & Practice*, 14(3): 223– 242.
- Barron, K.; Kung, E. eta Proserpio, D. (2021): «The effect of home-sharing on house prices and rents: Evidence from Airbnb», *Marketing Science*, 40(1), 23-47.
- Boeing, G.; Besbris, M.; Wachsmuth, D. eta Wegmann, J. (2021): «Tilted platforms: rental housing technology and the rise of urban big data oligopolies», *Urban Transformations*, 3(1), 6. <https://doi.org/10.1186/s42854-021-00024-2>
- Cócola Gant, A. eta Gago, A. (2021): «Airbnb, buy-to-let investment and tourism-driven displacement: a case study in Lisbon», *Environment and Planning A*, 53(7): 1671– 1688.
- Colomb, C. eta Moreira de Souza, T. (2024): «Illegal short-term rentals, regulatory enforcement and informal practices in the age of digital platforms»,

- European Urban and Regional Studies*, 31(4), 328–345.
- Ferreri, M. eta Sanyal, R. (2022): «Digital informalisation: Rental housing, platforms, and the management of risk», *Housing Studies*, 37(6), 1035–1053.
- Fields, D. eta Rogers, D. (2021): «Towards a critical housing studies research agenda on platform real estate», *Housing, theory and society*, 38(1), 72–94.
- Fields, D. (2022): «Automated landlord: Digital technologies and post-crisis financial accumulation», *Environment and Planning A: Economy and Space*, 54(1), 160–181.
- García-López, M. À.; Jofre-Monseny, J.; Martínez-Mazza, R. eta Segú, M. (2020): «Do short-term rental platforms affect housing markets? Evidence from Airbnb in Barcelona», *Journal of Urban Economics*, 119, 103278. <https://doi.org/10.1016/j.jue.2020.103278>
- Guia, J. (2021): Conceptualizing justice tourism and the promise of posthumanism. *Justice and Tourism* (370.-387. or.). Routledge.
- Gil, J. eta Sequera, J. (2022): «The professionalization of Airbnb in Madrid: far from a collaborative economy», *Current Issues in Tourism*, 25(20): 3343–3362.
- Higgins-Desbiolles, F. (2006): «More than an «industry»: The forgotten power of tourism as a social force», *Tourism management*, 27(6), 1192–1208.
- Hoffman, L. M. eta Heisler, B. S. (2020): *Airbnb, short-term rentals and the future of housing*, Routledge.
- Inside Airbnb (2025): Airbnb plataformaren Madril, Bartzelona, Málaga eta Sevilla hirietako datuak (Espainia). Azken sarrera 2025eko uztailaren 25ean (<http://insideairbnb.com/get-the-data/>).
- Jamal, T. (2019): «Tourism ethics: A perspective article». *Tourism Review*, 75(1), 209–214. <https://doi.org/10.1108/TR-05-2019-018>
- M. Loda, S. Bonati eta M. Puttilli 2020: «History to eat. The foodification of the historic centre of Florence», *Cities*, 103: 102746. <https://doi.org/10.1016/j.cities.2020.102746>
- Lovell, J. eta Thurgill, J. (2021): «Extending hot authentication: Imagining fantasy space», *Annals of Tourism Research*, 87, 103138.
- Nofre, J. eta J.C. Martins (2017): «The Disneyization of the neoliberal urban night», in P. Guerra eta T. Moreira (editoreak): *Keep it simple make it fast! An approach to underground music scenes* (113.–124. or.). Porto: University of Porto Press.
- Turismoaren Mundu Erakundea (TME) (2024): *Barómetro OMT del Turismo Mundial y anexo estadístico, enero 2024*. <https://www.e-unwto.org/doi/abs/10.18111/wtobarometeresp.2024.22.1.1>
- Turismoaren Mundu Erakundea (TME) (2025): *Barómetro OMT del Turismo Mundial y anexo estadístico, enero 2025*. <https://www.e-unwto.org/doi/abs/10.18111/wtobarometeresp.2025.23.1.1>
- Sadowski, J. (2020): «The internet of landlords: Digital platforms and new mechanisms of rentier capitalism», *Antipode*, 52(2), 562–580.
- Shaw, J. (2020): «Platform real estate: theory and practice of new urban real estate markets», *Urban Geography*, 41(8): 1037–1064.
- Söderström, O. eta Mermet, A. C. (2020): «When Airbnb sits in the control room: Platform urbanism as actually existing smart urbanism in Reykjavík», *Frontiers in Sustainable Cities*, 2, 15.
- Smicek, N. (2017): *Platform Capitalism*. Cambridge: Polity Press.

Idurre Ostolaza Garate

Basquetour - Turismoaren Euskal Agentzia. Lehiakortasun Saila. Berrikuntza, Área de Competitividad. Innovación

Andrés Fernández Alcantud

Berrikuntzaren eta Teknologia Turistikoen Kudeaketarako Estatuko Merkataritza Sozietatea, SA (SEGITTUR), Espainiako Gobernuko Turismoko Estatu Idazkaritza

Sarrera

Turismoa, XXI. mendeko ekonomiaren sektore nagusietako bat izateaz gain, fenomeno global eta soziala da, hazkunde esponontziala izan duena, batez ere azken hamarkadetan. Fenomeno konplexua da, heterogeneoa eta zeharkakoa, eta etengabeko eboluzioan dago. Horregatik, diziplina anitzeko ikuspegitik aztertu behar da.

NBE Turismoaren arabera, turismoa fenomeno sozial, kultural eta ekonomikoa da, eta pertsonak beren ohiko ingurunetik kanpo dauden herrialde edo lekuetara lekualdatzea dakar, arrazoi pertsonalak, profesionalak edo negozioekin loturikoak direla tarteko. Pertsona horiei bidaiari esaten zaie (turistak edo txangozaleak izan daitezke; egoiliarak edo ez-egoiliarak).

Turismoaren jarduerak diru-sarrera turistikoak sortzen ditu helmugetan. Lurralde batean garatzen den fenomeno da, eta inplikaturako alderdi guztiek dute kasuan kasuko lurraldearen etorkizuna bermatzeko ardura, esparru sozial, kultural edo ekonomikoa batetik, edota ingurumen-esparru batetik. Horregatik, funtsezkoak dira lidergo politikoa, inplikaturako eragile sozial eta ekonomikoen parte-hartzea, eta biztanleria egoiliarren nahiz bisitarien inplikazioa. Horri guztiari esker lortuko da turismoaren garapen iraunkorra, lurraldean duen eragina murrizteko gai izan dadin, etorkizunera begira babestuz, eta, horrela, etorkizuneko belaunaldientzat ere aurrerabiderako aukera saihestezin izan dadin. Izan ere, antzinako esaera zahar batek dioen bezala, «**Lurra ez da gure gurasoen herentzia, gure seme-alaben mailegua baizik**».

Baina helmugako turismo-kudeaketa jasangarriaren eredu hori ezin da egun batetik bestera ezarri. Helmugak ikuspegi kontinuista izan behar du, estrategia argia eta lan-egitura finkatua, eta ibilbide profesionalizatua izan behar du turismoaren sektorean ere.

Eta hori guztia, egokitzen ari den ingurune batean, eta zenbait erronka jomugan izanik: pertsona guztientzako turismoa, fluxuen banaketa masifikazioaren aurrean, kontsumitzeko moduaren aldaketa, digitalizazioaren agerpen nabarmena, etab. Pandemia iraganeko kontua dela eta turismoa indartsu berreskuratzen ari dela dirudien une honetan, are garrantzitsuagoa da etorkizunari begirako ikuspegi hori gogoan izatea.

Helmuga turistiko adimenduna

Gaur egungo testuinguruan, oraingo turismoaren garapen-mailarekin bat etorritik eta turismoaren heterogeneotasuna, zeharkakotasuna eta kanpo-faktoreekiko sentsibilitatea kontuan hartuta, ezinbestekoa da berrikuntza, teknologia eta ezagutza elementu erraztailetzat hartzea, turismoaren garapen arduratsu eta jasangarria, irisgarritasun unibertsala eta helmugaren lehiakortasunaren hobekuntza lortzeko. Turismoaren sektorearen konplexutasunak, gainera, gobernantza-eredu on bat eskatzen du, kudeaketa turistiko eraginkorra, gardena eta parte-hartzailea artikulaturako duena, bai eta lurralde turistikoan eskumenak dituzten eragile parte-hartzaile guztien arteko koordinazioa ere.

Helmuga Turistiko Adimendunaren ereduak plan hauek ditu oinarri: Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2012-2015 Turismo Plan Nazional eta Integrala, Espainiako Agenda Digitala, eta Hiri Adimendunen eta Lurralde Adimendunen Plan Nazionala; horrez gain, lotura du beste hauekin: 2030 Agenda; Hiri Agenda; Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana; 2050 Espainiako Estrategia Nazionala; eta 2030 Turismo Jasangarriaren Estrategia. Gero eta agenda publiko gehiagotan du isla, eta helmugei laguntzeko tresna propioak garatzen ari dira, gainera.

Azpimarratzekoa da NBE Turismoak berak aitorturikoa, hauexek, zehazki: «helmuga turistiko adimendunak funtsezkoak dira garapen jasangarriko,

eta, turismoaren sektorerako hobekuntzak sustatzea ez ezik, gizarte osorako hobekuntzak ekartzen laguntzen dute». Turismoaren kudeaketarako tresna erresiliente bat inplementatzea da kontua, «**Helmuga Turistiko Adimendunen eredua**» deritzona.

Turismo jasangarri baten aldeko apustu sendoa da, eta, bertan, karga-ahalmena, edukierak, ekonomia zirkularra, baliabideen erabilera efizientea, klima-aldaketaren aurkako borroka, biodibertsitatearen kontserbazioa, kulturaren sustapena, mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna, tokiko ekonomiaren suspertzea, eta saltoki, tokiko ekoizle eta enpresa turistikoekiko babesa aldaketarako bide dira, egoiliarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Helmuga Turistiko Adimendunaren ereduaren metodologia eta ezarpena Turismoko Estatu Idazkaritzak sustatzen du, SEGITTUR (Berrikuntzaren eta Teknologia Turistikoen Kudeaketarako Estatu Merkataritza Sozietatea) politika turistikorako tresnaren bidez, tokiko eta eskualdeko erakundeekin lankidetzan, eta erkidegoetako gobernuen eta probintzietako diputazioen, *consells* deritzen erakundeen eta uharteetako kabildoen laguntzarekin.

SEGITTURek gidatu zuen lehiakortasuna, kudeaketaren efizientzia eta turismoaren garapena

hobetzeko eredu berri baten zehaztapena mundu mailan —alegia, Helmuga Turistiko Adimenduna (HTA)—, gobernantzan eta erantzukidetasun turistikoan oinarrituta. SEGITTURek argitaratutako Helburu Turistiko Adimendunaren Liburu Zuriaren arabera (2015), HTA «helmuga turistiko berritzailea da, abangoardiako azpiegitura teknologiko baten gainean finkatua, lurralde turistikoaren garapen jasangarria bermatzen duena, guztiontzat irisgarria, bisitariaren eta ingurunearen arteko interakzioa eta integrazioa errazten dituen, eta bisitariak helmugan duten esperientziaren kalitatea handitzeaz batera egoiliarren bizi-kalitatea hobetzen duena».

Definizio horretan biltzen dira HTA baten oinarriak: **Gobernantza, Berrikuntza, Teknologia, Jasangarritasuna eta Irisgarritasuna**, etengabeko hobekuntza-prozesu baten bidez lehiakortasuna bermatuko duen garapen-estrategiaren oinarriak. Kudeaketa-eredu horrek, gainera, turismo-jardueraren zeharkakotasuna eta helmuga bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak hartzen ditu kontuan. Kudeaketa hori abian jartzeko, beharrezkoa da turismo-sektore pribatuak, administrazio publikoek, eta sektore akademikoak nahiz I+G+Bko erakundeek, besteak beste, elkarrekin jardutea.

1. irudia. Helmuga Turistiko Adimendunaren ezaugarriak



turria: SEGITTUR

HTA ereduaren metodologia da adierazleena sistema bat aplikatzea lurralde-eremu batean, eremu horretan eskumenak dituen erakunde kudeatzaile bat egonik, eta, horren ondorioz, egoeraren diagnostikoa lortzea eta helmuga HTA bihurtzera bideratutako ekintza-planak egitea.

Helmuga bati Helmuga Turistiko Adimendunaren bereizgarria ematen zaio HTA metodologian aurreikusitako baldintzen % 80 edo gehiago betetzen baditu. Estatuan, diagnostikatutako 220 helmugetatik 9k soilik lortu dute bereizgarri hori. Hauek dira aipatutako erreferente horiek: Bartzelona, Bilbo, Benidorm, Donostia, Gijón/Xixón, Lloret de Mar, Santander, Valentzia eta Gasteiz. Gainerako helmugak % 20 eta % 80 artean daude, HTA bihurtzeko bidean aurrera eginez.

Tokiko erakunde kudeatzaile bat (udala, adibidez) HTA bihurtzeko ekintza-plana gauzatzen hasten denean, behar-beharrezkoa da tokiko sektore turistiko pribatuaren inplikazioa, baldintza edo adierazle askok sektore pribatuaren jarduerari eragiten baitiote, hala nola, eskaintza turistikoa kalitate-sistemetara atxikitzea, negozio turistikoen ingurumen-kudeaketa, ekonomia zirkularra eta energia berri-energiaren erabilera.

HTA ereduaren eboluzionatzen ari da, 2015az geroztik batez ere, orduan gauzatu baitzen ekimena *Helmuga Turistiko Adimendunaren txostena: etorkizuna eraikitzen liburu zuria* argitaratuta. 2015etik 2017ra bitartean, hainbat proiektu pilotu egin ziren estatuan. 2018an, HTA ereduaren ezarpena zabaltzen hasi zen Espainian, hainbat helmuga turistiko garrantzitsutan (hirikoak, landakoak, barnealdekoak, itsasokoak...) probatutako lehen bertsio metodologikoarekin. 2019an, HTA Sarea sortu zen, eta, 2020an, pandemiari aurre egiteko, metodologia birformulatu eta eguneratu zen; hain zuzen ere, 2022an amaitu zen prozesu hori, eta SEGITTUR eta BASQUETOURL erakundeek lan bateratua egin zen, udaletako HTA metodologia eskualde eta mankomunitateetara egokitzeko.

Gaur egun (2025), metodologia jada finkatuta dagoenez, urrats sendoz doa aurrera lurralde-mailako ezarpena gero eta helmuga gehiagotara zabaltzen ari baita. 215 egoera-diagnostiko eta ekintza-plan baino gehiago egin dira Espainiako eta Iberoamerikako helmuga turistikoak HTA bihurtzeko (Kolonbia, Mexiko, Ekuador, Uruguai, Paraguai, Peru, Dominikar

Errepublika, Brasil, Kuba eta Argentina, besteak beste). Hau da, turismo adimendunaren eta, beraz, jasangarritasunaren etengabe hobetzeko prozesuak inplementatu dira helmugetan, adierazleak neurtzeko eta haiek hobetzeko ekintza-planak aplikatzeko esker.

Hauek dira HTA ereduaren helburu nagusiak:

- Helmuga turistikoen gobernantza eta berrikuntza hobetzea.
- Turismoaren jasangarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzea.
- Enpresa eta helmuga turistikoen eraldaketa digitala bultzatzea.
- Guztientzako irisgarria den turismoa sustatzea.
- Lehiakortasuna handitzea, bertako baliabide turistikoak hobeto aprobetxatzeko eta beste baliabide batzuk identifikatu eta sortzeko esker.
- Ekoizpen- eta merkaturatze-prozesuen eraginkortasuna hobetzea.
- Helmugaren garapen jasangarria bultzatzea hainbat alderditan: ingurumen-alderdia, alderdi sozioekonomikoa eta soziokulturala.
- Bisitariaren egonaldiaren kalitatea eta egoiliarren bizi-kalitatea hobetzea.
- Turismo-estrategia lurraldearen dinamizazio ekonomikorako oinarri bihurtzea, haren eragin positiboak epe luzerako bermatuta.

HTA baten ikuspegi integratzaileak turismoaren heterogeneotasuna eta kanpo-faktoreekiko mendekotasuna hartzen ditu kontuan, eta administrazioaren eskumen-arlo guztien artean zeharkako ekintza-neurriak abiaraztea dakar, ez soilik turismoaren arloan. Hori dela eta, beharrezkoa da koordinazioa, garapen turistikorako edozein planetako neurrien efizientzia maximizatzeko, bai eta baliabide publikoak optimizatzeko ere. Beraz, HTA ereduak tresna bat eskaintzen die helmugeta eta sektore turistiko pribatuari, munduko ingurune ekonomiko, sozial eta teknologiko berriak planteatzen dituen erronka eta eraldaketei arrakastaz aurre egiteko, turismoaren garapenean emandako urteetan lortutako esperientzia txertatuta.

SEGITTURen arabera, HTA ereduaren barruan, jasangarritasunak gai izan behar du epe luzera bideragarriak izango diren jarduerak ekonomikoak bermatzeko, agente guztiei ongi banatutako onura sozioekonomikoak ekarriko dizkietenak (enplegu egonkorretarako aukerak izatea, egoiliarrentzako diru-sarrerak eta gizarte-zerbitzuak lortzea,

pobrezia murriztea...), etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko izango dituzten ahalmenak errespetatuta.

HTA ereduaren jasangarritasun-ardatzak hauen alde egiten du: benetakotasun soziokulturala errespetatzea eta kontserbatzea, aktibo kulturalak baliabide eta erakargarri turistiko gisa behar bezala balioetsita; ingurumen-baliabideen erabilera optimoa egitea, funtsezko prozesu ekologikoei eutsiz eta helmugako baliabide naturalak eta aniztasun biologikoa kontserbatzen lagunduz; tokiko biztanleentzat ongizate sozial eta ekonomiko oparoa lortzea, fluxu turistikoen presioak zerbitzu publikoen erabileran eragin negatiborik izan gabe.

HTA ereduak **laguntzarako tresnak** ditu, hala nola Helmuga Turistiko Adimendunen Sarea, Dataestur eta Adimen Turistikoaren Sistema.

Helmuga Turistiko Adimendunen Sarea 2019an sortu zuten, eta helmugen topagune izateaz gain, euskarri bat da, kudeaketa-eredu adimenduna eta garapen turistiko jasangarriagoa lortzeko eraldaketa-prozesuan helmugei laguntzeko. Funtsezko jardunbidea da helmugei balioa emateko eta, diagnostikoa oinarri hartuta, proiektuen jarraipena egiteko; horrela, kohesioa, jardunbide egokien trukea eta helmugen arteko sinergien aprobeixamendua erraztuko da. Gaur egun, HTA Sareak hiru kide-mota ditu: titularrak (destinoak/tokiko erakundeak), instituzioak (erakundeak/elkarteak...) eta laguntzaileak (sareko kideekin proiektuak/lanak dituzten enpresak). Sarea 57 kideekin eratu zen, baina 10 aldiz handiagoa izatera iritsi da. Hala, gaur egun, 2025eko udan, 691 kide osatzen dute HTS Sarea; horietatik 501 kide titularrak dira, 92 kide instituzioak, 91 enpresa laguntzaileak eta 7 nazioarteko begiraleak.

Nabarmentzekoa da HTA Sareko kide diren EAEko helmuga guztiek dutela HTA diagnostikoa eta ziurtagiria; horrez gain, Bilbo, Donostia eta Gasteiz eskubide osoko HTA duten Estatuko bederatzi helmugetako hiru dira.

Kudeatzaile turistikoei webgune bat jartzen zaie eskura, kontsulta eta analisirako: [Dataestur](#), Espainiako turismoaren iturri eta datu garrantzitsuenak biltzen dituen. Bertan, Espainiako turismoaren datu garrantzitsuen aginte-koadroak eta bistaratzeak

jasotzen dira, baita txosten analitikoak, datu-mapako bisoreak, eta eskuragarri dauden datu-iturriak ulertu eta erabiltzeko laguntza ere.

Era berean, SEGITTURek turismoari buruzko informaziorako eta ezagutzarako sarbidea ematen die HTA Sareko toki-erakundeei; bertan biltzen dira udalerrietarako eskuragarri dauden datu-iturri guztiak. **Helmugako Adimen Turistikoaren Sistema (Helmugako ATS)** da. Udalerri-mailan, helmuga bakoitzaren datuetarako sarbide bakarra da. Sisteman, udalerri bakoitzeko datuen bistaratze analitikoak eta Dataestur aplikazioan argitaratutako adierazle nagusiak eskaintzen dira, baita intereseko informazio osagarria ere, helmugako kudeatzaileentzat soilik eskuragarri dagoena. Nabarmendu behar da ATS-Euskadi —SEGITTUR eta BASQUETOURL erakundeen lankidetzaren emaitza— erreferentziazko eta punta-puntako sistema dela ezagutzan eta adimen turistikoan.

Turismoaren kudeaketarako tresna horiek Estatu osoan daude ezarrita, baita Latinoamerikako zenbait herrialdetan ere.

Euskadiko aplikazio praktikoa

Euskadi erreferentea da HTA ereduaren ezarpenean, aspalditik ari baita bere lurraldean garapen turistiko arduratsua lantzen, baita eredu bera existitu baino lehenagotik ere.

Sarreran nabarmendu denez, kudeaketa-eredu jasangarriaren eredu hori ezin da egun batetik bestera ezarri. Helmugak ikuspegi kontinuista, estrategia argia eta lan-egitura finkatua izan behar ditu, eta ibilbide profesionalizatua turismoaren sektorean.

Ildo horretan, **BASQUETOURL**-Turismoren Euskal Agentzia, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzaren sozietate publikoa (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila - Eusko Jaurlaritza), duela ia bi hamarkada sortu zen, Euskadi sustatzeko behar diren sustapen-, merkaturatze- eta publizitate-ekintzak gauzatzeko, bai Estatuko eta nazioarteko merkatuetan, merkatuaren egoeraren arabera lehentasunezkoak eta estrategikoak direnetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-arloan eskumena duen Jaurlaritzako organoak agindutako foro eta

lekuetan; horrez gain, Basquetourren helburua izan da Euskadiko turismo-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko behar diren ekintzak bultzatzea, abian jartzea eta gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-arloan eskumena duen gobernu-organismoak diseinatuta eta planifikatuta.

Euskadiko sektore turistikoaren lehiakortasuna hobetzeko ekintza horiek behar bezala ezartzeko, bai helmugetan, bai sektoreko enpresetan, funtsezkoa izan da **Turismoaren arloko Euskadiko Lurralde Garapenerako Eredu** egokia izatea.

Euskadin eratutako Lurralde Garapenerako Eredu hori arlo publikoaren eta pribatuaren inplikazio- eta lankidetzaren esparru formalizatua da, egiturazkoa ez ezik, funtzionamendu-mekanismoen definizioa ere aintzat hartzen duena. Profesionalizazio-maila eta asoziazio-antolakuntza handiagoez, baldintzak sortzen dira erakundeekiko mendekotasuna gero eta txikiagoa izan dadin, eta sektoreak gero eta modu autonomoagoan eta eraginkorragoan garatu ahal izan dezan turismoaren kudeaketa.

Turismo-lankidetzarako ente edo turismo-kudeaketarako ente bakoitzak (aurrerantzean TLE/TKE) gutxienezko foro jakin batzuk ditu, eta, modu osagarrian, bere lanak behar bezala egiteko egokitzat jotzen dituen beste lan-mahai eta/edo -gune guztiak definitu ahal izango ditu.

Gaur egun, Euskadin, 28 erakunde (TLE/TKE) aritzen dira BASQUETOUREkin eta, beraz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarekin lankidetzaren estuan, plan estrategikoan zehaztutako politikak ezartzeko.

TLE/TKE horiek langile kualifikatuak dituzte, aurrez zehaztutako profilarekin, eta BASQUETOUREn etengabeko prestakuntza jasotzen dute, proiektu estrategiko guztiei heltzeko. Prestakuntza horrek bi helburu ditu: batetik, turismo-arloko profesionalak kualifikatzea, beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten, eta, bestetik, langile guztien bizi osoko ikaskuntza bultzatzea.

TLE/TKE-ek, besteak beste, lehiakortasuna hobetzeko proiektuak kapilarizatzen dituzte (kudeaketa, irisgarritasuna, digitalizazioa, berrikuntza eta jasangarritasuna) turismoaren sektoreko balio-kate osoan —hau da, Euskadiko erakunde publiko

zein pribatuaren (enpresak eta helmugak)—, modu homogeneo eta ordenatuan, Euskadiko turismoaren sektore osoaren zuzeneko inplikazioarekin.

2019az geroztik, jada 15 helmugak dute Euskadin **HTA metodologiaren** ziurtagiria: Donostia, Gasteiz, Goierri, Uribe, Arabako Errioxa, Bidasoa, Bilbo, Busturialdea-Urdaibai, Debagoiena, Getxo, Arabako Ibarak, Debarrena, Enkarterri-Meatzaldea, Arabako Lautada eta Portugalete. Horietako hiru eskubide osoko HTA dira, HTA metodologiaren % 80 gaindituta (Donostia, Bilbo eta Gasteiz). Beste bost helmuga bereizgarria jasotzeko prozesuan daude (Aiaraldea, Gortebealde Araba, Gortebealde Bizkaia, Urola Erdia eta Urola Garaia); eta, horrela, etengabe ari dira aurrera, egungo 28 helmugek proiektuan parte hartzeko eta beren lanaren aintzatespen gisa bereizgarria jasotzeko aukera izan dezaten.

Hori guztia **Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren** esparruan, haren azken helburua izanik **2030 Agendako 17 GJHak** betetzea. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren dokumentua sinatu zuen 2019an, Donostian eginiko ekitaldi publiko batean. Dokumentu horretan, ekintzen eta konpromisoen katalogo bat dago, eta helburua da eragile turistiko guztiek gizarte-erantzukizunak hartzea eta ingurumen- eta ekonomia-jasangarritasuna txertatzea eguneroko jardunean. Horretarako, Turismoaren Mundu Erakundeak garaturiko Munduko Kode Etikoaren printzipioak txertatzen eta egokitzen ditu, baita Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak ere.

2. irudia. Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa (logoa)



Iturria: BASQUETOUR.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren garapenean, euskal lurraldeen berezitasunak eta gure kulturaren berezko elementuak txertatzen dira. Garapen horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskadiko turismoaren sektoreko eragilean, Turismoko Estatu Idazkaritzaren eta Turismoaren Mundu Erakundearen lankidetzaren eta ekarpenak izan ditu.

2019az geroztik, Euskadin, enpresak/helmugak bertara atxikitzea sustatzen ari dira, jasangarritasunarekin eta erantzukizunarekin duten konpromisoa erakusteko. Hala, enpresek/helmugek beren borondatez ekimenarekin bat egin ondoren, Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan ezarritako printzipioak betetzeko konpromisoa hartuko dute.

Horretarako, enpresek nahiz helmugek prestakuntzaren bidea hartu behar dute, sentsibilizatzeko eta Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan zehaztutako printzipioak bertatik bertara ezagutzeko; printzipio horiek, hain zuzen, bat datoz gobernantza, teknologia, berrikuntza, jasangarritasuna eta irisgarritasuna alderdiekin, HTA ereduaren bidez.

Abian jarri zenetik, Euskadiko ehunka erakundek (enpresak/helmugak) egiaztatu dute Euskadiko Turismoaren Kode Etikoarekin duten konpromisoa, eta **Euskadiko Etika Turistikokoaren erregistroa** osatzen dute.

Lan hori guztia lurraldearekiko errespetua sustatuz indartzen da, turismo jasangarria eta errespetuzkoa izateko; beraz, marketin turistikoko kanpaineak ildo horri eusten diote, bisitari arduratsuak erakartze aldera.

Ondorio orokorrak

Turismoaren kudeaketa-eredu arduratsu eta iraunkorrek adimenduna izan behar du (berritzailea, teknologikoa, irisgarria, jasangarria eta gobernantza-erakunde egokiak dituen), eta, batez ere, etikoa.

HTA eredia turismoaren gobernantza-eredu bat da, tresna erabilgarria lehiakortasun turistikorako, lurralde turistikokoaren garapen jasangarrirako eta tokiko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko (gizarte-ongizatea, enplegua, osasuna, kultura-garapena, hezkuntza, ingurumena...). Politika publiko horren helburu nagusia da turismo-eredu tradizionala

aldatzea eta eredu adimendun bihurtzea, ezagutzaren gizartearekin, trantsizio ekologikoarekin eta ekonomia digitalarekin bat etorritik. Helmuga Turistiko Adimendunaren ereduaren metodologia eta ezarpena Turismoaren Estatu Idazkaritzak sustatzen du, udaleko eta eskualdeko erakundeekin lankidetzan, eta erkidegoetako gobernuen eta probintzietako diputazioen, *consells* deritzen erakundeen eta kabildeen laguntzarekin.

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, BASQUETOURL erakundearen bidez eta helmugetako (TLE/TKE) teknikarien laguntzarekin, lehiakortasun-proiektu horiek lantzen ditu Euskadiko turismo-arloko erakundeekin (enpresak eta helmugak); zehazki, gobernantza eraginkorra eta efizientea, berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa, jasangarritasuna, irisgarritasuna eta etika turistikoa hartzen ditu aintzat, turismo arduratsua lantzeko, sektorea lehiakorragoa, etikoagoa eta jasangarriagoa izan dadin. Horrez gain, modu berezian sustatzen ditu helmugak, errespetuzko turismoa erakartzeko.

Prozesu horretan guztian, beste edozein bizi-prozesutan gertatzen den bezala, hainbat erronkari eta problematikari egin behar zaie aurre, hala nola klima-aldaketaren kudeaketa —tokiko ingurunearen eta biodibertsitatearen babesa barne—; kultura-ondare ukigarri eta ukiezinen kontserbazioa, berreskuratzea eta hobekuntza; mugikortasun garbi eta jasangarriagoaren lorpena; uraren zikloaren kudeaketa; eta turismo-jarduerako lan duina.

Euskadiren kasuan, modu iraunkorrean aurrera egitera bideratzen dira ahalegin guztiak, Helmuga Turistiko Adimendun seguru, jasangarri, arduratsu eta lehiakor gisa sendotzeko. Azken batean, bikaintasuneko helmuga turistikoa, lehiakorra eta kalitatezkoa lortu nahi da, gero eta turismo zorrotzagoa erakartzeko, Euskadira bisitan etortzen diren pertsonen zoriona ez ezik, Euskadin turismoaren sektorean aritzen diren langileen eta bertan bizi diren biztanleen onurarako. Finean, **etorkizuneko ikuspegia duen turismoa.** ■

Bideoa: Turismo arduratsua:
Turista Maitea (Querido/a turista)



Iturria: BASQUETOUR.

Bideoa: Turismo arduratsua:
Turismo Maitea (Querido turismo)



Iturria: BASQUETOUR.

Bibliografia

- Turismoaren Euskal Agentzia (Basquetour) (2022): *Turismoaren eta Merkataritzaren 2030 Euskal Estrategia*. https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_gubernamental/16_planest_xiileg/eu_def/adjuntos/Plan-estrategico-de-turismo-y-comercio-2030-eus-.pdf
- Turismoaren Euskal Agentzia (Basquetour) (2021): *Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa*. <https://euskadietikoa.eus/PDF/Codigo-Etico-Turismo-Euskadi-EU.pdf>
- Turismoaren Euskal Agentzia (Basquetour) (2023): *Turista arduratsuaren gida | Euskadietikoa*. <https://euskadietikoa.eus/eu/sektorea/turista-arduratsuaren-gida/>
- Turismoaren Euskal Agentzia (Basquetour) (2024): *Kanpainak: «Turista maitea» iragarkia | Basquetour Learning*. <https://learning.basquetour.eus/eu/tv/details/turista-maitea-euskera>
- Turismoaren Euskal Agentzia (Basquetour) (2025): *Erakunde bilatzailea*. Euskadiko Etika Turistikoaren Erregistroa | Euskadietikoa. <https://euskadietikoa.eus/eu/erregistratutako-entitateak/>
- Fernández Alcantud, A. eta García Moreno, B. (2020): «Los destinos turísticos inteligentes: El pilar de la recuperación turística», *Revista Ayana*, (1). <https://revistas.unlp.edu.ar/ayana/article/view/10827/9705>
- Fernández Alcantud, A. eta García Moreno, B. (2023): «El modelo destinos turísticos inteligentes (DTI): la apuesta por la sostenibilidad turística», *Revista Economía Industrial*, (426). <https://www.mintur.gob.es/Publicaciones/Publicacionesperiodicas/EconomiaIndustrial/RevistaEconomiaIndustrial/426/GARCI%CC%81A%20MORENO%20Y%20FERNA%CC%81NDEZ%20ALCANTUD.pdf>
- Espainiako Gobernua (2021): *Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR)*. https://www.lamoncloa.gob.es/temas/fondos-recuperacion/Documents/30042021-Plan_Recuperacion_%20Transformacion_%20Resiliencia.pdf
- Nazio Batuak - Turismoa (2021): *Notas metodológicas de la base de datos de estadísticas de turismo*. TME.
- Nazio Batuak - Turismoa (2018): *Rumbo a 2030: Por un turismo más inteligente, competitivo y responsable*. <https://www.e-unwto.org/doi/epdf/10.18111/unwtoecd.2018.3.g51w645001604517>
- Nazio Batuen Mundu Itunaren Espainiako Sarea (2019): *Guía para un turismo sostenible: Retos y criterios para la evaluación del sector turístico ante la Agenda 2030*. <https://reds-sdsn.es/wp-content/uploads/2019/10/Gui%CC%81a-para-un-turismo-sostenible-REDS-RTI-web.pdf>
- Nazio Batuen Mundu Itunaren Espainiako Sarea eta Turismoaren Mundu Erakundea (TME) (2016): *El sector turístico y los Objetivos de Desarrollo Sostenible: Turismo responsable, un compromiso de todos*. <https://www.pactomundial.org/biblioteca/el-sector-turistico-y-los-objetivos-de-desarrollo-sostenible-turismo-responsable-un-compromiso-de-todos/>
- SEGITTUR (2024): *Manual de destinos turísticos inteligentes*. <https://link.springer.com/content/pdf/10.1007/978-3-031-60709-7.pdf>

- SEGITTUR (2022a): *Guía de las mejores prácticas en destinos turísticos inteligentes*. https://www.segittur.es/wp-content/uploads/2022/04/Segittur_best-practices_ESP_2022_200422-OK.pdf
- SEGITTUR (2022b): *Guía práctica para la aplicación de la economía circular en el sector turístico en España*. https://www.segittur.es/wp-content/uploads/2022/05/Guia_Economia_Circular_sector_turismo.pdf
- SEGITTUR (2022c): *Manual de economía circular para pymes turísticas*. <https://www.segittur.es/wp-content/uploads/2022/05/Manual-PYME.pdf>
- SEGITTUR (2022d): *Manual de economía circular para destinos turísticos*. https://www.segittur.es/wp-content/uploads/2022/05/Manual-Economia_Circular-destinos.pdf
- SEGITTUR (2021): *Reglamento de funcionamiento de la Red de Destinos Turísticos Inteligentes*. https://www.destinosinteligentes.es/wp-content/uploads/2023/07/ReglamentoOrganosRedDTI_DEF_20230713.pdf
- SEGITTUR (2020): *Informe innovación turística y especialización inteligente en España*. <https://www.segittur.es/wp-content/uploads/2021/03/Informe-Innovacion-Turistica-y-Especializacion-Inteligente-en-Espana.pdf>
- SEGITTUR (2019): *Informe sobre economía circular aplicada al turismo*. <https://www.segittur.es/wp-content/uploads/2019/09/Informe-sobre-economi%CC%81a-circular-aplicada-al-turismo-ok.pdf>
- SEGITTUR (2015): *Libro blanco de los destinos turísticos inteligentes: Construyendo el futuro*. <https://www.segittur.es/wp-content/uploads/2019/11/Libro-Blanco-Destinos-Tursticos-Inteligentes.pdf>
- Torres Delgado, A.; López Palomeque, F.; Vera Rebollo, J. F. eta Ivars Baidal, J. A. (2022): *Turismo, ¿fin de época?* Valentziako Unibertsitatea.
- World Economic Forum (2024): *Travel and Tourism Development Index 2024*. <https://www.weforum.org/publications/travel-tourism-development-index-2024/downloads-d72ace2079/>

Jesús Navarro, Ana Ramón, Teresa Torregrosa eta Marta Suárez Tostado

Alacanteko Unibertsitatea

Maria Jesus Such Devesa


Alcaláko Unibertsitatea

Sarrera

Turismoaren ezaugarri nagusia zeharkako jarduera izatea da: nazioarteko mugikortasuna, kultur kontsumoa, higiezinaren inbertsioa, enplegu intentsiboa, baliabide naturalen ustiapena eta espazio publikoaren erabilera uztartzen ditu. Horregatik, eraldaketa ekonomiko eta sozialeko prozesu zabalaren **barometro bikaina** da, globalizazio neoliberaletik hasi eta larrialdi klimatikora artekoa. Eboluzio horrek trantsizioan dagoen nazioarteko sistema baten tentsioak islatu ez ezik, areagotu ere egiten ditu.

Gero eta ezegonkorragoa den mundu honetan, turismoak bere posizioa sendotu du, ekonomia globalaren motor handienetakoa den aldetik. Dagoeneko, munduko BPGren % 10 da, eta enplegu globalaren % 10 baino gehiago, eta bisitarien zifra errekorrak izan ditu, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorengo susperraldi azkarrarekin. Suspertzeko gaitasun hori erresilientziaren sinbolotzat goratu da, baina, era berean, agerian utzi du gero eta mendekotasun handiagoa duela eredu hauskor batekiko, XXI. mendeko tentsio politiko, sozial eta ekologikoekiko zaurgarri den ereduarekiko.

1. irudia. Turismoan egiten den etxeko eta nazioarteko gastua (2019-2024)



Iturria: geuk egina, WTTC eta Oxford Economics oinarri hartuta.

Hedapen-ziklo berri hori, hala ere, ezegonkortasun politikoa, eskualdeko gatazkak, merkataritza-tentsioak eta klima-krisia nagusi diren testuinguruan gertatzen ari da. Eta horrek guztiak premiazko galderak planteatzen ditu: nola eragiten diote logika

geopolitiko berriek turismoari? Prest al dago sektorea desglobalizazio selektiboak, nazionalismoen itzulerak eta nazioarteko mugimenduen konplexutasun gero eta handiagoak markatutako agertoki baterako?

Geopolitika aldakorra

Azken hamarkadetan, merkataritzaren liberalizazioak eta mugen irekierak bultzaturiko hedapena izan da, baina egungo geopolitika aldakorragoa da, osasun-krisi globalekin, irekita dauden gatazkekin, etengabeko tentsio diplomatikoekin eta nazionalismoen berpizte batekin. Logika berri horrek ez du globalizazioaren amaiera ekarri, baina gero eta muga agerikoagoak ezarri ditu, batez ere pertsonen mugikortasunari, ondasunen merkataritzari eta harreman diplomatikoei dagokienez.

Hamarkadaren hasiera oso nahasia izan zen turismo globalerako. **COVID-19**aren pandemiak hainbat ondorio eragin zituen: mugak ia erabat ixtea, herrialdeen arteko mugikortasunari begira mugak ezartzea, eta nazioarteko joan-etorriak inoiz baino gehiago amiltzea. 2020an, **nazioarteko turistek kopuruak % 72 egin zuen behera**, bisitarien iritsierak aurreko urtean baino 1.100 milioi gutxiago izan ziren, Turismoaren Mundu Erakundearen (TME) datuen arabera. **Nazioarteko turismoak eragindako sarrerak % 60 baino gehiago jaitsi ziren**, eta horrek 930.000 milioi dolar inguruko uzkurtzea ekarri zuen munduko ekonomian. Osasun-krisiak gehien kolpatu zuen sektoreetako bat izan zen; eragin zuzena izan zuen milioika enplegutuan eta turismoarekiko mendekotasun handiena zuten ekonomietan.

Egoera horrek agerian utzi zuen turismoaren sektoreak nazioarteko ordena egonkor batekiko duen mendekotasun handia, estatuen arteko elkarrekiko konfiantza oinarritua. Osasun publikoko politika nazionalak —ondoko herrialdeekiko koordinaziorik gabeak, askotan— ziurgabetasun-giroa sortu zuten, eta horrek eragina izan zuen bai bidaiarien erabakietan, bai enpresen estrategietan.

Hala eta guztiz ere, susperraldi nabarmena izan da gerora. 2021etik 2024ra bitartean, nazioarteko turismoa pixkanaka suspertuz joan zen, eta, 2024an, pandemiaren aurreko mailak gainditu zituen, nazioarteko turismoak eragindako diru-sarrerari dagokienez. Sektorearen erresilientziak harrituta utzi ditu nazioarteko erakundeak ere, urteko % 8,5eko hazkunde iraunkorra izan baitu. Suspertze hori, hain zuzen ere, hainbat faktorek bultzatu dute: eskualdeko turismoak, igorle handiek (Txina edo AEB, kasu) ateak berriro ireki izanak eta konfinamenduen ondoren metatutako eskari handiak. Nolanahi ere,

2021etik 2024ra bitartean, nazioarteko turismoa pixkanaka suspertuz joan zen, eta, 2024an, pandemiaren aurreko mailak gainditu zituen, nazioarteko turismoak eragindako diru-sarrerari dagokienez. Sektorearen erresilientziak harrituta utzi ditu nazioarteko erakundeak ere, urteko % 8,5eko hazkunde iraunkorra izan baitu. Suspertze hori, hain zuzen ere, hainbat faktorek bultzatu dute: eskualdeko turismoak, igorle handiek (Txina edo AEB, kasu) ateak berriro ireki izanak eta konfinamenduen ondoren metatutako eskari handiak.

pandemiaren egiturazko ondorioek bere horretan dira: bidaiatzeko modua, kontsumitzaileen lehentasunak eta munduko mugikortasunari lotutako arriskuaren pertzepzioa aldatu egin dira.

COVIDaren krisia gaindituta, egungo geopolitikan gero eta ezegonkortasun handiagoa dago, eta, horren ondorioz, turismo globala garatzen den baldintzak aldatzen ari dira. Errusiaren Ukrainako inbasioak eragin nabarmena du nazioarteko turismoan, Ekialdeko Europan, bereziki. Mugako herrialdeek, hala nola Poloniak, Errumaniak edo Baltikoko Estatuak, aldaketa nabarmenak izan dituzte beren turismo-fluxuetan: alde batetik, turismo solidarioaren garapen hasiberria; eta bestetik, turismo tradizionalaren beherakada, gatazkaren gertutasunak eragindako beldurragatik. Gainera, Errusiari ezarritako nazioarteko zigorrak eta aire-eremuen itxierak ia erabat ezabatu dute Errusiako turismoa Mendebaldeko Europako zati handi batean, eta, aldi berean, Errusiak bere eskaintzaren zati bat barne-turismora edo zehapenekin lerrokatu gabeko herrialdeetara bideratu du. Hain zuzen ere, Errusiako Garapen Ekonomikoko Ministerioaren datuen arabera, nazioarteko turismoak hazten jarraitzen du herrialdean, bakartze diplomatikoa gorabehera, Asiarekin, Ozeano Barearekin eta Persiako Golkoarekin turismo-loturak indartzeari esker.

Atlantikoaren beste aldetik, Estatu Batuek ere eredu esanguratsua dute, baina espero gabekoa. 2025eko urtarrilean Donald Trump presidente izendatu zutenetik, «Trump efektuak» prentsa, merkatuak eta nazioarteko harremanak astindu ditu. Giro politiko

horren ondorioz, nabarmen jaitsi da herrialderako turismo-eskaria, batez ere agintari iparramerikarrak argi eta garbi seinalatutako Europako helmugetatik. Hilabete bakar batzuetan, jatorria Europan zuten bidaiek gainbehera gogorra izan zuten. AEBetako Merkataritza Saileko International Trade Administration erakundearen datuen arabera, Europako bisitarien urte arteko aldakuntza izugarri jaitsi zen 2024ko lehen hiruhilekoaren eta 2025eko lehen hiruhilekoaren artean: Austria (-% 30), Danimarka (-% 25), Alemania (-% 28), Islandia (-% 30), Norvegia (-% 27), Espainia (-% 25), Suedia (-% 20) eta Erresuma Batua (-% 18). Erorketa sinkronizatua bezain zabala kontinente osoan.

Sektoreari dagokionez, harridura sortu zuen Paul Englishek, Kayak bidaia-bilatzailearen sortzaileetako batek, adierazpen hau egitean agertutako irmotasunak, jarrera zuhurra izan ohi baitu: «Bi hilabetetan, Estatu Batuen ospea suntsitu du; hala erakusten du EBtik herrialde honetarako bidaietan izandako jaitsierak».

2025eko udara begira, joera horri eutsiko zaiola dirudi. ACAVE patronalak (bidaia-agentzia espezializatuen elkarte korporatiboa) Espainiako bidaia-agentzien artean egindako inkesta baten arabera, agentzien % 75en jaitsiera handia izan du Estatu Batuetako helmugetarako bidaien eskariak. Bezeroek aipatzen dituzten arrazoi nagusiak gobernu berriaren onarpen eza (% 72) eta muga-kontrol zorrotzak (% 28) dira. Bertan behera utzitako bidaiak esanguratsuak izan ez badira ere, erreserba berriak nabarmen jaitsi dira, merkatu igorleetan, batez ere, Espainian, Alemanian eta Erresuma Batuan, esate baterako. Jaitsiera horrek berresten du Estatu Batuek helmuga turistiko gisa zuten erakargarritasunaren galera kontsumitzaileen portaeran barneratu dela, bidaien plangintzan indarra galduta. Segurtasun ezaren pertzepzioa, migrazio-esparruaren gogortzea eta gobernuaren aurkako gero eta jarrera handiagoa direla-eta, herrialdeak erakargarritasuna galdu du aurreko urteekin alderatuta.

Horrez gain, Ekialde Ertaineko egungo gatazka armatuek korridore turistiko osoak itxi dituzte, eta, horrenbestez, eskaria beste eskualde batzuetara mugitu behar izan da, eta «segurutzat» jotzen diren helmugen arteko lehia areagotu da.

Testuinguru berri horrek ziurgabetasuna sortzen du, baina baita egungo turismoaren oinarri politikoak

birpentsatzeko beharra ere. Hala, dimentsio geopolitikoak funtsezko faktore bihurtu da mapaturistiko globalaren aldaketak ulertzeko. Desglobalizazioa — oraingoz — ez da ageri ez ondasunen merkataritzan, ez zerbitzuen merkataritzan.

Turismo-fluxuen gainerako ondorioak

Testuinguru geopolitiko berri hori zuzenean islatzen da nazioarteko turismo-fluxuen konfigurazioan. Lehenik eta behin, eskaria egonkorragotzat eta seguruagotzat jotzen diren helmugetara lekualdatu dela ikusten da, tradizionalki ezagunak izan arren gatazken edo murrizketen eraginpean dauden beste batzuen kaltetan. Aldi berean, hurbileko turismoaren eta etxeko turismoaren hazkunde iraunkorra finkatu da, batez ere erdi-mailako klase sendoa den herrialdeetan.

Bestalde, Hegoko lurretan helmuga berriak sortzea ere turismoaren munduko mapa berregituratzen ari da, pandemia aurreko garaietatik. Zenbait herrialde, hala nola Indonesia, Maroko, Kolonbia eta Vietnam, nazioarteko gero eta bisitari gehiago erakartzen ari dira, beren aniztasun natural eta kulturala baliatuz, bai eta irekitasun instituzional handiagoa baliatuz ere. 2024an, herrialde batzuek nabarmen gainditu zituzten pandemia aurreko zifrak, hala nola **Albaniak (% 80), Kolonbiak (% 37), Marokok (% 35) eta Guatemalak (% 33)**, eta sendotu egin ziren merkatu globalean. Joera bereziki nabarmena da oso maila apaletatik abiatzen ziren eskualdeetan, Ipar Afrikan eta Erdialdeko Amerikan, adibidez; **% 22 eta % 17** hazi ziren, hurrenez hurren, 2019arekin alderatuta.

Lekualdatze hori, azken hamarkadetan izandako globalizazio-prozesuarekin hain lotuta dagoena, eskaintza-faktoreen ondorio da batetik, hala nola prezio lehiakorak, garraio-erraztasunak, azpiegituren hobekuntza eta egonkortasun instituzionala, eta, bestetik, eskari-faktoreen ondorio, hau da, helmuga tradizionalak saturatzearen eta bidaiariek esperientzia «benetakoagoak» edo ez hain masifikatuak nahi izatearen ondorio. Pandemiaren ondorengo susperraldi-gaitasun asimetrikoak **nazioarteko turismoaren polarizazioan sakondu du**; izan ere, herrialde batzuek erakartzeko eta biltzeko gaitasuna indartu dute (sektoreak 1,9 bilioi dolar sortu zituen esportazioetan 2024an, 2023an baino % 3 gehiago),

eta beste batzuek, berriz, oraindik ez dituzte lortu pandemiaren aurreko zifrak, Asia-Pazifikoan eta Ekialdeko Europan, batez ere.

Arrakala kuantitatibo horrez gain, desberdintasun kualitatibo bat dago: sortzen ari diren helmuga askok **oraindik ez dute arau-esparru sendorik edota jasangarritasun-plan integralik**, eta, beraz, helmuga nagusien akatsak errepikatzeko arriskua dute. Testuinguru horretan, turismoa, aukera ekonomikoa ez ezik, desberdintasun globalen adierazle eta nazioarteko gobernantzaren erronka ere bihurtu da.

Hori dela-eta, merkatu turistikoaren polarizazio handiagoa da: hazten jarraitzen duten helmuga hipermasifikatuak eta azkar nabarmentzen ari diren lurralde berriak, beharrezko azpiegitura edo erregulaziorik gabe, askotan. Tentsio horrek jasanezintasun sozial eta ekologikoaren ageriko arriskuak dakartza, turismoaren hazkundera barne-krisiei aurre egiteko irtenbide ekonomiko azkar gisa planteatzen denean, bereziki.

Oro har, turismo-fluxuek gero eta gehiago islatzen dituzte desberdintasun globalak: bidaiatu dezaketenek sarriago eta helmuga askotarikoagoetara bidaiatzen dute; bidaiatu ezin dutenak, berriz, mugikortasun horretatik kanpo geratzen dira. Horrela, nazioarteko turismoa gaur egungo globalizazioa definitzen duten arrakala sozial eta ekonomikoen adierazpen zuzen bihurtzen da.

Espainiaren kasua: arrakasta eta mendekotasuna

Espainia munduko potentzia turistikotzat sendotu zen hirurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, nazioarteko turismoaren hazkundera herrialdearen garapen ekonomikoaren funtsezko makuluetako bat bihurtu zenean. Harrezkero, turismoa dibisa-eta esportazio-iturri nagusietako bat izateaz gain, ekonomia- eta lurralde-politiken ardatz egituratzailea ere izan da azken bost hamarkadetan. Gaur egun, sektoreak BPG nazionalaren % 12,3 inguru hartzen du, eta 2,5 milioi pertsonari baino gehiagori ematen die enplegua, zuzenean edo zeharka; horrek, beraz, agerian uzten du Espainiako ekoizpen-ereduan duen egiturazko pisua.

2024an, Espainiak bere marka historikoa hautsi zuen nazioarteko 93,7 milioi turista jasota; hau da, beste maximo absolutu bat izan zuen, eta munduko hiru helmuga bisitatuenen artean duen posizioa sendotu. Baina zifra hori ez da lorpen hutsa, paradoxa gero eta nabarmenagoa du ezkutuan: arrakasta ekonomikoak egitura ahul eta desorekatu bat du euskarri, lurralde-kontzentrazioan, urtarokotasunean, enplegu prekarioan eta hiri-inguruneko eta ingurune naturaleko presio gero eta handiagoan oinarritzen dena.

Ekonomian duen garrantzia ekonomiko horren ondorioz, gainera, etengabeko arreta izan du politikan. Turismoa sistematikoki babestu da sustapen-estrategia nazionalen, azpiegiturretan egindako inbertsio publikoen eta lehiakortasun-planen bidez, eta Espainia ekonomia globalean txertatzeko funtsezko pieza bihurtu da. Nolanahi ere, arrakasta kuantitatibo horrek berak tentsioak sortu ditu lurraldean, gizartean eta ekologian, eta ereduaren jasangarritasunari buruzko galderak planteatu dituzte.

Lidergo hori indartu egin da azken urteetan. 2024an, Espainiak bere marka historikoa hautsi zuen nazioarteko 93,7 milioi turista jasota; hau da, beste maximo absolutu bat izan zuen, eta munduko hiru helmuga bisitatuenen artean duen posizioa sendotu. Baina zifra hori ez da lorpen hutsa, paradoxa gero eta nabarmenagoa du ezkutuan: arrakasta ekonomikoak egitura ahul eta desorekatu bat du euskarri, lurralde-kontzentrazioan, urtarokotasunean, enplegu prekarioan eta hiri-inguruneko eta ingurune naturaleko presio gero eta handiagoan oinarritzen dena.

Ikuspegi makroekonomikotik, turismoa ihesbidetzat hartu da Espainiako ekoizpen-ereduaren egiturazko ahulezien aurrean, industria-ahalmen mugatua eta zerbitzu-sektorearekiko mendekotasuna, bereziki. Turismoak bultzatutako zerbitzu-balantzaren superabitak partzialki konpentsatzen du merkataritza-defizita, eta aukera ematen du bestela arriskuan egongo liratekeen oreka makroekonomikoei eusteko. Baina logika horrek egiturazko mendekotasuna sortu du, ekonomia-politikako beste erabaki batzuk baldintzatzen dituena.

Lurraldeei dagokienez, turismoaren hazkundeak eskualdeen arteko desberdintasunak areagotu ditu. Balear Uharteek, Kanariak, Kataluniak eta Andaluziak biltzen dute nazioarteko fluxuaren zati handi bat, eta beste eremu batzuk, berriz, dinamismo horretatik kanpo geratzen dira. Kontzentrazio horrek hainbat arazo areagotzen ditu, hala nola higiezinaren espekulazioa, gentrifikazioa, azpiegitura eta zerbitzu publikoen gaineko presioa, eta egoiliarren auzo arteko desplazamendua.

Aldi berean, turismoak eragina izan du hirien konfigurazioan. Alokairu turistikoaren gorakada, bisitarien soilik zuzendutako negozioen ugartzea eta espazio publikoen masifikazioa direla-eta, hiri-paisaia eraldatzen ari da, eta egoiliarren eguneroko bizitza sakonki asaldatzen. Hiriak leku bizi izateari utzi diote, eta kontsumitutako produktu bihurtu dira, parke tematiko, eta, ondorioz, egoiliarrik gabeko gune.

Birmoldatzeko eta dibertsifikatzeko saiakerak egin arren —bereziki nabarmenak dira diskurtso instituzionaletan, hala nola 2030 Turismo Jasangarriaren Estrategia—, **sektorearen mendekotasun kuantitatiboak mugatu egiten du eraldaketarako benetako gaitasuna**. Enpresa-hunaren, inbertsioen eta politika publikoen zati handi bat iritsiera-zifrak eta gastua maximizatzerako bideratuta dago oraindik, sakonean dagoen eredu aldatu gabe. Arreta alderdi kualitatiboan jarri eta, modu sinplean, eroste-ahalmen handiagoa duten turisten aldeko apustu gisa ulertzen den ereduak, turistaren profilari buruzko bestelako gogoetarik egin gabe, gaindituta behar luke dagoeneko. Diru gehiago gastatzen duen turistak ez du zertan arduratsuagoa izan, ez bidaian ez helmugan.

Azken finean, Espainiako kasuak modu paradigmaticoan ilustratzen ditu egungo turismoaren dilemak: arrakasta ekonomikoa vs. jasangarritasun soziala; lidergo globala vs. tokiko kontrolaren galera; eta hazkunde kuantitatiboa vs. bizi-kalitatea. Eredu horrek hainbat hamarkadatan balio izan du, baina egiturazko agortzearen sintomak erakusten hasi da.

Zenbait helmugatan, hala nola Bartzelonan, Palman, Donostian eta Granadan, turisten presentzia masiboak gatazka sortu ditu bertako biztanleekin, beren hiria kontsumo bizkorreko dekoratu bihurtzen ari dela sumatzen baitute. Horrez gain, arautu gabeko opor-aloairuak ugaritu egin dira; hori dela eta, egoiliarren kanporatzea azkartzen da, eta etxebizitzak haren funtzio sozialetik aldentzen dira. Kasu askotan, hiri-espazioak eraldatzeaz batera, kultura-identitatea galduz joan da, esperientziak homogeneizatu baitira, eta ondarea hutsaldu.

Turismofobia eta beste kanpo-efektu batzuk

Espainian —eta munduko beste eskualde askotan— izan den turismoaren gorakadak albo-ondorio batzuk ekarri ditu, eta, bigarren maila batean gelditu ordez, eztabaida publikoaren zentralitatea lortu dute. Helmugak saturatzen doazenez eta turismoaren onurak **modu ekitatiboan banatzen ez direnez**, egonezina handitzen ari da egoiliarren artean. Egonezin hori protesta esplizituen, pintaketen edo sare sozialetan egindako kanpainen bidez azaleratzen da batzuetan, azken urteetan indarra hartu duen etiketaren pean: **turismofobia**.

Sektore batzuek modu interesatuan erabili dute hitz hori, kritikak deslegitimatzeko, baina, egia esan, benetako arazo bat nabarmentzen du: turismoaren intentsitatearen eta lurraldeek eredu horri eusteko duten ahalmenaren arteko desoreka gero eta handiagoa. Sintomak ugariak dira: aloairuaren garestitzea, bizilagunen kanporatzea, garraio eta zerbitzu publikoaren saturazioa, ondarearen narriadura, hurbileko merkataritzaren galera, eta eguneroko bizitzaren ordezkapena **esklusiboki bisitariengana bideratutako** ekonomia sustatuta.

Zenbait helmugatan, hala nola **Bartzelonan, Palman, Donostian eta Granadan**, turisten presentzia masiboak gatazka sortu ditu bertako biztanleekin, beren hiria **kontsumo bizkorreko dekoratu bihurtzen ari dela** sumatzen baitute. Horrez gain, arautu gabeko opor-aloairuak ugaritu egin dira; hori


dela eta, egoiliarren kanporatzea azkartzen da, eta etxebizitzak haren funtzio sozialetik aldentzen dira. Kasu askotan, hiri-espazioak eraldatzeaz batera, kultura-identitatea galduz joan da, esperientziak homogeneizatu baitira, eta ondarea hutsaldu.

Espainiatik kanpo, **Hawaiiren** kasua bereziki argigarria da; azterlan askotan aipatu izan da. Artxipelagoak 1,5 milioi biztanle ditu, eta 10 milioi turista baino gehiago izaten ditu urtean; hala, inflexio-puntu batera iritsi dira bertan, egoiliarren bizikaltatea arrisku larrian jarri baita. Egoera hori gai nagusi bihurtu da jendartean ere, Bad Bunnyren abesti biralizatuan, esate baterako; abestian, honela dio, salaketa moduan: «*Quieren quitarme el río y también la playa / Quieren al barrio mío y que abuelita se vaya*» («Ibaia kendu nahi didate, baita hondartza ere. / Nire auzoa nahi dute, baita amonaxoa joatea ere»). **Turismo-ereduaren kritikak foro akademikoak gainditu ditu, eta eguneroko hizkuntzetan, hizkuntza artistikoetan eta emozionaletan txertatu da.**

Espainian, 2025eko udaberrian, mapa harrigarri bat biralizatu zen; bertan, Tenerife uhartera iristen ziren turistak eta Brasilek 2024an jasotako nazioarteko bisitari-kopuru osoa alderatu ziren. Hego Amerikako herrialdearen azaleraren % 0,02 eskas izan arren, **Tenerifen Brasil osoan baino turista gehiago izaten dira.** Sare sozialen efektu anplifikatzaileak agerian utzi du gero eta sentsibiltate sozial handiagoa dela helmuga jakin batzuen saturazioari eta turismo-ereduak lurraldeen arabera duen proportzio ezari dagokienez.

Testuinguru horretan, premiazkoa da turismo-eredua birpentsatzea, ez soilik BPGri egiten dizkion ekarpenei erreparatuta, baizik eta gizartean, ingurumenean eta maila sinbolikoan eragiten dituen kostuak ere kontuan hartuta. Etekinen bestelako banaketa erreal bat eta espazioaren kudeaketa demokratikoagoa egin ezean, helmuga horiek ikusiko dute sustatzen dituen ekonomia-jarduerak berak jartzen duela arriskuan bertan bizi ahal izatea.

[...] remiazkoa da turismo-eredua birpentsatzea, ez soilik BPGri egiten dizkion ekarpenei erreparatuta, baizik eta gizartean, ingurumenean eta maila sinbolikoan eragiten dituen kostuak ere kontuan hartuta. Etekinen bestelako banaketa erreal bat eta espazioaren kudeaketa demokratikoagoa egin ezean, helmuga horiek ikusiko dute sustatzen dituen ekonomia-jarduerak berak jartzen duela arriskuan bertan bizi ahal izatea.



Eta orain zer?

Tentsioak —geopolitikoak, sozialak eta lurraldekoak— gero eta handiagoak diren egoera honetan, turismo-politikak birpentsatzea ez da aukera bat, premia bat baizik. Iritsierak eta diru-sarrerak maximizatzeko logikak agortze-zantzu argiak erakusten ditu. Eredua aldatzen ez bada, helmugek berek ezarriko dituzte mugak, saturazioagatik edo arbuioagatik. **Jasangarritasuna ez da lelo bat, sektoreak bizirik irauteko baldintza bat baizik.**

Arrakasta zifretan soilik neurtzeari uztea da lehen urratsa. Espainia adierazle zabalagoak txertatzen hasi da; besteak beste, 2030 Turismo Jasangarriaren Estrategian planteaturikoak aipa daitezke, bisiten kalitatean, lurralde-inpaktuan, enplegu duinean edo kultura-zaintzan zentratzen direnak. Ildo horretan, **Turismoaren eta Bidaien Garapen Indizeak**, Munduko Ekonomia Foroak bultzaturikoak, ikuspegi

integralagoa ematen du, hainbat faktore barne hartzen baititu, hala nola ingurumen-jasangarritasuna, erresilientzia soziala edo erakundeen prestakuntza. Etorkizuneko turismoa neurtzeko, komunitateak sostengatzeko duen gaitasuna hartuko da kontuan, ez errekorrak hausteko duen gaitasuna.

Halaber, funtsezkoa da tokiko gobernantza indartzea. Administrazioek arau- eta zerga-tresnak izan behar dituzte, etxebizitza antolatzeke, turismo masiboa mugatzeko eta sektoreko eragileei erantzukizuna eskatzeko. Benetako deszentralizaziorik gabe, estrategia nazional orok paper erreza izateko arriskua du.

Turismo-politikak bidezko garapenaren proiektu zabalago baten parte izan behar du. Beharrezko ditu herritarren parte-hartzea, etekinen birbanaketa, ekonomia sozialaren babesa eta lurraldearen mugak errespetatuko dituen trantsizio ekologikoa. Laburbilduz: epe laburrekin obsesio gutxiago duen eta ongizate kolektiboarekiko konpromiso handiagoa agertzen duen turismoa.

Erakutsi duenez, turismoa dinamikoa eta erresilientea da, baina, aldi berean, aro geopolitiko berriko tentsioekiko, krisi klimatikoarekiko eta desberdintasun sozialekiko zaurgarria. Bidaiatzea eskubide bermatua ez den mundu zatikatu honetan,

jada ez da galdetu behar zenbat turista iritsiko diren, baizik eta **zer baldintzatan, zer inpaktuekin eta zer arauaren pean** iritsiko diren.

Etorkizuna izan nahi badu, turismoak hori ahalbidetzen duten lekuekin adiskidetu behar du. Ezin du jarraitu zifren industria huts izaten: ongizate eta ekitate globalerako tresna bihurtu behar du. ■


Bibliografia

- ACAVE (2025): *Previsiones de viaje de verano*, 2025. [Prensa-oharra], Bidaia Agentzia Espezializatuen Elkarte Korporatiboa.
- Nazio Batuak - Turismoa (2025eko urtarrilaren 21a): *International tourism recovers pre-pandemic levels in 2024*. [News Release], Madril.
- World Economic Forum (2024): *Travel & Tourism Development Index 2024: Rebuilding for a Sustainable and Resilient Future*. <https://es.weforum.org/publications/travel-tourism-development-index-2024/>
- World Travel & Tourism Council (2025): *EIR Factsheet – World 2025*. <https://wttc.org/research/economic-impact>

ANNA PACHECO, *ESTUVE AQUÍ Y ME ACORDÉ DE NOSOTROS*, ANAGRAMA KOADERNO BERRIAK. 2024

María Jesús Such Devesa eta Patricia Aranda Cuéllar

Alcaláko Unibertsitatea



Anna Pachecoren *Estuve aquí y me acordé de nosotros* liburua («Hemen egon nintzen, eta gutaz oroitu nintzen»), gaur egungo turismoaren konplexutasuna eta haren zenbait kontraesan ulertzen laguntzen duen ekarpen gisa hartu behar da. Lan honek ezin hobeki osatzen du turismoaren sektorearen egungo analisiak behar duen begirada globala, eta ikuspegi antropologiko batetik heltzen die esplotazio-dinamikak betikitzen dituen sistema batean langileek zein turistek dituzten erronka nagusiei. Turismoa XXI. mendeko industria garrantzitsuenetakotzat finkatu den testuinguruan —munduko BPGren % 10 inguru eta hamar enplegutik bat (WTTC, 2024) eragiten ditu—, Pachecoren hausnarketa kritikoa garrantzitsua da fenomeno global horren lan-inguruneetako ondorio sozialak ulertzeko.

Egileak etxeko iruditeriari behatuz eraikitzen du bere analisia, esperientzia pertsonal eta familiarra eta mendebaldeko gizarte garaikideetan bidaiek hartzen duten aspirazio-balioa lotuz. Hurbilketa metodologiko horrek, etnografian eta memorian oinarrituak, turismoaren esanahi sinbolikoak eta materialak argitzeko aukera ematen du, bai eta

identitate eta espektatiba sozialen eraikuntzan duten eragina argitzeko aukera ere.

Pachecoren hurbilketan, bere esperientzian oinarritutako hausnarketak ez ezik, Bartzelonako luxuzko hiru hoteletako langileei egindako 36 elkarrizketa sakon baliatu ditu, bai eta ezkutuko parte-hartzaile gisa behaturikoa ere; hori dela eta, aparteko ikuspegia ematen du, turismoaren analisi akademiko hutsak gaindituta. Landa-lan hori egiteko, barne-ekitaldi korporatiboetan egon zen, hala nola Gabonetako afarietan eta bilera sindikaletan, eta, horri esker, agerian uzten ditu luxuzko espazio horietan garatzen diren dinamika konplexuak. Hotel horietako langileen komentario eta erreakzioen kontaketa arinaren bidez, testuinguru ustez pribilegiatuetan lan-prekarietatea nola egituratzen den uler daiteke, bezeroentzako luxuaren eta langileen esplotazioaren arteko kontraesana maila gorenera iristen den gunetara, hain zuzen ere.

Analisirako Bartzelona hautatu izana bereziki egokia da, Kataluniako hiria turismofobiaren arloko alertaren paradigma bihurtu baita. Baina Bartzelonaren ezaugarri bihurtu diren masifikazio turistikoa eta gentrifikazioa fenomenoak ez dira hiri horretara mugatzen; hau da, beste leku batzuetan baino lehenago islatu dira bertan hiri-helmuga ugari iragiten dieten joera globalak, eta horregatik bihurtu da hiria turismoaren egungo tentsioak aztertze eta helmuga egoki. Pachecok hiru hotel horietan egindako azterketa enpirikoak funtsezko paradoxa bat erakusten du: enplegatuek eta bezeroek —guztiak ere turistak beren bizitzako uneraren batean— espazio bera partekatzen dute, baina lehenengoek ia debekatuta dute beraiek ematen dituzten esperientzia turistikoek gozatzea.

Liburuaren ekarpen adierazgarrienetakoa masaturisten kontzeptualizazioa da, «esplotazioa bultzatzen duten esplotatutzat» hartzen dituen. Hau da, kategorizazio horrek agerian uzten du zenbaiten paradoxa, beren bizitza prekarioan arnasa

hartu asmoz aisialdiko eta ongizateko esperientzien bila dabiltzanek eurek betiketzen baitituzte laneko desparekotasun-harremanak eta prekarizazioa. Gaur egungo turistaren ezaugarri garrantzitsutzat hartzen den kontzeptu indartsu horrek masa-turismoko botere-harremanen konplexutasuna erakusten du; izan ere, lan-prekarietateko eta soldata estankoko dinamiken mende daudenek eurek parte hartzen dute beste langile batzuk esplotatzen dituen sistemaren errepikapenean.

Mendebaldeko gizarteetan, populazioaren zati handi batek klase ertainekotzat du bere burua, eta oporrak hartzeko aukera du; bada, gizarte horietan, *carpe diem* leloak prekarietateak markatutako errealitate bati erantzuten diola dirudi. Pertsona askorentzat, antsietatea, etorkizuna planifikatzeko ezintasuna eta erretiro duin bat izateko itxaropenik eza dira bizitzaren ezaugarri nagusiak. Testuinguru horretan, Nando pertsonaiak «bizkor samarra» izateko itxaropena irudikatzen du; hau da, bere burua kokatzen duen erdi-mailako klasearen barruan («klase ertain apur bat baxuagoa»), posizio hobea lortzeko nahia adierazten du («bizkor samarra» izanik). Pachecok adierazi bezala, pertsonaiak eredu patriarkala irudikatzen du, ustez trikimailu guztiak dakizkien pertsona bat; hau da, gaur egun lortu ezin dituen kontsumoak eta esperientziak eskuratzeko nahiaz bizi da, eta, «bizkor samarra» denez, helburua lortzea espero du.

Paradoxa hori «atzera-aurreraren kulturen» kokatzen dute Hesterrek eta Srnicekek (2024), gobernuek, enpresariak eta langileak eurek prekarietatea naturalizatu eta legitimotzat hartu duten gizarte-ereduan. Laneko segurtasun ezaren normalizazioa egungo ekonomiaren ezinbesteko ezaugarritzat hartzen da, eta horren erantzukizuna egitura sistemikoetatik norbanakoen erabakietara igaro da. Turismoaren testuinguruan, ordutegien muturreko malgutasunaren, enpleguaren behin-behinekotasunaren eta aitortu gabeko eskupekoen eta lanen mendekotasunaren bitartez azaleratzen dira dinamika horiek.

Autoreak zenbait hurbilpenekin lotzen du gertaera hori, hala nola Ernest Cañadak (2019) turismo-arloko lanaren eta prekarietatearen arteko loturaz indartu diren hiru argumentu-ildoei buruz adierazitakoarekin, hau da: problematika ukatzea, prekarizazioa naturalizatzea eta duintzeko beharra. Pachecoren ikuspegia, zehazki, hirugarren ildo horretan kokatzen

da, turismoarekin lotutako lana duintzearen alde egiten baitu sektorea eraldatzeko estrategia gisa.

Pachecoren lanean, elkarrizketa emankorra sortzen da gaur egungo turismoaren beste ahots kritiko batzuekin, Ana Geranios eta haren lanarekin (*Verano sin vacaciones. Las hijas de la Costa del Sol*, 2023), bereziki. Bi ikuspegi arteko konbergentziak egungo turismoaren egiturazko paradoxa bat erakusten du: materialki turismoaren industriari eusten diotenak haren onurez ezin gozatu geratzen dira sistematikoki.

Egilearen hurbilketa antropologikoa bereziki egokia da sektorearen egiturazko baldintza horiek esperientzia subjektibo konkretu nola bihurtzen diren azaltzeko. Haren hasierako hipotesiaren kontra, ikerketak agerian uzten du klase aberatsekiko etengabeko harremanak ez duela nahitaez langileen arteko desberdintasun sozialen inguruko kontzientziazio handiagoa sortzen. Ideia horrek pribilegiozko testuinguruetako lan-esperientziaren ahalmen eraldatzailearen ikuspegi baikorraren aurka egiten du, eta iradokitzen du aberastasunarekiko hurbiltasun fisikoa eta menderakuntza-harremanen errepikapena aldi berean gerta daitezkeela.

Lan honek egungo turismo-eredua funtsean birpentsatzeko bideak irekitzen ditu. D'Eramok (2020) adierazten duen bezala, turistaren azken helburua da «turista izatea, beste turistarik gabe», nahi edo helburu paradoxikoa, masa-turismoaren berezko kontraesanak agerian uzten dituen. Ideia horrek lotura zuzena du *overtourism* delakoari buruzko egungo eztabaidekin eta turismo-fluxuen kudeaketa-estrategia jasangarriagoak ezartzeko behararekin. Aipaturiko obran turismoaren beste ikuspegi kritiko batzuekin sortzen den elkarrizketak erakusten du pentsamendu-korrante sendo bat dagoela, masa-turismoaren oinarriak zalantzan jartzen dituen. Konbergentzia intelektual hori kontuan hartuta, turismo-eredu hegemonikoaren alternatiba erreala garatzeko baldintzak landuta daudela adieraz daiteke.

Turismo jasangarrirako trantsizioan, beharrezkoa da ongizatearen kontzeptua berriz definitzea, eta komunitateen muga ekologikoetara ez ezik, ongizate sozialera ere hobeto egokitzen diren bizimoduaren alde egitea. Horretarako, mugarik gabeko hazkundearen beharrik ez duen eredu garatu behar da, helmuga turistikoetan bertakoak bizitzeko eta bisitariarekin bizirauteko aukera emango duena, haiek ahitu gabe.

Erronka nagusia da jasangarritasunaren funtsa ez galtzea eta ez bihurtzea edukirik gabeko etiketa, ohiko turismoaren erauzketa-dinamikak erreproduzitzen dituzten praktikak legitimatzeko erabiltzen dena. Benetako turismo-jasangarritasunak aldi berean heldu behar die ingurumen-, gizarte- eta landimentsioei, eta sektorearen ezaugarri den egiturazko prekaritatearen alternatiba errealak sortu behar ditu.

Bibliografia

Abelbidea, E. eta Murray, I. (editoreak) (2019): Turistificación global: perspectivas críticas en turismo. Icaria Antracyt. Bartzelona.

D'Eramo, M. (2020): El selfie del mundo. Anagrama. Bartzelona.

Geranios, A. (2023): Verano sin vacaciones. Las hijas de la Costa del Sol. Piedra Papel Libros. Rivas-Vaciamadrid.

Hester, H eta Srnicek, N. (2024): Afterwork: A History of the Home and the Fight for Free Time. Verso argitaletxea. Bartzelona.

World Travel & Tourism Council & Oxford Economics (2024ko irailaren 4a): Travel & Tourism Economic Impact 2024: Global Trends. WTTC. <https://researchhub.wttc.org/product/economic-impact-report-global-trends>

■ BIBLIOGRAFIAREN ATALA

- Hajarrahmah, D., McGehee, N. G., eta Soulard, J. (2024).

The road to success: Tourism social entrepreneurs' quest for regenerative tourism.

Annals of Tourism Research, 108, 103818. <https://doi.org/10.1016/j.annals.2024.103818>

Azterlan honetan, turismo-enpresa sozialek turismo birsortzaile izateko dituzten erronkak, estrategiak eta aukerak ikertzen dira. Bertan, gizarte-mugimenduaren teoria erabiltzen da enpresaburu sozialei egindako berrogeita hamazazpi elkarrizketa aztertzeko. Analisari esker, hiru etapa identifika daitezke: Inspirazioa (enpresa horiek sortzea eta berritzea bultzatzen duten faktoreak), Mantentzea (epe luzeko arrakastarako oztopoak eta estrategiak) eta Esplorazioa eta parte-hartzea turismo birsortzailean (konpromisorako oztopoak eta estrategiak). Azterlaneko parte-hartzaileek turismo birsortzaileak sortutako pentsamendu sistemikoa eta atzeraelikatze errepikakorra jarri zituzten agerian.

- Mancha Cáceres, O. I. eta Ramírez García, S. (editoreak) (2025)

Ruralidades y turismo. Miradas para la regeneración ecosocial de lo rural. Catarata, Madril.

Obra koral honetan, landa-eremuetan izandako eraldaketak eta trantsizio ekosozialean duten funtsezko funtzioa aztertzen dira. Landa-munduari azaleko ikuspegia edo ikuspegi erromantikoa eman beharrean, joan-etorri turistikorako gune hustzat, ingurune horiek eta horien eraldaketa egituratzen dituzten dimentsio ugari —sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta ekologikoak— lantzen dira liburuan. Tokiko ekimen berritzaileak aztertzen dira testuan, jakintza tradizionaletan oinarrituz aldaketaren kudeaketan duten protagonismoa aldarrikatzen dutenak. Landa-eremuetako dinamika turistikoak deskribatzera mugatu ordez, ekintzarako deia egiten du obrak: tokiko komunitateen protagonismoa berreskuratzea proposatzen du, haien jakintza tradizionalak, eta haiek duten moldatzeko gaitasuna, sarritan kanpo-eta erauzketa-logikak inposatzen dituen turismo-sistemaren aurrean. Kontua ez da turismo-produktu berri bat aztertea; hau da, lurralde batean dauden eta elkarrekin bizi diren egoiliarren eta bisitarien jakintzari balioa eman nahi zaio, akademiakideak, kudeatzaileak eta araugileak inspiratzeko, turistak mugitzen diren ingurunea errespetatzen duten proposamenak sor ditzaten. Landa-eremua eta turismoa aztertzen dituen lanak elkarlanean oinarritutako ezagutza sortzea

defendatzen du, zientziak eta eguneroko esperientziak bat eginez irtenbide egokituak eta lurralde-zentzu betekoak diseinatzeko.

- Molins, V. (2025). ***Ciudad Clickbait. Cuando buscar casa en tu ciudad se volvió una pesadilla. Barlin Libros, Valentzia.***

Liburu hau gure hirietan izaten ari den eraldaketaren erradiografia zirikatzailea da. Analisi zorrotz baten bidez, hirien bilakaera aztertzen du Vicent Molins geografo eta kazetariak, hau da, nola bihurtu diren hiri-espazioak kontsumitzeko diseinatutako agertoki —jendea bizitzeko gune baino gehiago—, ikuskizunaren logika, arretaren ekonomia eta ikusgarritasunarekiko obsesioa direla-eta. Gero eta herri gehiagotan, biztanleek turista-oldeei, bizilagunak kanporatzen dituen higiezin merkatuari eta hirigune historikoen nortasun-galerari egin behar diete aurre; eta bien bitartean, alkate asko hurrengo titular biralaren bila dabiltza. Noraezean dabilen hiri-ereduaren sintomak dira, hiritzat ulertzen dugun horren zentzua bera ere zalantzan jartzen dutenak. Saiakera honek hirien oraina moldatzen duten indarrei buruz gogoeta kritikoa egitera bultzatzen du, eta galdera kezkagarri bat planteatzen du: hiriek jarraitu al dezakete etxe izaten, pasaeran datozenentzat soilik pentsatuta badaude?

■ WEBGUNEAK

- Alba Sud. Turismo arduratsurako eta garapen jasangarriko ikerketa-zentroa: <https://www.albasud.org/>
- Turismoaren Mundu Erakundea (TME) - Garapen jasangarriko atala: <https://www.unwto.org/es/desarrollo-sostenible>
- 2024ko Turismoaren eta Bidaiei Garapen Indizea (World Economic Forum): <https://www.weforum.org/publications/travel-tourism-development-index-2024/>
- «Decrecimiento azul: un enfoque necesario para mares al límite». *El Salto Diario* egunkarian argitaratutako artikulua (2025): <https://www.elsaltodiario.com/tribuna/decrecimiento-azul-un-enfoque-necesario-mares-al-limite>
- Taking responsibility for tourism (2024), *Journal of Responsible Tourism Management* <https://responsibletourismpartnership.org/wp-content/uploads/2024/04/2024.pdf>

1. dosierra: [«Garai berriak garapenaren nazioarteko lankidetzarako»](#), 2011ko apirila.
2. dosierra: [«Mundua kontsumotik aldatzea?»](#), 2011ko uztaila.
3. dosierra: [«Itzalak mikrofinantzetan»](#), 2011ko urria.
4. dosierra: [«EGE krisiaren aurrean»](#), 2012ko urtarrila.
5. dosierra: [«Garapenerako lankidetzak krisi-garaian. Eragile berriak, helburu berriak»](#), 2012ko apirila.
6. dosierra: [«Krisia, herritarren haserrea eta gizarte-mugimenduak»](#), 2012ko uztaila.
7. dosierra: [«Beste politika ekonomiko bat posible al da?»](#), 2012ko urria.
8. dosierra: [«Banku etikoa posible al da?»](#), 2013ko urtarrila.
9. dosierra: [«Desberdintasuna eta gizarte-koehesioaren haustura»](#), 2013ko apirila.
10. dosierra: [«Elikagaien segurtasuna: Eskubidea eta beharra»](#), 2013ko uztaila.
11. dosierra: [«2015 ondoko garapen-agenda: Lehengo bidetik edo trantsizioaren hasiera?»](#), 2013ko urria.
12. dosierra: [«Ekonomia lankidetzan»](#), 2014ko urtarrila.
13. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dagu»](#), 2014ko udaberria.
14. dosierra: [«GEK: Erretorika gainditzeko»](#), 2014ko uda.
15. dosierra: [«Ekonomiaren irakaskuntza»](#), 2014ko udazkena.
16. dosierra: [«Prokomuna eta ondasun erkideak»](#), 2015eko negua.
17. dosierra: [«Garapenaren finantzazioa eta 2015 ondoko Agenda»](#), 2015eko udaberria.
18. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dago \(II. jardunaldiak\)»](#), 2015eko uda.
19. dosierra: [«Gizarte-bazterketak»](#), 2015ko udazkena.
20. dosierra: [«Zerga-sistema: efizientzia eta ekitatea»](#), 2016eko negua.
21. dosierra: [«José Luis Sampedro gogoan»](#), 2016 2015eko udaberria.
22. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dago \(III. jardunaldiak\)»](#), 2016eko uda.
23. dosierra: [«Ongi bizitzea, gizartearen paradigma alternatibo gisa»](#), otoño 2016ko udazkena.
24. dosierra: [«Energia. Erronkak eta arazoak»](#), 2017ko abendua.
25. dosierra: [«Genero-ikuspegia ekonomia sozial eta solidarioan»](#), 2017ko udaberria.
26. dosierra: [«Gure gizarte- eta ekonomia-ereduari buruz berriro pentsatzen»](#), 2017ko uda.
27. dosierra: [«Inpaktuko inbertsioa»](#), 2017ko udazkena.
28. dosierra: [«Globalizazioaren gobernu»](#), 2018ko negua.
29. dosierra: [«Ekonomia feminista: ikusezina ikusgai egiten»](#), 2018ko udaberria.
30. dosierra: [«Begirada kritikoak eta zeharkakoak»](#), 2018ko uda.
31. dosierra: [«Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko praktikak eta tresnak: partekatutako gogoeta bat»](#), 2018ko udazkena.



32. dosierra: [«Enpresako Demokrazia Aldarrikatzen»](#), 2019ko negua.
33. dosierra: [«Elikaduraren etorkizuna munduan»](#), 2019ko udaberria.
34. dosierra: [«2030 Agenda: gatopardismoa edo transformazioak»](#), 2019ko uda.
35. dosierra: [«Gizarte erantzukizun korporatiboa Elikagaien industrian»](#), 2019ko udazkena.
36. dosierra: [«Demografia: aldaketak ugalketa-ereduan»](#), 2020ko negua.
37. dosierra: [«Ekonomia zirkularra: aukera burutsua»](#), 2020ko udaberria.
38. dosierra: [«Funtsezko ekonomia: Herritarren ongizateari laguntzen»](#), 2020ko uda.
39. dosierra: [«Ekonomiaren Oligopolizazioa»](#), 2020ko udazkena.
40. dosierra: [«Espainako ekonomiaren ekoizpen-eredua berrantolatze bidean»](#), 2021ko negua.
41. dosierra: [«Garapena» Neurtu \(Eta Ulertzeko\) Beste Modu Batzuk»](#), 2021ko udaberria.
42. dosierra: [«Gizarte digitala, itxaropenak berreraikitzen»](#), 2021ko uda.
43. dosierra: [«Europa, pandemia eta krisi ekonomikoa»](#), 2021eko udazkena.
44. dosierra: [«Covid-19: ondorio sozial eta politikoak eta erantzuteko politikak»](#), 2022ko negua.
45. dosierra: [«Finantza Jasangarriak: Inbertsioaren Paradigma Berria?»](#), 2022ko udaberria.
46. dosierra: [«Unibertsitate aurreko hezkuntzari erronka jarri nahian: irakaskuntzako bestelako praktika batzuk bestelako ekonomia baterako»](#), 2022ko uda.
47. dosierra: [«2030 Agenda eta Ezinbesteko Paradigma-Aldaketa Unibertsitatean»](#), 2022ko udazkena.
48. dosierra: [«Enpresa-Eredu Berriak Eta Demokrazia Ekonomikoa»](#), 2023ko negua.
49. dosierra: [«Finantza-sistemaren digitalizazioaren erronkak»](#), 2023ko udaberria.
50. dosierra: [«Ekonomia espainiarra bidegurutze kritikoan»](#), 2023ko uda.
51. dosierra: [«Ekonomiaren eraldaketa digitala: lanean dituen eraginak»](#), 2023ko udazkena.
52. dosierra: [«Bidezko Trantsizio Ekosoziala»](#), 2024ko negua.
53. dosierra: [«Zilarrezko ekonomiari buruzko ikuspegi kritikoa»](#), 2024ko udaberria.
54. dosierra: [«Ekintzailetzaren egungo erronketarako estrategiak, aliantzak eta irtenbide kolektiboak, ekonomia sozial eta solidarioan»](#), 2024ko uda.
55. dosierra: [«Etxebizitza bat eta hiri bat izateko eskubidea: panoramika bat»](#), 2024ko udazkena.
56. dosierra: [«Nekazaritzaren eta landa munduaren etorkizuna»](#), 2025eko negua.
57. dosierra: [«Gerrako ekonomia»](#), 2025eko udaberria





Laguntzailea



Mugarik gabeko Ekonomialariak
c/ Gaztambide, 50 (sarrera SETEMen
lokaletik barrena)
28015 • Madril
Tel.: 91 549 72 79
ecosfron@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi
EKONOPOLo, Harrobi Plaza, 4,
48005 Bilbo, Bizkaia
Tel.: 722 371 633
ecosfron.euskadi@ecosfron.org